

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-05-20
ASTELEHENA
410. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



ENEKO AZKARATE

"Elkarlana areagotu egin beharko dugu baliabideei etekin gehiago ateratzeko"


Patxi Baztarrika

Hizkuntza Politikarako sailburu ordea | 7

Animaliak eta jaiak, ondo pasatzeko gogo eta eskubideak | 2



Natra Oñatiko bi pibot min hartuta igoera fase atarian | 26



Mondraren mendeurrena ospatzeko ekintzak bihartik aurrera | 15

Herritar askok atzoko eguna aukeratu zuten barraketan gozatzeko.



Azkenean, argia!

European eman dituzte bergararrek Pazkoetako lehen egunak. Atzo irekitako urdin-guneek lagundu zuten, azkenean, jendea kalera ateratzen | 11

JOSETXO ARANTZABAL

Ziklisten azken agurra 'Mardo'-ri

Errepidean errespetua izateko eskatu dute | 24



Zuriz margotutako bizikleta, ezbeharrak gertatutako tokian. | J. ARANTZABAL

"Asko egin dugu, baina ez da aski izan; jarrai dezagun lanean helburuak lortzeko"

Herrirak deituta, presoaren eskubideak aldarrikatu dituzte | 4

Hondakinak atez ate batzeko urrats bat gehiago Oñatin

Eguaztenean hasiko dira bilketarako materiala banatzen | 18



IURE EIZAGIRRE

Giro herrikoia Oñati-Arrasate bidegorriaren inaugurazioan | 4

Animaliak eta jaiak, ondo pasatzeko gogoa eta eskubideak

- ▶ Asko dira animaliekin egiten diren ikuskizunak
- ▶ Bailarako festetan ez da heriotzarik ematen
- ▶ "Sufrimendu" oro eragotzi nahi lukete batzuek



Jendea eta zezena, sokamuturrean; halako ikuskizunak ohikoak dira bailarako herrietan.

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Udaberrian ondo sartuta, festa sasoiaren hemen da dagoeneko eta askotariko ospakizun eta ikuskizunen artean hor izango dira animaliekin egiten direnak ere gure herri eta auzoetako kale eta plazetan. Animalien erabilpen horrek iritzi desberdinak eragiten ditu jendearengan, gizon-emakumeon ondo pasatzeko moduek haiei ekar diezazkieketen ondorioengatik, ondorio fisiko zein bestelakoengatik.

Debagoienetik kanpo, gaurkotasuneko gai dira, berriki, Galdakaon Gorritiren animalien ikuskizuna bertan behera utzi izana eta asto-karrerarekin gauza bera egiteko Equo alderdiaren eskakizuna eta, iaz Zestoan (Gipuzkoa) bezala –aldekoek irabazi zuten botoen %63arekin, iritzia emateko aukera zuen herritar kopuruaren erdiak bozkatuta–, egunotan Karrantzan (Bizkaia) zezenketen gainean egin duten galdeketa –nahiz eta, egungo egoera zailan, osagai ekonomiko ere hor egon, 7.200 euroko kostua duelako zezenketak–.

Zezenketen kasuan, ezagunak dira tradizioaren defendatzaileen

ESANAK

"Guk ondo pasatzeak ez du justifikatzen animaliarri sufritu araztea"

"Sufritu egiten dute; euren borondatearen kontra behartu egiten ditugu"

JOSU GARITONANDIA | EQUO



eta animalien kontrako tratatu txarren eta azkenean haiek hiltzearen aurka daudenen arteko diferentziak. Debagoienean, dena den, bestelakoak dira animaliekin egiten diren ikuskizunak. "Hemen dago ezaugarri nabarmen bat; hemengo jaietan ez dagoela heriotzarik, ez dela animaliarik hiltzen", dio Jose Ramon Bujanda albaitari onatiarrak. Eta gehitzen du: "Diferentzia ikaragarria da animalia jaietan hil edo ez hil".

Baina zezenekin ikuskizunak herri gehienetan, txerri-harrapaketak, zaldi eta idi-probak, asto-karrerak... Animaliak erabilia bailaran egiten diren ikuskizun edo ekintzetako batzuk dira horiek. Eta galdera: animalioi sufritzen al dute jardun horren ondorioz?

Animalien erabilera honen inguruan askotarikoak dira iritziak. Jose Ramon Bujanda zezenekin egiten diren ikuskizunetan ibiltzen da, animalien baldintzak egokiak direla zaintzen; Iñigo Almorza da Bergarako Zezenak ganadutegiko arduraduna –100 buru ditu, eta 70 ikuskizun aurtengo hitzartuta–; Josu Garitonia, berriz, Bergarako Equo

ESANAK

"Badugu zezen bat kalera 100 aldiz joan dena, eta ez du arazo psikologikorik"

"Ez zaio tratatu txarrik eman behar, baina animalia da, ez pertsona"

IÑIGO ALMORZA | GANADUZALEA



alderdiko kide da –animalien eskubideen defentsa da Equo alderdiaren ezaugarrietako bat–.

Animalien estresa

"Animaliek sufritu egiten dute, bai, bai; karreraren kasuan, adibidez, behartzen ari zara gauza batera bere borondatearen kontra"; Equoko Garitonia da hori dioena. Badio, baita ere, "sufrimendu" horrek "estresa" eragiten diela, albaitarien esanetan.

Bujandak ere badu, noski, zer esan honen gainean. "Sokamuturra tratatu txarra da?". Galdera erantzun gabe utzi du albaitariak, sorbaldak eta bekainak jasota. "Animalia horiek estresatuta daude? Bai. Estres hori jasan ezinezkoa da? Ez"; berak galdetu eta berak erantzun: "Nik ezagutzen ditut 12-14 urteko animaliak plazaz plaza dabiltzanak; hori da euren bizitza. Batzuek esaten dute euren duintasunaren kontra doala...", eta berriz ere sorbaldak eta bekainak gora Bujandak.

Iñigo Almorzarekin ganadutegiko batzuk dituen Bergarako Bitxurtu baserrian egin dugu hitzordua; plazara eramane ohi



Passat Alltrack

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Das Auto.



ARRITXU BARRUSO

J. RAMON BUJANDA
ALBAITARIA

"Jendeak foie nola lortzen den ikusiko balu..."

Bujandak dio "moral bikoitza" izaten dugula sarri. Zenbait ikuskizunen kontra bai, baina jateari buruz ari garenean...



Nola lortzen da ba foie?

Lortzen da ahateen elikadura behartzen. Karbohidrato ugari duen elikadura ematen zaio, gibelak ezin du hori prozesatu eta hasten da handitzen; eta, hartzen duenean tamaina oso dezente bat, hil egiten da, eta gibel hori jan egiten dugu, eta oso goxoa dago. Hor, moral bikoitza hori.

Ahatei propio eragiten diete gaixotasuna, beraz.

Bai. AEBetako estatu batzuetan ezin da foie saldu, tratu txarra delako. Etorriko da hori? Planteatuko da.

dituen behiak atzean dituela, dio: "Badugu bat, adibidez, 100 aldiz baino gehiagotan joan dena kalea, eta zezen hark ez du inolako problema psikologikorik". Eta gehitzen du: "Nahi nuke nik hauek moduan bizi: urtean hiruzpalau egunetan lan egin eta gero egon trankil".

Animalia horiek "bizimodu eroso" dutela baieztatzen du Bujandak ere, eta zezenekin egiten diren ikuskizunen aldekoek ematen duten beste argudio bat ere benetakoa dela badio: "Egia da; genetikoki oso animalia desberdinak dira sokamuturreko zezenak. Odolean dute jotzea eta eraso egitea". Baina animalioek estresa izateko arrazoi bat ba omen da, adibidez, euren inguruetatik kanpora ibili behar izatea.

Almorzak ez du hori ukatzen, baina dio bere animaliek ez dutela kaleko animalia batek baino estres gehiago; "izatekotan, berdin": "Baina gauza batzuk ondo ikusten ditugu, eta beste batzuk ez. Sokamuturrean animalia sokarekin lotuta ibiltzen dugula; bai, eta txakurra ere lotuta joaten da, berdin-berdin". Eta bere postura

berresteko zera, bere behi eta zezenek "nahi dutenean" egiten dutela txiza eta kaka: "Kalean bizi den animaliak egiten du bere nagusiak ahal duenean edo nahi duenean; etxean dagoen animaliak ere gauza asko egin behar ditu bere borondatearen kontra".

Hortaz, tradizioekin zer egin

Equo alderdiko Josu Garitaonandiak argi dauka: "Animaliei, edozein izaki biziduni moduan,

ahalik eta tratu etikoena, egokiena, eman behar diegu. Guk ondo pasatzeak ez du justifikatzen izaki bizidun bati sufritu araztea. Ohitura asko oso errotuta daude, eta ohitura aldaketa beti kostako da egitea, baina poliki-poliki joan behar genuke helbururantz".

Baina Almorzak dio: "Animalia bat animalia bat da, eta animalia moduan tratatu behar da; horrek ez du esan nahi tratu txarrik eman behar zaionik, alde-

rantziz, baina animalia bat da, ez da pertsona bat".

Eta Bujandak: "Gizakiak gara, gure artean, eta gero naturarekin eta animaliekin, harrapari batzuk. Eta, orduan, gu gara animaliak baino gehiago, kito; eta eskubidea dugu egiteko nahi duguna. Orain arte horrela funtzionatu dugu pixka bat, baina aldatzen ari da". Albaitariaren esanetan, gizarteak jartzen du neurria: "Ohitura batzuk onartu egiten ditu, eta

beste batzuk onartzeari utzi egiten dio; adibidez, Lekeition: lehen onartzen zen antzara bizirik egotea eta pertsona bat zintzilik jartzea lepoa apurtu arte; gero anestesia ematen zieten antzarei; eta, orain, antzara hilda egoten da aurrez. Ondo pasatzearen truke animalien zenbaterainoko sufrimendua onartu gizarteak erabakitzen du". Eta Bujandak gehitzen du gizarteak daraman norabidea dela eskubideak zabaltearena, baita animalien kasuan ere: "Baserritarrei ere animalien ongizatea eskatzen zaie; garbitasuna, argia, lurra garbi egon dadila eta abar".

Iñigo Almorzak esaten du, oster: "Oilasko granjekin inor ez da sartzen. Zenbat oilasko daude kaiola bakoitzean? Zergatik sartzen gara beti ikuskizunekin? Askok, politizatu egiten direlako gauzak. Ematen duelako gauza hauek denak ez direla gure herrikoak; eta bai, zezenak eta errektadoreak, zehazki, hemengo kontua dira". Eta amaitzen du esaten: "Tradizio batzuk ditugu, eta mantendu egin behar dira; noski, animaliekiko ahalik eta errespetu handienarekin".

Debagoienean ere aldatu edo aldarazi da ohitura zaharrik

Ikuskizunetan bakarrik ez, elikadurarekin lotutako tradizioetan ere erabiltzen dira, noski, animaliak. Txerribodarik, esaterako, izango da oraindik han eta hemen. Osintxun, berriz, bazuten Kofradixa jaietan txahala edo behia auzoan bertan jende aurrean hil eta harekin salda egin eta, okela puskarekin batera, auzokoen artean banatzeko ohitura, aspalditik zetorrena. Garai batean behartsuen artean banatzen omen zuten haragia. Baina ospakizun hau horrela egiteari utzi egin zioten Osintxun; legeak debekatu egiten du "animaliak kalean sakrifikatzea".



Txerriboda. | GOIENA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2013-2014

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/gmh
gmh.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Ate Irekien Jardunaldiak

Maiatzak 25 11:00



Giro herrikoia Oñati-Arrasate bidegorriaren inaugurazioan

Bizikleta-martxak Oñatiko Zubillaga auzora heltzean hasi zen ekitaldia

IURE EIZAGIRRE | OÑATI

Hilabeteetako lanen ostean, atzo inauguratu zuten Oñati-Arrasate bidegorria. San Prudentzion ziren inaugurazioa egitekoak baina eguraldi iragarpena zela -eta Zubillaga auzoko frontoira lekualdatu zuten ekitaldia.

Arrasatetik eta Oñatitik irten-dako bizikleta-martxak Zubillagara heldu eta gutxira hartu zuten hitza agintari politikoei. Inazio Azkarragaurizar, Arrasateko alkatea, zuzendu zitzaion lehenik bertaratutakoei eta bidegorria aprobetxatzeko, eta oinez nahiz bizikletaz erabiltzeko deia egin zien. Mikel Biain, Oñatiko alkateak, eskerrak eman zizkion Gipuzkoako Foru Aldundiari, egungo egoera ekonomikoan ere, proiektu hau bere lehentasunen artean mantentzeagatik. Larraitz Ugarte Mugikortasuneko eta Bide Azpiegiturarako diputatuak hartu zuen hitza azkenik. Euren elkarlanean aritu direnei eskerrak eman, eta bidegorri honek bailarako duen garrantzia azpimarratu zuen.

Gehiegi luzatzeko asmorik gabe, haurrentzako prestatutako jolasei eta hamaiketakoari ireki zieten bidea. Txikienek euren bizikletak hartu eta berehala ekin zioten zinta-lasterketan jolasteari. Sokatiran aritu ziren ostean. Ordurako



Arrasateko eta Oñatiko alkateek eta Larraitz Ugarte diputatuak ez zuten ekitaldi luzea egin nahi izan. | IURE EIZAGIRRE



Bizikleta-martxek San Prudentzio pasa ondoren egin zuten bat. | I.E.

helduek pintxoia eta sagardo basoa zituzten eskuetan.

Bizikleta-martxak

Inauguraziora elkarrekin joateko bizikleta-martxak zeuden deituta atzo Oñatin eta Arrasaten. 11:00ak aldean irten ziren biak, arrakasta ezberdinarekin. Arrasaten 15 pertsona inguruko taldea bildu zen. Oñatitik, berriz, 50 pertsona irten ziren.

Bidegorria ia laua denez, adin guztietako jendearentzat da egoikia eta atzo haur, gazte nahiz



ANDER ETA JOSU GARTZIA OÑATI

"Oñatitik gatoz. Guk badaukagu bidegorri berria erabiltzeko asmoa. Oinez eta bizikletan erabiliko dugu. Asko ibiltzen gara bizikletan".



MIREN ASPE ARRASATE

"Arrasatetik doan martxan irtengo gara, goiza aprobetxatu eta bidegorri berria ezagutuko dugu. Famili giroan goaz, aita lanean dago baino beste hiruok bagoaz".



JOSU ERRARTE ARRASATE

"Bidegorria erabiliko dut, noski. Orain arte ere erabili dut egin gabe zegoenean, zituen arazoekin. Orain zabalik dagoela eta errepidea saihestu daitekeela, gehiago".

helduak iritsi ziren Zubillagara. Domeka goiza izanda, familian joan ziren batzuk. Beste zenbaitek nahiago izan zuten, inauguraziora joan baino, bidegorriaren 8,3 kilometroetan barrena gozatzeari.

"Asko egin dugu, baina ez da aski izan gure helburuak lortzeko; jarrai dezagun lanean"

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Euskal Herri osoko 200 bat plaza herritarrez bete ziren zapatuan, Herrirak egindako deiari erantzunez; tartean, Debagoienekoak. Presoen eta haien senitartekoen eskubideak aldarrikatu zituzten, eta "salbuespen neurriek gure

gizartean izugarritzko sufrimendua sortzen" dutela salatu.

Jai giroan egindako aldarrikapen eguna izan zen: kale agerraldiak, kalejirak, triki-poteoak, bertso bazkariak... egin zituzten gure bailaran. Eguerdian izan ziren ekintza gehienak, nahiz eta

iluntzerako eta gauerako ere antolatu zuten zer edo zer. Bergaran, adibidez, herriko plazako idi probetako harrira mugitu zuten hainbat lagunak, herritar ugarien begiradapean.

Arrasaten, korrika egin zituzten lehen aldarrikapenak: kros herrikoia egin zuten, eta 50 bat lagun animatu ziren ibilbideak barne hartzen zituen lau kilometroak atxintxika egitera.

Baina 13:00etan izan zen ekitaldia nagusia eta jendetza batu zen Arrasateko herriko plazan. Giza eskubideak, bakea, irtenbidea. Euskal presoak herrira zihoen pankarta erdian, bertso, musika eta hitzekin osatutako ekitaldia egin zuten.

Arrazoiak

Plazara ateratzeko arrazoiak "giza eskubideen errespetuari inork prezio politikorik jar ez diezaion eskatzea eta, beste behin ere, jendartearen gehiengoaren



Mugitzen бага, mugituko da lelopean, Bergaran egindako ekintza. | G.A.

nahia islatzen duten aldarriak zabaltzea" izan zirela adierazi zuten: sakabanaketaren amaiera, 197/2006 doktrinaren derogazioa eta gaixotasun larriak dituzten 15 preso politikoen askatasuna. Ildo horretatik, kritika egin zieten Espainiako eta Frantziako gobernuari "kontrako norabidean" doazela argudiatuz, eta indarrak

batzeko deia luzatu zuten: "Gai izan behar gara esparru guztietan gobernuen kontrako presioa areagotzeko eta, horretarako, indarrak batu behar ditugu; asko egin dugu, baina ez da aski izan gure helburuak lortzeko". Herri bakoitzean hizki bat eginez, denen artean Plazara hitza osatu zuten.

Goiena RENT
Ibilgailuen alokairua

AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIURUA OÑATIN

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

20€-tik eguneko

WWW.GOIENARENT.COM




INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
943 71 66 52 / 619 44 71 75
goienarent@goienarent.com

Atez atekorako ontziak ez jasotzera deitu dituzte oñatiarrak

Atez atekoaren aurkako Gipuzkoako ordezkari Patxi Amantegi Oñatin izan zen

M. BIKUÑA/L. KORTABARRIA | OÑATI

Atez atekoaren aurkako Gipuzkoako plataformek Udalak datoren eguenean banatuko dituen ontziak ez jasotzera deitu dituzte oñatiarrak. Kultur etxean egin zuten prentsurrekoa joan den eguenean Patxi Amantegi Gipuzkoako plataformen bozeramaleak eta Bergara, Aretxabaleta eta Arrasateko atez atekoaren aurkako plataformetako ordezkariak. Amantegik esan zuenez, orain arte "modu onean" joan direnean "inork" ez die kasurik egin; horregatik erabaki dute orain deialdi hori egitea.

Oñatiko udal gobernuari zuzendutako mezuan, hauxe esan zuen atez atekoaren aurkako koordinadorak: "Eskatzen dizugu inposatu nahi duzun hondakin bilketa sistema herritarrek erabaki dezatela herri galdeketa bidez eta ateratzen den emaitza errespetatuko duzun konpromisoa".

Birplanteatzeko eskaera

Bosgarren edukiontzia aldeko plataformak orain arteko gertakizunak laburtu zituen. Besteak beste, esan zuen "Bilduk adierazi zuela bilketa honen aurkako oposizio handia zegoen herrietan



Bergara, Arrasate eta Aretxabaletako plataformetako ordezkariak. | MIREIA BIKUÑA

bere ezarketa birplanteatuko zuela", eta Oñatin batu ziren 2.416 sinadurek "argi eta garbi adierazten" dutela "herrian dagoen oposizioa atez atekoaren inposaketaren aurka".

Amantegik esan zuenez, "hainbat udaletxetan (Azpeitia, Zumaia, Ormaiztegui...) akordioak lortzen ari dira" bilketa edukiontzien bidez egiteko, eta "badirudi Oñati izan daitekeela gizarteak era handi batean onartzen ez duen sistema inposatuko duten azketako herria".

Horregatik guztiagatik, koordinadoraren iritziz, "atzerazina" da "Udalak, oñatiarren borondatearen aurka inposatu nahi duen sistema birplanteatzea". Eta hauxe gaineratu zuten: "Udalak, herriari hitza emateari uko egiten badi, koordinadorak beretzat gordetzen du udal gobernuaren jarrera demokratiko eskasa agerian uzteko ekimenak antolatze eskubidea. Eta horregatik oñatiarrei dei egiten diegu joan ez daitezen ontziak jasotzera".



GOIATZ ARANA

Eskoriatza Garbiaren aldarria

Birziklatzearen Nazioarteko Eguna izan zen barikuan eta Eskoriatza Garbia plataformak aldarrikapen-ekitaldia egin zuen: herritarren azken hiru egunetako gai organikoak batu, eta bosgarren edukiontzia eta atez atekoaren arteko "ezberdintasunak bistaratu" zituen. Espero du Udalak atez atekoa ezartzeko hartutako erabakian atzera egitea.

Mikel Illarramendi preso ohi oñatiarra hil da Panaman

Panaman hil zen Mikel Illarramendi, zapatuan goizaldeko ordubatean jazotako eraso baten ondorioz. Eskoriatzan bizi zen, baina Panaman zegoen lan kontuengatik. Iturrien arabera, beste bi lankiderek zegoen etxean eraso gertatu zenean; ezezagun batzuk sartu eta labanez eraso egin zieten. Ondorioz, Mikel Illarramendi hil egin zen eta beste lagun bat zauritu. Illarramendi 2003ko uztailaren 30ean atxilotu zuen Frantziako polizia eta 2011ko maiatzaren 19an geratu zen aske. Oñatiarra jaiotzez, Eskoriatzan bizi zen, baina lan kontuek sarri eramaten zuten Panamara.

Plataformaren deia "arduragabea eta larria" dela esan du Udalak

J. IRIONDO/L. KORTABARRIA | OÑATI

Gaikako bilketa sistema berria ezartzeko hurrengo pausoen berri emateko prentsurrea egin zuen Oñatiko Bilduren gobernu taldeak egubakoitzean, eta bezperan Gipuzkoako atez atekoaren aurkako koordinadoreak esandakoei erantzun zien: "Boikoterako deia edo, behintzat, kuboaren banaketari kasu ez egiteko deia erabat jarrera arduragabea eta larria" iruditzen zitzaie esan zuen Mikel Biain alkateak, eta EAJ-ri galdetu zion: "Deialdi honekin bat egiten du, bai edo ez?" "Are larriagoa dena da, agerraldi horretara joan ziren kazetariak EAJko zuzendaritzatik

bidalitako email baten bidez jaso zutela agerraldi horretara joateko deialdia. Zer esaten du Oñatiko EAJk horren aurrean?", gaineratu zuen. Bada, jeltzaleek ez direla euren "probokazioetan" eroriko erantzun diote, prentsa ohar bidez, eta orain arte esandakoak berresten dituztela.

Plataformei dagokionez, gobernu taldeari "erabat harrigarria eta bitxia" iruditu zaio "kanpoko herritar horiek Oñatiko herritarrek bigarren mailako bihurtzen ditugula esatea". Irain egin diete Oñatiko herritarrei eta hori ez dugu onartuko", esan zuen alkateak. Oñatiarrak "eredugarriak" izango dira laster beste herri batzuetako, bere esanetan.



Oñatiko udal gobernu kideak, prentsurrekoa eta gero. | JULEN IRIONDO

PSE-EERI "eskua luzatu" dio Debagoieneko EH Bilduk

L.K. | ARRASATE

"ETAko presoaren aldeko omenaldi eta keinuak iragana izatera pasa" daitezela eta "Debagoieneko terrorismoaren biktimei justizia egiteko garai berri bat ireki" dadila eskatzeko Arrasateko PSE-EEko idazkari nagusi Paco Gartzia egindako adierazpenei erantzunez, "espazio komunak" topatzeko "bidea" elkarrekin egiteko "eskua luzatu" dio Debagoieneko EH Bilduk PSE-EERI.

EH Bildu "guztiz" ados azaldu da PSE-EEekin "gure bailara elkarbizitzarako gune bilakatzeko beharraz eta, nora-

bide horretan, udaletatik bakearen eta adiskidetzaren alde lan egiteko premiaz". Baina gaineratu du, "normalizazio politikoaren eta bakearen norabidean lan" egitekotan, "enpatizatzen" saiatu behar direla.

Hauxe ere gaineratu du: "Onartzen dugu ETAK eragindako oinazea (...). Eta, hain zuzen, pairatu duzuen sufrimendu horregatik, ulertzen dugu errezeloak izan ditzakezuela, adibidez, presoaren gaiari soluzioak topatzeko. Baina kontuan izan zuena ez ezik, beste aldeko sufrimendua ere izan dela; hemen biktima asko egon dira".

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com



EGUZKIGRAF
inprimategia

30 urte
baino gehiago
zure
zerbitzura



Metaleko langile batzuen kontzentrazio bat, Gipuzkoako hitzarmena eskatzen. | LAB SINDIKATUA

Probintziako hitzarmenaren aldeko grebara deituta daude 5.000 langile

Metaleko sektorean lanuztea deitu du LABek 24rako, ELAren babesarekin

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE
Datorren egubakoitzean greba egitera deituta daude Debagoieneko 175 bat enpresako 5.000 eta 6.000 langile artean, denak metaleko sektorekoak. LABek deitu

du greba eta ELAk bat egin du deialdiarekin. Helburua da Gipuzkoako, probintziako lan-hitzarmena sinatu dadin eskatzea.

Metalaren sektoreko -Gipuzkoako handiena, langile kopu-

ruari dagokionez- negoziazioa izoztuta dago apirilaren 9a ezkerro Adegri patronalaren eta sindikatuen artean. LABek salatzen du, uztailaren 7a baino lehenago hitzarmena berri ezean, lan

-erreforma aplikatuko dela eta, beronen eraginez, hitzarmena desagertu egingo dela. Horren eragina azaltzen du LABek: "Estatuko Metalgintza Hitzarmena ezar liezagukete, eta estatu mailakorik ezean, Langileen Estatutua. Honekin batera ezarriko liguketen urteko soldata 8.979 eurokoa izango litzateke 1. mailako ofizial batentzat; 1.826 ordutako lanaldia eta hitzarmenak ematen dizkigun eskubide gehienak galduko genituzke".

Adegiren proposamena da "probintziako hitzarmenari eustea, soldata eta lan-jardun bereberekin eta legea aplikatuta". Adegiren iritziz, Gipuzkoako metaleko enpresek "lehiakortasun arazo larria" dute, "azken hamarkadetan lan-kostuak produktibitatea baino askoz gehiago handitu direlako", eta sindikatuei egotzen die "egoerarekin bat ez datozen proposamenak" egitea.

Elkartasunaren izenean

ELAren jarrera da enpresa bakoitzean lan-hitzarmen sendoak lortzea. Hala ere, probintziako lan-hitzarmena "erreferentziatza" izatea "garrantzitsua" dela dio ELAk.

Horregatik guztiatik, dagoneko enpresako lan-hitzarmena duten langileak -Garaykoak, Elay taldekoak, Arcelor Bergarakoak eta Tesakoak- ere elkartasuna erakustera eta greba egitera deituko dituzte. Blindaje osoarekin, oraingoz, Garayko langileak baka-rrik daude.

Etxebizitzarekiko konfiantza indizeak txarrera egin du

L.K. | ARRASATE

Euskaldunok gero eta konfiantza txikiagoa dute higiezin sektorean, Tasazio Elkartearen datuen arabera. Elkartearen Higiezin-konfiantza Indizeak dienez, 100 puntutik 26,6 merezi du higiezin sektoreak EAEko adituendako, joan den hiruhilekoan baino 2 puntu gutxiago.

Hego Euskal Herriko eta Espainiako adituek duten konfiantza neurtzen du Higiezin-konfiantza Indizeak, eta Euskadikoa da datu txarrena; Nafarroako eta Espainiako erkidegoetako batez bestekoa 31,4koa da. Tasazio Elkartearen esanetan, datua gero eta txarrago izateak "merkatuak duen konfiantza falta" islatzen du, 50 puntuk egonkortasuna adierazten baitute.

Indize hori 700 profesionalen iritzia erabilia egiten da, eta zazpi kategoria ditu: ekonomia, ohiko eta ezohiko etxebizitzaren salmentak, zenbat etxebizitza dauden, lokal komertzialen salmentak, promozioen eta lurzoruen salmentak, etxebizitzaren prezioen eboluzioa eta konfiantza indizea bera.

EAEko zerga-informazioa sarrera arautu nahi du Gipuzkoako aldundiak

L.K. | ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak iruzur fiskalaren aurkako pausoak ematen jarraitzen du eta, horretarako, Arabako eta Bizkaiko foru aldundiekin eta Zerga Koordinazio Organoarekin informazioa konpartitzeko protokolo bat egiteko proposamena edo lan-dokumentua bidali zien erakunde horietako arduradunei, joan den martitzenean. Larraitz Ugarte foru bozeramaleak hone-lari dio: "Estatuko Zerga-Agen-tziarekin egindako hitzarmena erabili dugu oinarri gisa. Gaur egun informazioa konpartitzen dugu, baina modu informalean, eta helburua da mekanismo formal batzuk sortzea eta elkarren datu-baseetako informazioa erabili ahal izatea". Protokoloak norberaren datuak babesteko Espainiako Lege Organikoa beteko du.

Ezkutuko informazioa

Gipuzkoako Foru Aldundiak, hitzarmenaren bidez, baldintzak eta prozedurak ezarri nahi ditu informazioa gainerako foru aldundiekin eta Zerga Koordinazio Organoarekin trukatzeko

eta datu-baseetarako elkarren sarrerak arautzeko. Gipuzkoaren proposamenak elkarren artean trukatu beharreko informazioa, epeak, prozedurak, segurtasuna, jarraipen batzordearen osaketa eta bestelako alderdi batzuk zehazten ditu.

Informazioa konpartitzearen helburua da ezkutuan dagoen informazioa azalera ateratzea, eta jabeak aitortu ez dituen ondusunak -ondorioz, Ogasunari iruzurra eginez- detektatu ahal izatea. Lehenengo fase baten, Euskal Autonomia Erkidegoko informazioa konpartitu ahal izango da, baina Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa da lankidetzara Europar zabaltzea.

Aurretik, beste bi pauso

Iruzur fiskalaren aurka azkenaldian emandako beste pauso batzuk hauek dira: Ogasun departamentuan 10 lanpostu sortu ditu; bestetik, iruzurraren aurkako foru arau aurreproiektua egin du eta jendaurreko informazio tramitean dago. Beste estatu batean izandako ondasunak aitortzera derrigor-tzen du arau horrek.

Makina-erreminta ekoizle handienetako bat sortuko dute Fagor Arrasate eta Onapresek

Bi kooperatibek bat egitea onartu dute, eta Europako makina-erreminta ekoizle handienetako bat sortuko dute, 800 langile eta zazpi lantegirekin


L.K. | ARRASATE

Fagor Arrasate eta Onapres kooperatibek, biak Mondragon Korporazioak, bat egitea onartu dute. Horrela, mundu osoan txapa metalikoa prozesatzeko eta egokitzeko soluzioen katalogorik handiena duen enpresa sortu da, arduradunen esanetan.

Epe formalak bete ondoren, Fagor Arrasatek xurgatu egingo du Onapres, eta deformazio bidezko makina erreminta ekoizlerik handiena bihurtuko da, ia 800 langilerekin, zazpi lantegirekin eta kontsolidatutako 300 milioi euroko fakturazioarekin. Europako makina-erreminta ekoizle handienetako bat izango da, eta estanziozko bigarren handiena.

Lehendik ere, elkarlan handia

Fagor Arrasate liderra da ondorengoak diseinatu, egin eta hornitzen: prentsa eta estanzio sistemak, bobina metalikoak prozesatu eta ebakitzeko lineak eta txapazko pieza konplexuak fabrikatzeko ekipo bereziak. Onapres ere 50 urte baino gehiagoan erreferentziazkoa izan da mota askotako prentsa hidraulikoak disei-



Fagor Arrasateren lantegian zenbait behargin. | GOIENA

natzen eta fabrikatzen: trokelen probak egitekoak, produkzioak, konpontzaileak, *press-hardening*-ak, piezak SMC eta *composite*-n edo forjan fabrikatzekoak.

Bi enpresak elkarrekin kolaboratzen zebiltzan azken urteetan, "begi bistakoa" zelako bai bezero eta bai produktuetan zuten sinergia, batez ere automobil sektorean, bezero hauekin: Volkswagen, Ford, Audi, General Motors, Gestamp, Benteler, Ogihara, PSA, Volvo eta abar.

Helburua da automobil sektoreko bezeroendako "irtenbide integral eta osoak" emateko gai izango den partner globala sortzea, "edozein alorretan ekipoak inplantatu ditzakeena; piezek behar duten edozein materialentzat, bai metal edo *composite*-zkoak izan; edozein teknologiarekin, mekanikoa zein hidraulikoa; produktu-sorta integratua eta berezkoa duena", esan du konpainiako bozeramale batek.

Patxi Baztarrika | Hizkuntza Politikarako sailburu ordea

"Elkarlana areagotu egin beharko dugu baliabideei etekin handiagoak ateratzeko"

- ▶ Baztarrikaren ustez, administrazioak eta herri ekimeneko taldeak batera jardun behar dute
- ▶ "Helduen euskalduntzea eta euskarazko hedabideak dira gure lenentasunak Jaurlearitzan"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

2005etik 2009ra bezalako gogotsu eta grinatsu heldu dio aro berriari Patxi Baztarrikak, Hizkuntza Politikarako sailburu ordea lanetan. Euskararen egoera, Jaurlearitzaren lehentasunak, dirulaguntzak eta Tokikom bezalako elkarguneak ditu berbeta gai elkarrizketa honetan.

Diruari dagokionez oraingoak baino urte oparoagoak bizi izan zenituen aurretik Jaurlearitzan. Zailagoa da egoera berri honetan lan egitea?

Gutxiagorekin gehiago egiten ahaleginduko gara eta lehen egiten ziren gauzak beste era batera egin beharko ditugu orain, eraginkorragoak izan... Elkarlana areagotu egin beharko dugu baliabideei etekin handiagoak ateratzeko. Baina dena ez da dirua. Esaterako, berrikuntza bat: euskarari zehar-lerroa aitortu eta onartuz gobernuaren jardun guztian, Jaurlearitzako sail bakoitzean euskara unitate bat sortuko dugu, sail bakoitza hizkuntza politikaren ispiluaren aurrean jarrita.

Administrazioa euskalduntzeko modu bat?

Jakina. Modu eraginkorrez bermatze aldera herritarrei aitortuak zaizkien hizkuntza eskubideak. Euskara ez da gauza sektoriala, jendarte eta herri aginte osoaren kontua da. Gobernu osoak euskararen alorrean egiten duenaren arabera neurtuko da gobernu horren eraginkortasuna. Lortu nahi dugu sail guztien inplikazio handiagoa hizkuntza politikan.

Zeri emango diozue lehentasuna?

Bi gauza nabarmendu ditugu: batetik, helduen euskalduntzea jendarte elebidun orekatua lortzeko. Horretarako, pertsona elebidunak behar ditugu. Eta, hortaz, euskaltegiek 2013an izango dute 2012an izan zuten finantzazio bera, nahiz eta Jaurlearitzak %10 gutxiago izan gastatzeko. Gainera, ikasleentzako dirulaguntzak berreskuratu ditugu 700.000 euroekin, iaz Gobernuak ezabatu ondoren. Beste lehentasuna? Euskarazko hedabideak. Iazko kopuru berbera izango dute. Aurreko hiruzpalau urteetan, dirulaguntzak etengabe behera joan dira. Aurten, nahiz eta diru sarrerak txikitu, geratu egin dugu beherakada hori. Eusko Jaurlearitzaren aurrekontua batez beste %10 jaitsi bada, Hizkuntza Politikarena %9 jaitsi da.

Marra gorria aipatzen du Urkulluk, baina hizkuntza politika ez du aipatzen...



Patxi Baztarrika Arrasaten, Goienaren egoitzatik gertu. | ENEKO AZKARATE

Hizkuntza politikaren ardura izanda ere, neure egiten ditut lehendakariak markatu dituen marra gorriak: hezkuntzako oinarrizko zerbitzuak, osasunekoak, pobrezia kontrako dirulaguntzak...; enplegua sortzeko edo hari eusteko neurriak... Uste dut eguneroko bizitzan egiten duguna dela. Ikusi, bestela, Debagoieneko kooperatibek ze neurri hartu dituzten langileek euren soldatak jaitsiz enpleguari eusteko.

Zela baloratzen duzu Hekimen edo Tokikom bezalako elkarguneak sortu izana euskarazko hedabide ez publikoek?

Oso garrantzitsuak dira euskarazko hedabide ez publikoak. Hedabideen munduan, nagusia, publikoa, EITB daukagu, baina besteen ekarria ezinbestekoa da. Batetik, euskararen erabilera bultzatzeko, baina baita aniztasunari eusteko edo bultzatzeko. Horrek eskatzen

du hedabideak ahalik eta eraginkorrenak izatea. Sinergiak batzeko ahaleginak egitea, elkarguneak sortzeko ahaleginak egitea. Tokikomen kasuan, toki hedabideak bideragarriago egiteko... Jaurlearitzako aurrekontuan aurreikusita geneukan Tokikomekin hitzarmena egitea bi urterako eta aurrekontua onartu ez denez, luzatutako aurrekontuan ez dagoen arren horretarako diru partidarik, aurkituko ditugu bideak aurreikusit genuen dirulaguntza izan dezan Tokikomek 2013 eta 2014an. Garrantzi handia ematen diegu toki hedabideei eta hauen bideragarritasun eta eraginkortasuna ahalbidetzeko.

Administrazioaren eta Tokikom edo Hekimen bezalako elkarguneen arteko elkarlanean sinesten duzu?

Bai, jakina, ezinbestekoa da. Ez herri aginteek, ezta herri ekimeneko erakunde edo taldeek, inork

ezin du bakarrik jardun. Ez da komeni. Eta, ostera, elkarrekin gauza asko egin ditzakegu. Eta, elkarlana hedabideen artean ere bai. Hedabideen kontsumitzaileak diren horien beharrak asetzeko moduko produktuak egin behar dira. Eta beti kontuan izanda kontsumitzaileok askotarikoak gara. Kolore bakarrek produktuak, askotan, mutu geratzen dira. Euskarazko hedabideak eraginkorak izango badira, sortu beharko dituzte produktu propioak, gaztelaniazkoen mimetismoan erori gabekoak. Eta, kontsumitzaileentzako erakargarriak izango diren produktuak egiteaz gain, aniztasuna bermatzeko gauza izatea ere beharrezkoa da. Hortaz, hedabideen arteko elkarlanak bateragarri izan beharko du aniztasunarekin, elkarrekiko errespetuarekin, ikuspuntu ugartasuna mantentzearekin. Askotarikoan errespetuan oinarritzen ez diren elkarlanek bide motza dute. Ziur nago euskarazko hedabideek aurkituko dutela bide egokia.

Arrasate Press euskarazko hedabide lokalen artean aitzindari eta erreferentzia nagusia izan zena sortu zela 25 urte beteko dira aurten, abenduaren 2an, hain justu ere. Zenbaterainoko garrantzia izan zuen Arrasate Press-en sorrerak euskararen eta euskarazko hedabideen normalizazioan?

Gogoan dut atera zen eguna. Andoainen nengoen Udaleko Euskara Zerbitzuan. Bide berri bat ireki zuen Arrasate Press-ek.

Doako prentsa, hurbileko informazioa herritar guztien eskura jartzea. Informazioa lokalak euskaraz. Bide erakusle izan zen besteentzako. Irakurleak irabazi zituen sorreratik... Esan dezaket hura izan zela gaur egun Goiena denaren hazia. Une hau aprobetxatu nahi dut zorionak emateko Joxe Arantzabali.

Euskara aurrera ala atzera doa?

Zalantzarik gabe, aurrera doa. Etengabe hazten ari den hizkuntza da euskara. Bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko errealitatearengatik. Eta bertan bizi garelako Euskal Herriko biztanleen %80 eta euskal hiztun gehienak. Nahiz eta Nafarroan euskarak izan duen bilakaera oso motela eta Iparraldean atzeraka doan. Euskararena hazkunde baten historia da. Horrek ez du esan nahi, ordea, euskarak etorkizun oparoa bermatuta daukanik. Euskara hazi bada, ahalegin berezia egin dugulako izan da. Gauzak ondo egiten badira, hazi egiten da, Euskal Autonomia Erkidegoan bezala; motel, apal, makal doa, Nafarroan bezala; edota galerak izan ditzake, Iparraldean gertatu den moduan. Honek erakusten du aurrera egitea posible dela gauzak ondo egiten badira. Eta etorkizuna bermatuko dugu gaur egiten dugunaren arabera. Munduan, hizkuntzak biziberritzeko ekimenei dagokionez, esku bateko hatzekin konta daitezke euskararen moduko kasu aurreratuak. Askok aitortzen dutena baino egoera hobea da euskararena, baina beste askok nahiko genukeena baino apalagoa.

Iparraldeko eta Nafarroako ikastolei diruz lagunduko die Jaurlearitzak?

Seaskaren ikastolek 30 urte bete dituzte aurten eta horra ailegatu badira izan da herritarren babesarengatik, egin duten lanarengatik eta baita, neurri batean, elkartasunarengatik. Eta horretan, Jaurlearitzarena izan da nagusia. 2005-2008 legealdian, Seaskako ikastolek milioi euro ugari jaso zituzten Eusko Jaurlearitzarengandik. Eta aurrerantzean ere lagunduko diegu. Oraintsu, 400.000 euro jarri ditugu Iparraldean euskararen sustapenean lanean diharduten eragileen artean eta horien artean dago Seaska.

"Lortu nahi dugu sail guztien inplikazio handiagoa hizkuntza politikan"

"Zalantzarik gabe, euskara aurrera doa; etengabe hazten ari den hizkuntza da"

"Behar dira hedabide erakargarriak eta pluralak"

"Askok aitortzen dutena baino egoera hobea da euskararena"

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



ZABALIK

IÑAKI PEÑA
http://goiena.net/iritzia/



Aulki hutsak

Debagoienetik fan nintzan baina ez guztiz, agindutakoa zor. Gai delikatu bat hartuta dokumental bat egin behar dogu Atxabaltako Arteman kooperatibagaz. Doluaz. Edo zer gertatzen jakun maite dogun nonor hiltzen danean: amesgaizto batean gagozala, ez dakigu noz sartu garen ezta noz atarako be, baina holako batean esnatu eta alboan ama, aita, emaztea, senarra, ahizta, anaia, alaba edo semea edukiko ditugula. Mina, hori holan ez dala gertatuko jabetzean. Eta hasarrea bizitzagaz, senideekin, medikuekin, jaungoikoagaz. Tristura, urdintasuna, burumakurtasuna. Eta azkenean, laster edo berandu, pakea. Ahanztura barik, baina pakea.

Musika osagai garrantzitsua izatea da beste helburu bat, mamia eta irudiekin batera. Hamen, geure hizkuntzaz eta azken bi hamarkadetan egin-dako abestiak izango dira.

Protagonistek jagokienez, hiru txantxikuk eta atxabaltar eta arrasatear banak parte hartuko dabe. Aloñako mendiek, Arantzazuko atxek, Urkuluk, Udalatxek eta Apotzagako bazter eder horrek be bai. Mondragoeko urteetan ezagututako jenteari esker izango da hau guztia hein handi batean, batzuk agertuko dira pantailan eta beste batzuk izpirituan. Botxotar erraldoi bi, easotar harribitxi eta aitabitxi bana, Errenteriako urrezko meategia eta kaliforniar euskalduna. Gurutzetako azken ibilbide honetan topautako horiek be eseriko dira aulki hutsen ondoan. Txagorritxuko lagunak. Eta aita, noski.

Iruñean, beste pertsonaia erraldoi bategaz, ekin deusagu errodatzeari pasa dan astean. Datozan asteotan jo eta ke ibiliko gara batetik bestera.

Urtea amaitu baino lehen prest edukitzea gura dogu, eta hortik aurrera osasun foroetan, unibertsitateetan eta herriz herri egindako emonaldietan aurkezteko asmoa deukogu. Hori-tako batean alkar ikusiko dogu, gura badozue, gonbidatuta zagozie. Osasuna!

"Zer gertatzen jaku maite dogun nonor hiltzen danean?"

USTEAK USTE

MIREIA BIKUÑA | mbikuna@goiena.com

Punta-puntako eskubaloia

Eskubaloi jokalarik eta entrenatzaile ohi eta eskubaloizale naizen aldetik, asko poztu naiz Ford Mugarriren igoerarekin. Hirugarrenean lortu dute, eta lortutakoa balentria itzela da. Punta-puntako eskubaloiaz gozatzeko aukera izango dugu irailtik aurrera: Lehenengo Nazional Mailako eskubaloiaz. Beste erritmo bat, beste teknika bat, beste prestaketa bat... eskatzen duen maila da, baina ez daukat zalantzarik arrasatearrek maila horretan ondo jokatzeko oinarriak dituztela. Zale naizen aldetik, gustura ikusiko ditut partiduak, eta kazetari naizen aldetik, gozamina izango da euren jarraipena egitea. Esandakoa, zorionak Ford Mugarriri!

KALE INKESTA

Baduzu bidegorria erabiltzeko ohiturarik?



CRISTINA
ARRIARAN ARREGI
ARRASATE

"Bai, Aretxabaletara joaten naiz. Nik uste dut bidegorri sare ona dugula, eta lanera bizikletan joateko oso egokia dela".



IÑAKI
CACHO
ARRASATE

"Egunero joaten naiz Aretxabaletara bizikletan. Kanpoaldeko sarea ondo dago, baina herri barrukoak ez hainbeste".



JAVIER
SAN PEDRO
ARRASATE

"Ez dut erabiltzen, hortaz ez dut ezagutzen. Uste dut lanera ez nintzatekeela bizikletan joango".



JUAN MARI
EGAÑA
ARRASATE

"Ez dut ohitura handirik bidegorrian ibiltzeko. Oñatira lanera bizikletan joateko elektrikoa erosi beharko nuke".

HANDIK ETA HEMENDIK

Erantzuna

Joana Albret
eibar.org/blogak/joana-albret/

Euskara dakidanetik zalantza hau eduki dut, nola esan NAZARREKOA edo NAZARKOA.

Gaur *Berria* egunkarian iritzi atalean horren gainean ikusi ditudan lerroek animatu naute EIBARKO leku honetara betidanik eduki dudana zalantza ekartzera:

Nola esan Nazarrekoa naiz ala Nazarkoa naiz.

Nik uste dut biak daudela ondo, Nazarrekoa naiz edo Nazarkoa naiz. Ez dakit zergatik nik betidanik, euskaraz hitz egiten dudanez beti esan dut NAZARREKOA naiz. Baina konturatu naiz beste herri batzuekin ez dudala berdina egiten, eta horrela idazten eta hitz egiten dudala: Eibarko eta ez Eibarreko, Parisko eta ez Pariseko, Madrilego eta ez Madrileko, Leringo eta ez Leringo, Gastiangor eta ez Gastianeko, Antzingo eta ez Antzineko, Bearingo eta ez Bearineko, Andoaingo eta ez Andoaineko.

Dena den, nire kasuan ez zait soilik Nazar hitzarekin gertatzen, badaude beste herri batzuk, uste dut *s* eta *r* bukatzen diren herriekin joera

daukadala *-eko* jartzeko, adibidez: Mirafuentes (Mirafuenteseko), Aras (Araseko), Mues (Mueseke), Armañantzas (Armañantzaseko), Kodes (Kodeseko), Arronitz (Arronitzeko), Agilar (Agilarreko), Lakar (Lakarreko), Munitibar (Munitibarreko), Berriz (Berrizeko)...
Ea baten batek laguntzen didan!

Langabeak espektakulu bihurtuta. Fribolitatea, ala nire umore falta?

Marijo Deogracias
http://blogak.goiena.net/marijo/

Nahikoa gogorra ez urtebete langabezia egotea, lana topatzeko moduak eta estrategiak asmatzen eta berritzen ibili beharra eta, orain, telebista saio batean espektakuluaren parte izateko aukera datorkigu.

Berria-n irakurri dudanez, ekoiztetxeok diote ez dutela

nahi lehiakideen egoeraz aprobeztatu, "langabeek egoera zailei umorearekin aurre egiteko gaitasuna dutela erakutsi nahi" dutela.

Txirigotan aritzen diren artean, langabezia daudenekin taldea osatzen badute lehiakarako, akabo!

Ez da beharko beste lehiakiderik!
Niri neuri fribolitatea iruditzen zait.

Diru premiak eraman zaitzake "soluzio alternatiboak" bilatzera, baita telebista baten espektakulu baten parte hartzerare ere.

Batez ere, norberaren curriculuma erakusteko aukera eskainita.

Izan ere, diotenez, *'Full Monty. El regreso' introducirá una ficha personal, a modo de curriculum, que mostrará sus bondades como profesionales. 'Bondades de como profesionales'?!'*

Enplegurik gabe dagoenari bere duintasunak laguntzen dio aurrera egiten eta tragatu beharra duenari, ez dut uste era publikoan egitea gustatuko litzaiokeenik.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Ubane Madera

Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Goiatz Arana
Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifiano, Zierza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Argutzone Gaintzarain,
Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale



Eusko Jaurilaritzak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

berriak 10 urte

Debagoienan Bizardunak

zatoz gurekin
ospatzera

Maiatzak 25
Elgetan

22:30ean • Espaloia Kafe Antzokian

Zertan ari da
BERRIA?
aurkezpena

BERRIAK
10 urte
bideoa

Jarraian
kultur
ekitaldia



Sarrerak 5 € berrialagun harpidedun
eta berrialagunentzat.
Gainerakoentzat 10 €.

Aurrez:

- Interneten:
www.berria.info/berriataldea
- Elgetan:
Espaloia Kafe Antzokian
- Bergaran:
Jardun elkartean
- Arrasaten:
AED elkartean
- Aretxabaletan:
Loramendi elkartean

Sarrerak egunean bertan: **Espaloia Kafe Antzokian**

berria info
hamarnaka
kontatzekoak gara

Antolatzailea:

berria info

Laguntzaileak:

hitza info



Babesleak:



LABORAL
kutxa




HERRIAK



Ospitaleko eta anbulatorioko argibide-taula eta gainontzeko abisu gehienak bi hizkuntzatan daude. | IMANOL GALLEGU



Igogailuko hau gaztelerez dago. | I.G.



Kartel gehienak elebidunak dira. | I.G.

ARRASATE

Osasun zerbitzu elebidun bat izateko bidea egiten

- ▶ Oso arraroa da ospitaleko zerbitzuren bat erdara hutsean egotea
- ▶ Ospitaleak euskara kontuak jorrazteko teknikari bat ere badu

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

Debagoienako ospitalera sartzean zein hizkuntza erabiltzen dugu? Galdera uste baino sakonagoa da. Urteetan Osakidetza bere kartel eta argibide-taula gehienetan bi hizkuntzak erabiltzen duen arren, zoritxarrez kalean gertatzen den moduan, elebitasun hori ez da egunerokotasunean betetzen. Zenbait langileek ere argi dute euren euskara maila, ez dela oso altua.

Horregatik eta administrazio erabat elebidun bat izateko, Osakidetza bigarren euskalduntze plan bat izango du. Hala ere langileek argi dute "huts egite handia erabilera faltan egiten dugu".

Azken urteetan ahalegin handia Osakidetzatik argi dute, bide luzea egin arren, luzeago gelditzen zaie. "Gehienok euskaraz hitz egiteko gai gara" dio ospitaleko langile batek. Harekin luze hitz egin ostean, Osakidetza egin dituen aurrera pausoak hobeto ulertzen dira. Kartelak, argibide-taulak... era guztiko kurtsoak jaso dituzte, baina hutsuneak ere aipatzen

ditu. "Osakidetza oso handia, da eta askotan paper kontuak batera eskatzen direnez...". Egia da ospitaleratzeko agiria oraindik gaztelania hutsean dagoela. Papeira erakutsi bezain laster langile berak bizkor argitzen digu inprimaki berriak eskatuta dituela eta laster elebidunak izango direla.

Arlo guztietan baina ez da horrela gertatzen, mediku eta erizainek beste iritzi bat dute. "Jendearen mediku historiak euskaraz daude" dio erizain batek. Puntu honek polemika sortzen duela dirudi. "Mediku guztiek onartu ez dakite euskara" dio batek, "betiko kontua" erantzuten dio besteak. Mediku baten esaldiak bukatzen du eztabaida, "argi geratzen da, langile guztiek euskara jakin arte, ez da elebitasunik egongo".

Etorkizun itxaropentsua

Hezkuntzak eragin handia izan du. Erabiltzaileen euskara maila igo den moduan, langileena ere igo da. "Duela urte gutxi arte, elebidun gehienak ez ziren alfabetatuak. Orain hezkuntza eus-

karaz egin dutenak dira gehienago eta euskararen presentzia gero eta agerikoagoa da", dio mediku batek. Erabiltzaile batek ere antzerako iritzia dauka, "nire errua onartzen dut, baina mediku bati euskaraz egitea arraroa egiten zitzaidanez gaztelaniara jotzen nuen". Zorionez, konplexu

horiek gero eta urriagoak dira "orain, nik euskaraz zerbait esan aurretik medikuak euskaraz agurtzen nauenez euskaraz egitera ohitu naiz" azpimarratzen du erabiltzaile berak.

Itxuraz, Osakidetza ez ezik gizarteak ere elebitasun osoa lortzeko pausu ugari behar ditu.

Bigarren euskalduntze plana

Jon Darpon Osasun sailburuak aipatu moduan, Eusko Jaurlaritzak Osakidetza bigarren euskalduntze plan bat abiaraziko du laster.

Bigarren plan honek bi helburu nagusi izango ditu. Batetik osakidetza langileek euskara ikasten eta sakontzen jarraitzea, eta bestetik eguneroko arloetan euskararen erabilera ere sustatzea. Darpon sailburuak adierazi zuen moduan, "euskaldunei zerbitzu hobea emateko lanean gabilta".

Osakidetza elebiduna dela uste duzu?




AMAIA ITURBE
ERABILTZAILEA

"Baietz esango nuke. Euskaraz mintzatu naizenean beti erantzun didate euskaraz. Egia da kasu puntual batzuetan ez dela horrela izan baina bestela bai".



MERTXE VEGAS
X-IZPI TEKNIKARIA

"Langileen %90ak daki euskara eta bi hizkuntzatan egiten dugu lan. Hasierako agurrak esaten digu erabiltzaile horrekin zein hizkuntzatan egin behar dugun".



ARANTZAZU UGARTE
MEDIKUA

"Adin bateko jendeak euskaraz hitz egiteko aukera ematea asko eskertzen du. Egia da mediku historiak gaztelaniaz daudela, baina gainontzeko guztia elebiduna da".



OMAR REVUELTA
ERABILTZAILEA

"Nik ez dut kontrakoa igarri. Mediku, erizain eta harrerakoek beti erabili izan dituzte bi hizkuntzak. Argibideak azaltzen diren kartela ere bi hizkuntzatan gaude".



Euriak txupinazoa busti arren, plaza jendez bete zen. | IMANOL SORIANO



'Guti' eta 'Felixin-entzat' jai bereziak izan dira. | I.S.



Gazteek ederki pasa zuten barraketan. | I.S.

Barrutik baino, kanpotik busti ziren bergararrak Pentekosteetan

- ▶ Euria zela eta, zenbait ekitaldi Zabalotegin eta Udal pilotalekuan egin behar izan zituzten
- ▶ Udal bandak, erraldoiek, txosna guneak... hitzordu klasikoek jende asko erakarri zuten

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Pentekoste jaiek gonbidatu ez dituzten bi bisitari gogaikarri izan dituzte aste bukaeran: euria eta hotza. Egubakoitz arratsaldean, ohi moduan, San Martin plaza bete egin zen txupinazorako, baina aurreko urteetako koloretako alkandorak ikusi beharrean, aterki itsaso handi bat besterik ez zen ikusten. Euriak Bitorianaxoren jaitziera errespetatu zuen arren, ondorengo minutuetan gogotik bota zuen, eta bandak une polit hori girotu arren, San

Martin plaza hutsik geratu zen berehala.

'Guti' eta 'Felixin'

Eguraldiarekin batera aurtengo jaietako bi protagonista nagusiak Luis Mari Gutierrez *Guti* eta Felix Iñiguez de Heredia *Felixin* izan dira. Aurtengo txupinazo bikotzaren ostean lehen omenaldia jaso zuen bikoteak. Mikel Lasquarin aurkezleak esan moduan, "33 urte eta gero erretiratu ostean, merezitako omenaldia da hau". "33 urte" bizkor esaten den esaldi

horietako bat da baina, Bergarak omenaldi hauen bitartez argi utzi dien moduan, azken urte hauetako festetako arima izan dira.

Hauek izan dira "aktiboan" gozatu dituzten azken jaiak, eta erraldoien konpartsak ere egin die omenalditxoak. Biek, oso alai, eskerrak eman ostean, omenaldia bukatu eta gero, bertan zeuden umeen gozamenerako, inoiz baino bonba japoniar gehiago bota zituzten; "Nik bost bonba erosi ditut", zioen *Gutik*. Argi dago, herriak egindako omenaldiak

eskertu arren, jaietan egindako lanarekin ere asko disfrutatu dutela.

Zeruari begira

Herritarrak, zinegotziak... ekitaldietara baino, zerura begira egon dira bergarar gehienak.

Euriak bustiko ez balitu bezala, txosna gunean, gauero, gazte ugari batu dira. Egubakoitzean Gozategiren kontzertuarekin gogotik disfrutatu zuten eta Guaka eta Iheskiderekin antzera gertatu zen.

Hirugarren egunean, eguzkia agertu zen atzo azkenean eta, horri eskerrak, beste animu bat zuten bergararrek, eta beste itxura bat kaleek. Kostata izan bada ere, bide onetik jarrita, ea gaurko eta biharko egunez jaiak behar den moduan ospatzen dituzten. Gogorik ez zaie falta.

Argazki gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.





Aurten jaiotako umeek herriko festetan parte hartzeko gonbita eta ongi-etorria jaso zuten. | IMANOL SORIANO



ITZIAR MURUAMENDIARAZ

"Eguraldiak festak hondatu ditu. Ez dut plan zehatz bat egin, baina eguraldi petral honek... Hala ere, kalean ibiliko naiz. Jaioberriei egindako ongi-etorrian egon naiz eta hemendik aurrera ikusiko dugu! Zerbait egingo dugu".



MIKEL ILARDUIA

"Festak lanean hasi ditut: mahaia muntatu, hesiak jarri... eta aurtengo festak horrela pasako ditut. Pentsa, herri bazkarian izango naiz, baina lanean. Ez dut, ordea, umorea galtzen; ziur tragoxka bat egiteko denbora hartuko dudala".



Konpartsak umeentzako Elhuyar anaien erraldoi berriak aurkeztu zituen. | I.S.



Nagusiek bakailoa egiten zuten bitartean, etxeko txikiak taloak egin zituzten. | I.S.



Umeek gogotik egin zute barre txosna gunean. | JOSETXO ARANTZABAL



Duhaldek txosnagunea bete zuen. | J.A.



SELENE PEREZ

"Festak ongi doaz. Egia da eguraldiak ez duela gehiegi lagundu, baina ez da lehen aldia izan. Dena den, eguraldiak ez ditu nire planak aldatuko. Gauetan irteten jarraituko dut barraka eta tabernatan egongo naiz".

EGITARAUA

ASTELEHENA 20

11:30 Tabernen arteko HERRI KIROLen txapelketa, zezen-plazan. Xapre eta Zarra trikitilariak eta Incansables txarangak animatuta.

12:30 DANTZALDIA Nuevo Talisman orkestrarekin, Espoioan.

14:30 Herri BAZKARIA, Labegarietako kiroldagian. DJ Anjeren animazioarekin. Ondoren, kafe kantu saioa. Adin txikiak bazkarian ez zaie alkoholun edaririk banatuko. Koadrilan jarri nahi dutenek

taldean agertu beharko dute bazkaltzera, mahaien antolaketa ez oztopatzeko.

18:00 Dj Thobeen eta Lore Power-ekin gaztetxoentzako jai. Eguraldi ona egiten badu Munibe plazan eta txarra egiten badu Zabalotegi frontoian.

18:30 Errekortadore ESKOLA IBILTARIA zezentxoekin, zezen-plazan. Sarrera: 2 €.

19:00 Bergara Hiria PILOTA partiduetako finalak, Udal Pilotalekuan.

23:00 DANTZALDIA Basajaun taldearekin San Martin plazan.

23:00 Camp dantzaldia Nuevo Talisman taldearekin, Espoioan.

TXOSNETAKO EGITARAUA

22:30 Kontzertua Bideberri: Laket, Emon eta DJ Bull.

MARTITZENA 21

09:00 BIGANTXAK, zezen-plazan. Sarrera: 2 €.

11:00-14:00 Hurrendako JOLAS PARKEA. Eguraldi ona egiten badu Ipintza II-ko

jolastokian eta txarra egiten badu Zabalotegi frontoi eta aretoan.

12:00 HERRI KIROL ERAKUSTALDIA San Martin plazan. Ernesto Ezpeleta *Bihurri* eta Hodei Ezpeleta aizkoran, Karlo Ruiz de Aretxabaleta eta Ana Berasategi iparraldeko jokoeekin eta Joseba Ostolaza harri jasotzen.

12:30-14:00 VOCES NAVARRAS Eguraldi ona egiten badu Mz. de Irala

kalean eta txarra egiten badu Simon Arrieta plazan.

17:00-20:00 Hurrendako JOLAS PARKEA. Eguraldi ona egiten badu Ipintza II-ko jolastokian eta txarra egiten badu Zabalotegi frontoi eta aretoan.

17:00 Aspe pilota enpresak antolatutako 1. mailako PILOTA jaialdi profesionala.

18:00 BINGO erraldoia eta MUS TXAPELKETA Eguraldi ona egiten badu Munibe plazan eta txarra egiten badu udaletxeko arkupeetan.

18:30 ERREKORTADORE ESKOLA zezentxoekin, zezen-plazan, Incansables txarangak alaituta. Sarrera: 2 €.

20:30-21:00 DJ FESTA Oihan Vegarekin, San Martin plazan.

22:30-00:00 DJ FESTA Oihan Vegarekin, San Martin plazan.

00:00 BITORIANATXOren igoera, Incansables txarangarekin, San Martin plazan.



IMANOL SORIANO

HIRU TXIRLO TXAPELKETA Urteetan ia desagertua zegoela iruditu arren, tradizioari gogor eutsi dio. Zapatukoa Gipuzkoako txapelketako jardunaldia zen eta Bergarako nahiz inguruko herrietako parte-hartzaileek ederki pasa zuten San Joxepe egoitzako bolatokian.



JOSETXO ARANTZABAL

BANDAREN KONZERTUA Klasikoetan klasikoa, baina Bergaran sekulako arrakasta duen ekitaldi horietako bat. Aurtengo emanaldia frontoian izan da, eta musikaz gozatu nahi izan duen orok aukera ezin hobea eduki du bertan.



IMANOL SORIANO

TXOSNAK TINKO Eguraldiari aurre eginez, txosnek gaueko giro ia guztia batu dute. Egubakoitzeko Gozategiren kontzertuan karpa lepo bete zen, eta zapatuan ere jende dezente ibili zen. Atzo, Anje Duhalderen txanda izan zen eta horrek ere jende ugari batu zuen.



J.A.




BIKOTEKA BAI, BAINA SOLTE Aurtengoa XXXVI. Dantza Askatuko Txapelketa izan da eta, azken urteetan ez bezala, herriko bikote batek parte hartu du. Ordu eta erdiz, bikoteka, arin-arina eta fandangoa dantzatzen jardun ostean, sari nagusia Azpeitira joan da.

SIMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak



BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com
LEZO
103 industria poligonoa
Tel: 943 52 05 00 Faxe: 943 515757
www.servimasa.com

**Birziklatzeko erraztasunak ematen dizkizugu.
Zatoz eta informa zaitez!**





Adin guztietako jendea ibili zen artisau azokako postuak ikusi eta produktuak erosten. | IURE EIZAGIRRE

**MERTXE MARTIJA**
ANTZUOLA

"Buelta bat eman eta zer dagoen ikustera etorri naiz. Egon naiz ganadu ferian, nahiko animalia zeuden baina eguraldi txarra nola dagoen, ez zebilen jende asko".

**DANI SANCHEZ**
ANTZUOLA

"Eguna oraingoz oso ondo doa. Gaur lagun arteko bazkaria egin behar dugu eta egunpasa egingo dugu hemen, Antzuolan. Ume eta guzti etorri gara".

**NAGORE DOSANTOS**
ANTZUOLA

"Taloak egiten egon gara eta goiza ondo joan da. Hasieran kosta izan da baina jende dezente etorri da. Urtero egiten dugu Lizarragako auzokoek senideentzako dirua lortzeko horrelako ekintza bat".

ANTZUOLA

San Isidro azokak eskolako aterpea izan du erdigune

- ▶ Jende ugari bildu zen goizean trikitilariak alaitutako artisau azokan
- ▶ Euria egin arren, animaliak herriko plazan egon ziren ikusgai



Plazan aurreko urteetako giroa izatea oztopatu zuen euria. | I.E.

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

San Isidro eguna ospatu zuten zapatu goizean antzuolarrek. Eguraldiak behartuta, aurten eskolako aterpean egin den artisau azokan bildu zen jende gehien.

Ganadu feria herriko plazan izan zen eta, ardiak, behiak, astoak eta pottokak euripean egon ziren. Herriarren begiradak eta gurasoekin joandako haurren laztanak jaso zituzten.

Artisau azoka aterpean

Kanpoan zeuden bost kukumaroek egin zieten artisau azoka-

rako harrera herritarrei. Barruan, jatekoak, belarritakoak, kandelak, txotxongiloak eta bestelako artisau produktuak erosteko aukera izan zuten. Taloak edo bazkalondorako postre gozoa erosten zeudenek ilararen bat ere jasan behar izan zuten. Beste batzuek, bitartean, azokan zeudela aprobetxatu eta ekoizleekin iritziak eta zalantzak elkarbanatu zituzten.

Azokaren erdian egon zen trikitilari taldeak eta egindako lanaren emaitza aztertzen eta erakusten aritu zen txistu-egileak alaitu zuten azoka.

OÑATI

Jendearen parte-hartzea handia izan da Errekaldeko jaietan

I.E. | OÑATI

Errekalde auzoko festen antolatzailleak gustura daude jaiak izandako harrerarekin. Euria egin arren, jende asko ibili da.



Giro ona egon zen ostiral gaueko kontzertuetan. | IMANOL SORIANO



Auzo-bazkariaren ostean soinu jotzaileak alaitu zuten giroa. | JOSETXO ARANTZABAL

Zapatuko goitibehera jaitsieran 30 partaide inguru izan ziren; herritik kanpokoak gehiago, oñatiarrak baino.

Igandeko auzo-bazkariak eta ondorengo mus-txapelketak ere arrakasta izan zuten. Lehenengoan 50 pertsona inguru bildu ziren eta bigarrenengan, berriz, 17 bikotek eman zuten izena.

Amaitzeko, bertsolariak

Festen azken egunean oñatiarren eta arrasatearren arteko bertso lehia egin zuten. Iñaki Olalde eta Urko Egaña bertsolariak izan ziren Oñatiko ordezkariak, eta Jokin Labaien eta Ane Zuazubizkar, berriz, Arrasatekoak.

Jaietako azken orduetan eguzkia izan zuten lagun eta jaiak azken unera arte bizitzeko gogoz, gauerdian bukatu zituzten festak etxalero jaurtiketarekin.



Mondrako jokalariai Mojategiko futbol zelaira irteten, etxean jokaturako azken partiduan. 2-1 irabazi zuten zerrajeroek Lagun Onak-en aurka. | JOSETXO ARANTZABAL

Mendeurrena ospatzeko ekintzak gainean ditugu

Lehen ekintza bihar izango da: Iñaki de Mujika dator Kulturatera, 19:00etan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Mondraren urteurrenako ekintzak gainean ditugu dagoeneko. Iñaki de Mujikarekin jarriko dute martxan egitarau berezia, bihar; Herri Irratiko esataria Kulturaten egongo da, hainbat jokalaria ohirekin irratsaioa egiten; Inazio Kortabarria, Jon Sagasta, Jesus Aranbarri, Aitor Lopez Rekarte eta Mikel Gonzalez izango ditu ondoan esatari ospetsuak, guztiak Reala gertutik bizi dutenak. 19:00etan hasiko da saioa.

Danborradan, konpartsa berria Hurrengo ekintza berezia ekainaren 8rako antolatu dute, Ardo eta Gazta Egunarekin batera. Sanjuanetan ere protagonismo

berezia hartuko du Mondrak. Izan ere, San Juan bezperako danborradan konpartsa propioa osatuko dute: goiko mailan jokatzen duten 32 neska-mutilek egingo dituzte danbor-jotzaile lanak. 80 urtetik gorako Mondrako jokalaria ohiekin afaria egingo dute lehenik, eta omenaldia jasoko dute gero, udaletxeko balkoira irteterakoan.

Taldearen ereserki berria izango da bigarren berrikuntza: Jose Ramon Vitoriak berri du eta helduen nahiz txikien danborradan, bietan, joko dute. Eta nagusien danborradaren biharramunean ere, ekainaren 24an, izango da himno berri hori entzuteko aukera, Arrasateko

Bandaren eskutik, Monterronen. Jaiak pasata, ekainaren 28an, Gipuzkoako Futbol Federazioaren batzarra hartuko du Amaia antzokiak.

Realaren aurka uztailaren 5ean

Uztail hasieran erakusketa irekiko dute Kulturaten. Argazki zaharrak, ikus-entzunezkoak eta irabazitako garaikurrak ikusi ahalko dira, besteak beste. Hala ere, ekitaldi potoloenetako bat Realaren bisita izango da. Hilabete askotako hartu-emanen ostean, uztailaren 5ean etorriko dira txuri-urdirak Mojategira.

Hala, gauzak ondo bidean, Europako Txapeldunen Ligan jokatu duen Reala izango dugu

uztailaren 5ean –egubakoitza izango da– Arrasaten, eta hain zuzen, txuri-urdirandako denboraldi hasiera izango da: "Realekoek uztailaren 1ean hasiko dituzte entrenamenduak, eta handik egun gutxitara izango ditugu Mojategin. Mondrako jokalariai oporretan izango dira ordurako, baina asmoa da herriko jokalariai hainbat entrenamendu saio egitea partidu txukuna ikusi ahal izateko", kontatu zigun Mondrako Zuzendaritza taldeko Fernando Laspiurrek, albistea konfirmatu zenean.

Bi talde horien artean dagoen aldeaz galdetuta, Laspiurrek garbi dauka Realaren helburua ez dela sekulako errepasoa ematea, eta bai jai batean parte-hartzea: "Asmoa da arrasatearrak Mojategira gerturatzea". Ziur, baloia-aren atzetik korrika egitea tokatu zaien arren, Mondrako jokalariai egun ahaztezina izango dela. Uztailaren 17an batzar nagusia egingo dute 19:00etan, Kulturaten. Urte berezia amaitu aurretik beste hainbat ekintza ere antolatu dituzte; izango duzue horien berri.

Auzo-konpostagailuak jartzeko obrak hasi dituzte

J.B. | ARRASATE

Udala hasi da auzo-konposta egiteko beharrezkoak diren konpostagailuak jartzeko obrak egiten. Aurrez bilera informatiboak egin ziren auzoetan eta, Udalaren arabera, 140 bat familia gertu agertu dira modu horretan konposta egiteko. Obrak hasita daude Nafarroa etorbidean –ospitale ondoan– eta Laubide plazan; laster hasiko dira Uribe auzoan. Laubide plazan zortzi konpostagailua jartzea den hasierako asmoa –310 litrokoa bakoitza–; Nafarroa etorbidean 16 konpostagailu –310 litrokoa– eta Uriben, azkenik, zortzi –700

litrokoa–. Obra horiek Excavaciones Arrasate enpresari esleitu dizkio Udalak.

Helburua da herritarrei aukera ematea ortua edo lorategia ez dutenei euren etxeetan sortzen duten materia organikoarekin konposta egiteko.

Ikastarora joatea, beharrezkoa

Auzo-konposta egin gura duenak oraindik badu aukera, baina beharrezkoa da Udalak proposatzen duen ikastaro bat egitea. Konposta egiteko bete beharreko baldintzak azaltzen dira ikastaro horietan, besteak beste.

Menopausiaren gaineko hitzaldia hilaren 29an

J.B. | ARRASATE

Arrasateko Udal Sexologia zerbitzuak hitzaldi interesgarria antolatu du hilaren 29rako. Amaia Vazquez psikologo, pedagogoa eta sexologoak menopausia eta andropausia izango ditu hizpide Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan emango duen hitzaldian: *Menopausia eta andropausia. Gure bizitza aukera berriez hornitzeko erronkak*.

Menopausiak emakumeen bizitzan suposatzen dituen aldaketak eta andropausiak, berriz, gizonezkoetan nola eragiten duen izango du berbagai Vaz-

quezek, besteak beste. Hernanikoa jaiotzez, gurera datorren sexologoa eta psikologoa urte asko daramatza ikastetxeetan ikasle, irakasle eta gurasoekin lana egiten.

Herritarren zerbitzura

Sexologia zerbitzuak gogora ekarri duenez, hitzaldiaren gaineko edo beste edozein informazio jasotzeko egokiena da 943 25 20 66 telefono zenbakira deitzea. Ordutegia, honakoa: astelehenetan 10:00etatik 13:00etara eta martitzen zein eguenetan 16:00etatik 19:00etara.

Abian da Al-Andalus elkartearen 24. Kultura Astea

J.B. | ARRASATE

Arrasaten bizi diren andaluziarrek urtero antolatzen duten Kultura Asteak aurten ere ez du hutsik egin. Atzean utzi berri dugun aste bukaeran hasi ziren ekintzekin eta hilaren 26ra arte ez da aspertzeko astirik izango. Gaur bertan Al-Andaluseko abesbatzaren saioa (19:30) eta argazki erakusketa baten irekiera izango dute (20:00). Bihar Andaluziako gozoak eta ardoak dastatuko dituzte, 19:00etan. Etzi pintxo-pote berezia egingo dute, Andaluziako jakiekin.

Ekintzez jositako asteburua

Egubakoitzean umeendako jokoak (18:30) egongo dira eta gero Blas Infanteren gaineko pelikula ikusteko aukera egongo da (20:00). Zapatukoa izango da egun handia: sevillanak eta parrillada (12:30), Al-Andaluseko koroaren saioa (13:30), gala-afaria (21:30) eta, eguna borobiltzeko, Roc-tulador umoristaren bakarrizketa eta dantzarako tartea. Domekan, amaitzeko, Alegria de la Sierra koroaren emenaldia egongo da, 13:30ean.

Emarock Kulturateko klaustroan, hilaren 31ra bitartean

Emakume musikariak euskal rock esparruan duen presentzia islatzea helburu duen Emarock erakusketa joan den egubakoitzean inauguratu zuten. Euskal Herriko askotariko herri eta jaialdietako kontzertuetako zuzeneko argazkiez gain, elkarrizketak, prentsan argitaratutako artikulak eta diskoen azalak daude ikusgai Kulturateko klaustroan. Hilaren 31ra arte egongo da zabalik, martitzetik domekara. Ordutegia, 17:30etik 20:30era.

Ardoaren Astea ospatuko dute Kajoin, eguenera arte

Kajoi tabernaren ekimenez, Ardoaren Astea izango da oraingoa. Denetariko ardoak dastatzeko aukera egongo da: gaur Palacios Remondo upategiko ardoa dastatu ahalko da, bihar Dominio Berzal upategiaren txanda izango da etzi, berriz, Cillar de Silos-eko ardoa dastatu ahalko da Kajoi tabernara gerturatzen denak. Ardoaren Astearekin amaitzeko eguenean, hilak 23, Artajo upategiko ardoarekin dastatze berezia egingo dute.

Aurten lehenago erreko dituzte dragoi-txuletak

Udalak talde ezberdinekin bilera irekiak egin ditu eta hasi dira San Juanetako egitaraua zehazten

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Hilabete pasatxo geratzen da San Juan jaiei hasiera emateko eta dagoeneko herritar asko hasi dira festen nondik norakoak zehazten.

Herritarrekin bilerak

Herriko festak antolatu guran Arrasateko Udalak parte hartze prozesu bidez herriko eragile ezberdinekin bilera irekiak egin ditu. "Lau bider elkartu gara herri-

ko kultura taldeekin-eta, azkena iragan eguenean. Ongi joan dira, bakoitzak bere arloaz egin du berba, festetatik zer aldatuko lukeen eta zer hobetu adierazi du.". Hala azaldu du Kepa Urteag-

ga Kultura zinegotziak. "Ez dugu dena zehaztu, baina ohiko kontuez gainera, berritasunen bat edo beste egongo da. Eta urtero afaltzeko elkargune bilakatu den Dragoi jana ere egunez aldatu da".

Dragoi txuletak, lehenago

Urteagak aurreratu bezala, Dragoi jana dataz aldatu dute aurten eta ekainaren 24an barik, 22an izango da. AEDk antolatzen du eta Itxaro Artolak erabakiaren zergatia adierazi digu: "Arrazoi nagusia aurten AEDk 30 urte betetzen dituela da eta zerbait berezia egin gura genuen. Zapatuan elkartuko gara Herriko Plazan dragoi-txulete-eta disfrutatzeko".

Artolak gaineratu duenez, "euskaltzaleen topagune" bilakatu gura dute ekimena, eta jatekoaz gainera, bestelako ekintzak ere prestatzen ari dira: "Gutziz zehaztu barik dugu ekainak 22ko egitaraua, baina ikuskizunen bat egongo da, bertso-saio berezi bat..."

Danborrak astintzen

Eta noski, San Juanetan ez dute hutsik egingo danbor hotsek. Haurren danborradarako entseguak hasi dituzte dagoeneko eta SUDCe-ko Juan Luis Arkauzek aipatu duenez, 250 neska-mutil irtengo dira aurten ere. "Hasi dituzte entseguak, zapatutan dira, 11:00etan San Viatorren". Helduen kasuan, hilaren 27an egingo dute aurrenekoa, eta astelehen eta eguaztenetan bilduko dira, 20:30ean, ordubetez, toki berean.

The Capaces kataluniarrak gaztetxeko oholtza gainean

Z.V.D.M. | ARRASATE

Eguen honetan Bartzelonako The Capaces taldeak bisitatuko du Arrasateko Gaztetxea Kooltur Ostegunak ekimenaren baitan.

"Europako punk-hardcore-rock eszenako talde beterranoa da eta talde askok nahiko lukete Martillo moduko frontwoman bortitza izatea". Hala adierazi du Iker Barandiaran Koolturreko kideak.

Europatik biran

The Capaces taldeak 1998ean kaleratu zuen aurreneko diskoa eta lau dira gaur egunera bitartean argitaratutakoak: *Born to punk* (2003), *Amplified* (2005), *The Restless Breed* (2007) eta *Whatever it is, I'm against it!* (2010).

Europar zein AEBn biran ibiliak dira The Capaceseko musikariak. "Europatik barrena egiten ari diren azken bira honetan, Arrasaten geldiunea egingo dute Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan".

Beti bezala, kontzertua eguenean izango da, 22:00etan hasita, Arrasateko Gaztetxean.



Herriko plazan iaz Dragoi jana egin zuteneko une bat | GOIENA

'Un asunto real' filma eskainiko dute bihar Amaia antzokian

Martitzeneko zinearen baitan, *Un asunto real* film historiko-dramatikoa emango dute Amaia antzokian bihar, 20:30ean hasita. Nikolaj Arcel zuzendariaren lanak, herriaren askatasunagatik dena arriskatzuten duten pertsonaia idealista batzuen istorioa kontatzen du. Baina batez ere nazio bat guztiz eraldatu zuen maitasun-harreman zirraragarri eta debekatua pantailaratzen du Arcelek film honetan.

Herriko margolarien lanak ezagutzeko aukera Arte azokan

Arte azoka egingo dute datorren zapatuan, hilak 25, Seber Altube plazan. Bertan izango dira Arrasate Margo Taldeko kideak, bai euren lana erakusten, baina baita saltzen ere. Gainera, goiz eta arratsalde plaza margotzeko baliatuko dute herriko artistek. Arte azoka egun osoan zehar egingo dute, 10:30etik 14:00ak arte eta 17:00etatik 20:00ak bitartean. Herriko artistak eta euren lanak ezagutzeko modu aproposa zapatukoa.

Futbol areto txapelketa, herri bazkaria eta kontzertuak St. Pauliren Beste Bat! Egunean

Z.V.D.M. | ARRASATE

Hirugarren aldiz antolatu du Arrasateko St. Pauli taldeak Beste bat! Eguna; zapatuan izango da. Areto futbol norgehiagoka egingo dute St.Paulikoek; Iturripen Iluntz-Beste bat! taldeen arteko partidua izango da, 11:00etan hasita.

Seber Altube plazara lekualdatuko da jaia ondoren eta bazkaria egingo dute 14:30ean. "Dagoeneko Iluntz eta DAT tabernetan daude txartelak salgai, 10 eurotan. Jendea animatu gura dugu festarekin bat egitera!". Hala azaldu du taldeko kide

Dirk Morenweiser-ek. "Berritasun moduan, Iñigo Almandoz magoa arituko dela bazkalostea girotzen".

Familia giroan

"Beste bat! Egunean familia giroa nagusitzen da, eta guztientzako egitaraua prestatu dugu". Umeentzako jolasak egongo dira (16:30-19:30) eta McOnak (17:00) eta ZZ blues Band taldeen emanaldiak (18:30) Seber Altuben.

Gauean musika nagusituko da gaztetxean, 22:00etan hasita: Brutal Calling, Fight to Life eta Aggressive Combat.



2011ko argazki erraldoia; aurten ere egingo dute. | BESTE BATI


Etorkizuneko Azoka Plazaren irudia aukeratu dezakete herritarrek

Z.V.D.M. | ARRASATE

Azoka Plazak etorkizunean izango duen irudia zein izango den erabakitzeko aukera dute herritarrek ostirala ezker, hilaren 31ra arte.

Hain zuzen ere, BAZen eta azokan bertan daude ikusgai Bagarak martxan ipinitako lehiaketara aurkeztutako 29 lanetatik finalista izan diren bi irudiak. Azokan erabiltzeko 5 euroko deskontu bonoak zozketatuko dituzte, gainera, bozkatzera animatzen diren herritar guztien artean.

Esan bezala, 29 lan aurkeztu dira lehiaketara, horietatik 8 arrasatearrek egin dituzte, eta 15 Euskal Herriko beste tokietatik jaso dituzte eta 6 estatutik.



Irudi finalista. | BAGARA



Irudi finalista. | BAGARA

2015 urtera arteko Kirol Plana landu du Udalak

Erronken artean daude elkartegintza sustatzea eta zenbait kirol ekipamenduren egoera hobetzea

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzuek 2015 urtera arteko Kirol Plana aurkeztu dute. Egoeraren hausnarketa sakona egin ostean, datozen urteetan jarraitu beharreko ildo nagusiak finkatu dira bertan. Helburu nagusia bat eta garbia da: herritar aktiboak lortzea. "Demostratuta dago jarduerak fisikoak eta kirolak bizi-kalitatean eragiten duela. Gure helburua da herritarrei kirol-eskaintza ahalik eta egokiena beraien bizi kalitatea hobetzeko", azaldu du Kirol teknikari Iñaki Ugarteburuk.

Kirol Kontseiluaren lana

Helburu hori lortzeko pasa den urtean Kirol Kontseilua eratu zen, Bergarako kirol sistema osatzen duten eragile guztien partaidetza bermatzeko eta horien guztien iritzia kontuan hartzeko. Kirol Kontseilua urtean bitan batzen da eta bertan erabaki dira plan estrategikoaren ildo nagusiak.

Egoeraren hausnarketa

Hasteko eta behin, egoeraren hausnarketa sakona egin dute, ahuldadeak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatuz.

Ondorio nagusien artean, eta ahuldade moduan, azpimarratu dute kirol instalakuntzen aldetik, Agorrosingo kirolgunea, berria izanda, oso egoera onean dagoen arren, gainontzeko herriko kirol instalakuntzen egoera ez dela horren ona.

Kirol zerbitzuen benetako kostua ere beste ahuldade bat litzateke. Udalaren ustez zerbitzuen prezioak, benetako kostua-



Agorrosin kirolguneko gimnasioa. | ARRITXU BARRUSO

ren azpitik ezarrita daude eta apurka-apurka desberdintasun hori parekatzen joan beharko da.

Dena dela, alderdi positiboak ere badaude, noski. Aukeren artean kokatzen dute, esaterako, Bergara kirol tradizio handiko herria izatea. Gaur egun 4.000 bazkide dituzte Udaleko kirol zerbitzuek eta 1.000 tik gora erabiltzaile. Debagoieneko kirol zerbitzuen egitura aproposa ere azpimarratzen du Kirol Planak.

Non eragin zehaztu dute

Egoera aztertu eta argazki orokorra atera ondoren ekintza plana zehaztu dute eta hainbat ardatzetan eragin nahi dute bereziki.

Egituratu gabeko jarduera fisikoa litzateke bat. Hau da, antolatuta gabeko jarduerak espontaneoak eta osasuna hobetzeko asmoarekin burututako jarduerak bultzatzea. Gauza bera kirol eskaintza egituratuarekin; Eskola kirolaren eremuan antolatzen diren jarduerak, kirol elkarteen eskaintza eta Udalak antolatutako kirol eskaintza aztertu eta hobetu nahi da. Elkartegintza sustatzeari ere garrantzia emango diote. Azkenik, kirol ekipamenduen egoera hobetzea eta Bergarako Kirol Zerbitzuen kudeaketa bera hobetzea lortu nahi da. Plan estrategikoa eginda 2012-2015 epealdian ardatz bakoitzean bete beharreko helburuak finkatuko dituzte.

Kirol Planaren ardatzak

- ▶ Egituratu gabeko eskaintza fisikoa sustatu
- ▶ Kirol eskaintza egituratua hobetu
- ▶ Kirol elkartegintza sustatu
- ▶ Kirol ekipamenduak hobetu
- ▶ Kirol Zerbitzuen kudeaketa hobetu

IÑAKI UGARTEBURU KIROL TEKNIKARIA

"Prezioen eta kostuaren arteko aldea txikitzen joan behar gara"

Kirol Planaren inguruan hitz egin digu Ugarteburuk. **Kirol Planak dio, besteak beste, zerbitzuen prezioa eta benetako kostua ez datozela bat.**



Zerbitzuak mantentzeko Udalak urtero diru ekarpen garrantzitsua egin behar du. Uste dugu etorkizunean prezioen eta kostuaren arteko ezberdintasuna txikitzen joan behar garela eta erabiltzaileen artean finantzatu zerbitzuak.

Zenbait kirol instalakuntza hobetu beharra ere ikusi da plan estrategikoan.

Zorionez, Agorrosingo kirolgunea oso egoera onean dago, baina ez da gauza bera gertatzen beste instalakuntzekin. Kirol instalakuntzez ari garenean, gainera, ez dute zergatik barrukoak izan behar; Bidegorria, kirola-egiteko guneak...

Bizikasik antolatutako hainbat ikastaro

A.B. | BERGARA

Bergarako Udalak eta Bizikasik antolatuta hiru ikastaro egingo dituzte datozen asteetan. Lehenengoa *Ortuzaintza ekologikoa* izeneko ikastaroa izango da. Angiozar auzoko Pagomendi elkartearen egingo dute maiatzaren 30ean eta ekainaren 6an eta 13an. Hamabi ordu iraungo ditu eta plaza mugatuak dira.

Elikagaien manipulatzailer baimena ateratzeko ikastaroa ere antolatu dute. Ekainaren 17an eta 18an izango da, 16:00etatik 19:30era.

Azkenik, ogia egiten ikasteko tailerra egingo dute uztailaren 6an Angiozarko Pagomendi elkartearen. Lau ordu iraungo ditu. Ikastaro horien gaineko informazio gehiago nahi izanez gero 943 76 93 94 telefonora deitu.

Bergara Hiria argazki lehiaketako sari banaketa, barikuan

Bergara Hiria argazki lehiaketako sari-banaketa ekitaldia egingo dute egubakoitzean, hilak 24, Aroztegi aretoan 20:00etan. Lau sari banatuko dira: 210, 180, 150 eta 120 euro; guztiak garaikurrarekin batera. Sari banaketarekin gainera, ekainaren 9ra arte Aroztegin bertan ikusgai egongo den erakusketa inauguratuko dute.

Ate irekien jardunaldiak egingo dituzte ludotekan

Maiatzaren 24tik ekainaren 21era, martitzenetan eta egubakoitzean, Bergarako ludotekak ate irekien jardunaldiak egingo ditu. Edozein herritar joan ahal izango da ludotekara eta ez da beharrezkoa izango aurrez izena ematea. Ludotekako arduradunek azaldu dute ekintzak ludotekan bertan eta kalean ere egingo dituztela.

Inprobisazioa eta umorea lantzeko tailerrak ekainean

Bertsozale Elkarteak antolatuta *Inprobisazioa eta umorea eskenategian* izeneko tailerra egingo dute ekainaren 28an, 29an eta 30ean. Asteburuko egonaldia egingo dute Bergarako Aibar baserrian. Oihulari Klown taldeko Virginia Imazek eta Karmelo Muñozek gidatuko dute tailerra eta 25 ordukoa izango da.

Pol-Poleko lagunek Soria eta Errioxara irteera

Pol-Pol taldeko beteranoak Errioxa eta Soria inguruan ibili ziren maiatzaren 12an; Ortigosa de Cameros eta Viniestra de Abajo herrien arteko 19 kilometroko ibilbidea burutu zuten. 54 lagun elkartu ziren. Hurrengo irteera bi egunetakoa (ekainaren 15-16) izango da, Sabiñanigora, Pico del Aguila mendira.



POL POL MENDI TALDEA

Oihana Martinez de Albeniz | Erizaina

"Umeak larrialdiren bat duenean, burua hotz izatea komeni da"

Oihana Martinez de Albeniz erizainak gurasoendako tailerra emango du hilaren 25ean: erabili beharreko tekniken gainean jardungo du

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Elkar Hezi ikastetxeak umeekin larrialdiren bat dagoenean nola jokatu behar den erakusteko tailer praktikoa antolatu du hilaren 25erako. Oihana Martinez de Albeniz erizainak emango ditu azalpenak.

Norendako da aproposa tailerra?

Umeekin ibiltzen direnendako, batez ere, zaintzaileendako: guraso, aitaita-amama, anai-arreba...

Nola jokatu behar dugu umeak zauriren bat duenean?

Zauria txikia bada, ondo garbitu eta tiritu ipinita nahikoa da. Zauria sakonagoa bada eta odol-jario handia badu, zapi bat gainean ipini eta presionatu egin behar dugu odol-jarioa mozteko. Ondoren, gertuen daukagun osasun etxera eramango dugu.

Umeek buruan kolpeak hartzen dituztenean ere kezkatu egiten gara. Larrialdietara eraman behar ko genituzke?

Kolpe horren ondorioak ikusi behar dira: konortea galdu duen, sudurretik odol-jarioa duen, konbultsioak dituen, arreta falta duen... Orduan joango gara pediatraren gurengana. Buruko kolpeei 24 orduko jarraipena egin behar zaie.

Nola identifika daitezke konbultsioak?

Mugimendu bortitzak dira. Pertsonak bere kabuz egiten ez dituenak, ezohikoak. Halakoetan komeni da mugimenduak ez gelditzea. Haurra babestu egin behar ko genuke, eta ahoan duena



Oihana Martinez de Albeniz. | GOIENA

kendu. Konbultsioak 1 eta 10 minutu artekoak izan ohi dira.

Konbultsioa bukatzen denean, haurra segurtasun posizioan ipiniko dugu, botaka egiten badu ere biriketara ez joateko. Ondoren, pediatraren gurengana eramango dugu umea.

Janaria kontrako eztarrira joaten denean, zer egin behar dugu?

Umeak eztula egiten badu, bere kabuz etorriko da onera. Arazoa sortzen da eztula egiteko gai ez denean. Orduan, eskuak erabili behar ko ditugu. Bi omoplatoen

artean kolpe gogorak eman behar ko ditugu. Bost kolperek ez bada konpontzen, bularrean konpresioak egin behar ko ditugu eta konortea galtzen badu, bihotz-biriketen bizkortze teknika erabili behar ko ditugu.

Teknika hori menderatzea inportantea da?

Bai. Konortea galtzen duenean, arnasa hartzen duen begiratu behar dugu lehenik. Arnasik ez badu hartzen, azalera gogor baten gainean ipiniko dugu umea eta gerritik gorako arropa kenduko diogu. Burua atzera bota eta ahoz ahokoa egingo diogu. Gehienez, bost aldiz. Ondoren, bihotz-biriketen bizkortze teknika egingo dugu minutu batez, eta jarraian laguntza eskatuko dugu.

Laguntza heltzen den bitartean bihotz-biriketen bizkortzearekin jarraituko dugu.

Larrialdi zehatzetatik haratago, ze aholku emango zenitzioke zaintzaile bati?

Zaila izaten da, baina umeak istripuren bat duenean, edozein dela, burua hotz izan behar ko genuke. Lasai egon behar ko genuke. Gu lasai bagaude, gurekin daudenak eta, batez ere, umea lasaiago egongo dira.

"Konbultsioak mugimendu bortitzak dira, ezohikoak"

"Janaria kontrako eztarrira joaten denean, eztula egitea komeni da"

Hondakinen bilketako materiala, eguaztenetik aurrera

Larraña Institutuan eta kiroldegian banatuko dituzte kuboak, poltsak, gida, hiztegia eta imana

M.B. | OÑATI

Hilaren 22tik aurrera hasiko dira hondakinen bilketarako materiala banatzen (eguaztena): Bidaurretatik beherako bizilagunek kiroldegian jaso behar ko dute eta handik gorakoek, Larraña Institutuan, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Baserri auzoetako bizilagunek auzo-alkateen bitartez jasoko dute guztia. Materiala jasotzeko orduan NA erakutsi behar ko da. Udalak prentsareko egin zuen egubakoitzean material bilketaren gainekoak kontatzeko, eta herritarrek "animatu" zituen euren materiala batzera joateko.

60 poltsa hori

Ontziak, poltsak, imanak, gida eta hiztegia dira familia bakoitzak jasoko duen materiala.

Lau ontzi jasoko dituzte: marroi koloreko bi organikorendako; gris koloreko bat errefusarendako; eta urdin kolore-

ko bat paperarendako eta kartoiarendako. Azken horiek era komunitarioan jasotzea erabaki duten atariek -guztira, 98-ontzi handia jasoko dute. Bestalde, familia bakoitzak hori koloreko 60 poltsa izango ditu. Ekainetik abendura arte, astean bitan, plastikoa eta ontzi arinak ateratzeko adina poltsa.

Azkenik, gida, hiztegi eta iman bana jasoko dute. Lehenengo biek hondakin bakoitza noiz eta nola atera behar den azaltzen dute. Hozkailuan edo labean ipintzeko imanak bilketaren egutegia zehazten du: astelehenetan papera eta kartoiak; martitzenetan egubakoitzetan eta domeketan organikoa; eguaztenetan eta zapatuetan ontzi arinak; eta eguenetan errefusa. Komertzioek, ostalariek eta industria-guneek beste egutegi bat izango dute.

Konpresak eta pixoihalak egunero atera ahal izango dira poltsetan.



Hasi dira hondakinen bilketarako zintzilarioak ipintzen. | OIHANA ELORTZA

Kasablankako bidegorriko marrak gorri kolorearekin

Otadui zuhaitziko bidegorriari kolorea aldatu diote: bizikletek erabili beharreko tramuko marrak gorri margotu dituzte, hain zuzen ere. Lanak egin zituztenean, bidegorria eta bideak banatzeko marra guztiak zuriz margotu zituzten. Horrek, baina, erabiltzaileen artean kezka sorrarazi zuen: bidegorria zein zen jakiteko arazoak zituzten. Hori ikusita, Udalak bidegorriko marrak gorri margotzeko eskaera egin zion Aldundiari.



OIHANA ELORTZA

Txantxiku Ikastolak kantu-afaria egingo du hilaren 24an, herriko elkarte gastronomiko batean

Kantu-afaria antolatu dute Txantxiku Ikastolako euskara taldeko kideek hilaren 24rako. Herriko elkarte gastronomiko batean egingo dute, eta afari osteko giroa zuzeneko musikarekin alaituko dute: eurek abestuko dute. Bada, kantu-afarira joan gura duenak izena eman behar du ikastolako idazkaritzan edo telefonoz (943 78 12 04) hara deituta. Apuntatzeko azken eguna etzi da, eguaztena, hilaren 22a.

'Azken egunak Gurian' dokumentala aurkeztuko dute eguaztenean, kultura etxean, 20:00etan

Aitor Arregik egindako *Azken egunak Gurian* dokumentala kultura etxean aurkeztuko dute hilaren 22an, 20:00etan. Dokumentalean, Guria tabernaren azken 15 egunetako bizitza kontatzen da: taberna barruan eta kanpoan grabatutako irudiekin eta jabeek, langileek eta bezeroek esandako berbeekin. "Taberna mitikoarekin" hartu emana izan zuten pertsonak gonbidatu ditu Arregik estreinaldira, eta baita tabernarekin zerikusirik ez izan arren dokumentala ikusi gura dutenak ere.

ESKORIATZA

Mendi hilabetearen bueltan, 'Pura Vida' eta orientazio jokoak daude asteen

Eguenean egingo duten orientazio zirkuiturako aurretik eman behar da izena

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aurrera dihardu Eskoriatzan mendi hilabeteak, eta asteen ere hainbat ekintza daude aurreikusita horren bueltan. Bihar, martitzena, Iñaki Otxoa de Oltza mendizalearen bizitza eta erreskateari buruzko *Pura Vida* dokumentala ikusteko aukera izango da, 19:00etan, Huheziko areto nagusian. Debalde izango da sarrera.

Emanaldi berezia izango da biharkoa, joan den asteen, ikus-entzunezko horretan parte hartu zuen Alexei Bolotov mendizale errusiarra hil zelako Everesten.

Behin baino gehiagotan "heroizat" jo izan dute Bolotov, Otxoa de Oltza mendizale nafarraren erreskatean izandako parte-hartzeagatik.

Orienting zirkuitua

Bestalde, plazan jarritako zirkuitua jarraituz, orientazio jokoak izango dira eguenean, hilak 23, *Ez zaitez galdu Eskoriatzan* lelopean. Taldeen arteko lehiaketa hori 17:00etatik 19:00etara bitartean izango da. Udaletik gogorazi dute aurretik eman behar dela izena herriko ikastetxeetan, Huhezin edo kiroldegian.



Bolotov, *Pura Vida* filman. | GOIENA

Fatxadak garbituko dituzte ekaina hasieran

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak ekaineko lehenengo asteen herriko hainbat fatxada garbituko ditu; hain justu, dauden pintadak garbituko dira eta jarritako kartelak ere kendu egingo dira, eta, guztia egiteko astebete beharko dute.

Udalak azaldu du fatxadak partikularren jabetzakoak direla, eta, hortaz, jabedunei eskatu die hormak garbitzerik gura ez badute Udalera joan daitezela hilaren 31 baino lehen, honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 13:30era; eguenetan, 15:00etatik 17:00etara.

ARETXABALETAKO

LOMCE legeari buruz jardungo dute bihar, 17:00etan, Arkupen

LOMCE legeak seme-alabengan eta euskal hezkuntzan izango duen eragina aztertuko dute bihar, martitzena, Aretxabaletan egingo den berbaldean. Gurasoei eta herritarrei zuzenduta dagoen hitzaldia 17:00etan hasiko da, Arkupeko Zaraia aretoan; euskaraz izango da. STEE-EILAS, LAB eta ELA sindikatuetako kideek eskainiko dituzte *Wert* bezala ezaguna den legeari buruzko xehetasunak, eta egon daitezkeen zalantzak argitzen saiatuko dira.

Ibarra kiroldegirako udako abonua egin daiteke

Aretxabaletako Ibarra kiroldegia gertu du udako karpina. Ekainaren 15tik irailera 15era bitarteko udako abonua egiteko aukera izateaz gain, ume zein helduendako ikastaro trinkoak eta kirol udalekuak ere eskainiko dituzte; uztailearen 1etik 19ra izango dira horiek. Informazio gehiago gura dutenak kiroldegira zuzenean joan daitezke, 943 03 98 42 telefono zenbakira deitu, edo info@ibarrakiroldegia.com posta elektronikora idatzi.

Amuskakoak Urretxura doaz zapatuan eta Olazarkoak Bizkaira ekainaren 3an

M.B. | ESKORIATZA

Bi irteera daude aurreikusita asteotan Eskoriatzan. Olazar erretiratuen elkartearen eskutik, egun osoko irteera egingo dute erretiratuek ekainaren 3an; besteak beste, Gaztelugatxe, Gernikako azoka eta Lekeitio bisitatuko dituzte. Interesatuak hilaren 23ra arte eman dezakete izena martitzen

eta eguenetan, elkartearen egoitzan. Prezioa 35 euro da.

Bestalde, Amuska emakumeen elkarteak Urretxuko Aikur erle museora joango dira hilaren 25ean. Izen-ematea martitzenean itxiko da. Bazkideek 35 euro ordainduko dituzte 3035 0044 85 04410211091 kontuan; eta bazkide ez direnek, 40 euro. Bazkaria sartuta dago.

Fibrosi kistikoari buruzko ikerketa bultzatzeko jaialdia dago zapatuan

M.B. | ESKORIATZA

Borroka arteen jaialdi berezia antolatu dute zapatutarako, hilak 25, Eskoriatzako Udal Pilotalekuan: fibrosi kistikoaren ikerketa sustatu nahi dute jaialdia eginda, eta lortzen den dirua Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Arnasa elkarteari emango diote.

Egun osoko jaialdia da: 10:00etatik 19:00etara askotariko erakustaldiak daude; tartean, Key-siren fundatzaile Justo Dieguzen emanaldia. Parte hartu gura dutenek aurretik eman behar dute izena 627 44 21 42 telefono zenbakian, eta 30 euro ordaindu. Ikusleek 4 euro ordainduko dituzte.

DEBAGOIENENKO LANBIDE HEZIKETAREKIN

ARETXABALETAN:

Ate irekiak: Maiatzaren 22an, 18:00etan

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola

☎ 943 79 79 00 / 943 79 79 43

www.iaretxabaleta.com



BERGARAN:

Ate irekiak: Maiatzaren 25ean, 11:00etan

IEFPS Miguel Altuna GLHBI Bergara

☎ 943 76 24 91 / 943 76 38 40

www.imaltuna.com



OÑATIN:

Ate irekiak: Maiatzaren 28an, 18:30ean
(Larrañako egoitzan)

RM Zuazola - Larraña Institutua

☎ 943 78 21 50

www.onati.net

"etorkizuna zure esku"



AURREMATRIKULA: maiatzaren 27tik ekainaren 7ra. • **MATRIKULA:** uztailearen 8tik 12ra.

ARAMAIO

Juan Jesus Ramos: "Aramaion biomasa sistema jartzea lortuko da"

Basoa energia iturri moduan aldarrikatzeko jardunaldia "oso aberasgarria" izan zela dio Ramon Ajuria alkateak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Hilaren 16an kultura etxean egindako biomasaren gaineko jardunaldia arrakastatsua izan zen. Ramon Ajuria alkatea "oso pozik" zegoen: "Oso aberasgarria eta interesgarria izan da. Jende asko etorri da, asko dakiena, eta eztabaida politak egon dira". Helburu nagusia herritarra kontzientziatzea dela gogoratu

zuen Ajuriak. Biomasa sistemekin lan egiten duen Avebiom elkarteak Juan Jesus Ramosek, adibidez, argi egin zuen berba: "Aramaiok gai honetan zituen kezka ezagutzen nituen aurrez. Banekien Aramaion berogailu sistema edo sare bat jartzeko planteamendua zegoela. Guk, Avebiom elkartetik, instalazioen erregistro bat egiten dugu bio-

masa kontsumitzen duten erabiltzaileena. Aramaioko instalazioa proiektu moduan erregistratu nuen zerrenda horretan, eta ez dut kenduko. Izan ere, Aramaion biomasa sistema jartzea lortuko dela uste dut".

Era berean, Santiago Arevalo Enguerako alkateak (Valentzia) eta Remufor elkarteak kideak ere defendatu zuen biomasa bidezko sistema: "Ez gabilta ezer berria asmatzen. Gaur egungo teknologiarekin gure arbasoen lan egiteko modua ari gara praktikan jartzen, besterik gabe".

Beste saio bat bihar

Alaiak elkarteak energia horniduraren gaineko hitzaldia antolatu du bihar, Kultur etxean (18:30). Xabier Arriolabengoa teknikariak Aramaioko argindarraren kudeaketa izango du hizpide eta alkateak, berriz, energia lortzeko Aramaio dituen baliabideak azalduko ditu.



Juan Jesus Ramos, berbetan, hilaren 16ko jardunaldian. | JOKIN BEREZIARTUA

Eguzkierripa Rock jaialdia egingo dute zapatuan, egun osorako egitarauarekin

Bazkarirako txartelak salgai daude dagoeneko herriko tabernetan

J.B. | ARAMAIO

Aramaioko Gazte Asanbladak gertu dauka Eguzkierripa Rock jaialdirako egitaraua, bosgarren urtez. Helburua ondo pasatzea: "Parranda eder bat bota eta lagun berriak egiteko elkartzen gara", dio Aitor Zabala asanbladako

kideak. Egun osorako egitaraua prestatu dute: 12:30ean *poteoa animatua* egingo dute eta bazkaria 14:30ean hasiko da, Eguzkierripa auzoko Andra Mari ermitan. Txartelak salgai daude dagoeneko herriko tabernetan. Bazkalostean, *limitadua* berriro ere irabazi

beharko dute aramaioarrek otzandiarren aurka, hainbat jokoren bitartez. Eguna borobiltzeko sei taldek kontzertua eskainiko dute: Gorroto, El exterminio de la raza del mono, Dirty Brothers, Bertso Tabern, Rumba Gerrilla eta Izargi izango dira gonbidatuak.

materiala. Poliki, baina arropa dezente bildu zuten eta prezio merkean jarri zuten salgai.

Luzatutako azoka

Zapatu goizean ziren azoka egitekoak baina, eguraldi txarra medio, antzuolarrak eskolako aterpean gelditu ziren, San Isidro azokan. Ez zen, beraz, jende askorik ibili goizean zehar. Gaztetxeak azoka luzatu eta zapatu arratsaldean ere atarian postua jartzea erabaki zuen.

Hala ere, materiala sobratu da eta Gaztetxean edukiko dute hurrengo egunetan. Berrerabilpenari bultzada emanez, arropa trukean ematea aztertzen ari dira.

ANTZUOLA

Bigarren eskuko arropen azoka egin dute Gaztetxe atarian

Zapatu goizean ez zen jende askorik ibili eta arratsaldean ere jarri zuten postua

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Egungo kontsumo ereduari alternatiba bat bilatzeko gogoz, bigarren eskuko arropen azoka izan zen zapatuan Gaztetxean.

Erosi, erabili eta botatzeko kontsumo ereduaren murgilduta gaudela uste dute Gaztetxe kideek eta arropen eremuan sakondu eta hausnarketa egitea

izan dute heburu. Industriari buelta bat eman eta erositako jantziak non eta zein egoeratan eginak diren eta horiek ekoizteko pertsonen zein baldintzetan egiten duten lan pentsarazi nahi izan diete herritarrei.

Hain zuzen ere, heritarrak izan dira azokaren euskarri, beraiei eskatu zitelako saltzeko

ELGETA

Datorren ikasturteko ingeleseko eskoletarako izenematea zabalik da

Ikasturte amaierako prestaketak ere hasita daude, tartean irteerak, jaialdia eta bazkaria

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Herri Eskola eta Maala Guraso Elkarteak hasita daude ikasturte amaiera prestatzen. Herri Eskolatik jakitera eman dutenez ikasturte amaierako irteera, aurten, Kortezubini dagoen fauna mehatxatuarendako Basondo babeslekura egingo dute. Azken orduko aldaketarik ez bada irteera hori ekainaren 11n egingo dute eskolako ikasle ia guztiek. Txikiendako beste irteera bat antolatu nahian dabilta. Lehen asmoa da ekainaren 13an Atxondo ingurura joatea.

Ekainean, Herri Eskolako beste klasikoak dira ikasturte amaierako jaialdia eta bazkaria. Jaialdia ekainaren 14an egingo

dute Espaloia kafe antzokian. Bazkaria, berriz, ikasturteko azken egunean, ekainaren 21ean.

Ingeleseko eskolak

Maala Guraso Elkarteak, bere aldetik, hasita dago datorren ikasturteko eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen.

2013-2014 ikasturtean eskolaz kanpoko ingeleseko saioetan parte hartu gura duten neska-mutikoek ekainaren 14ra arteko epea dute izena emateko.

Interesatuak Maala Guraso Elkarteak eskolako sarreraren duen postontzia erabili behar dute: sartu bertan ikaslearen izen-abizenak jasotzen dituen idatzi bat.



Herri Eskolako ikasleak iaz ikasturte amaierako jaialdian. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Udako ludoteka prestatzen dihardute, uztaileko

Helburua da Gatzagako neska-mutikoek udan herrian bertan ibiltzeko aukerak izatea

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Uztailearen 1etik 19ra bitartean udako ludoteka izango da Gatzagan. Gurel guraso elkarteak arduratuko da horretaz. Helburu garbi batekin, gainera: *Kanpora joan gabe, herriari bizia eman* leloarekin bat egitea. Bestela esanda, herriko gaztetxeok uztailean herriari bizia ematea lortu gura du Gurelek udako ludotekaren bitartez.

Izenematea

Egutegia zehazteaz batera, udako ludotekarako izenematearekin lotutako xehetasunak ere lotuta dituzte dagoeneko: ekainaren 14a baino lehen eman beharra dago izena, ludotekaren bertan edo Labidean.

Eta horrekin batera, iragarri dituzte, baita ere, ludotekaren bueltan antolatuko dituzten

ekimenetako batzuk: uztailearen 18 eta 19an gaua pasatzeko irteera antolatu dute. *Kamiseta eguna*, *Uraren eguna*, *Narrats eguna* eta *Patin eguna* ere iragarri dituzte. Eta beste ekimen gehiago antolatuko dituztela baita ere. Datozen asteotan jakinaraziko dituzte xehetasun gehiago.

Dantza ikastaroa

Bestalde, gogoan izan ekainaren bueltan dantza ikastaro bi antolatuta daudela Gurelaren bitartez: arin-arinak eta fandangoak ikasteko maiatzaren 10ean hasi zena eta ekainaren 8an bukatuko dena. Eta Sanjuanetara begira antolatu dutena. Azken horretarako, hain justu, oraindik ez dute izenemate eperi zabaldu. Iragarri dute, ordea, Joserra Perez izango dela irakaslea.

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOA DUGU ESKAINTZEKO

KAFE MAKINA

NESCAFÉ Dolce Gusto Melody kafe makina dugu zozketatzeko!



Parte hartzeko

SMS: KLUBA [SARIAREN IZENA]
[bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp bidez: KLUBA [SARIAREN IZENA]
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

DolceGusto
Baserrisarea
Arrikruz
Bertikal
Mihiluze
Bizardunak

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

BASERRISAREA .COM

DEBAGOIENEN BASERRI SAREARI esker baserriko produktuez osaturiko 4 otar zozketatuko ditugu.



ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikruz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.



MIHILUZE

MIHILUZE joko irabaztea nahi? Bi joko ditugu zozketatzeko.



BERTIKAL.COM

Bertikal joko berria gazte zein helduentzako. 5 joko ditugu zozketatzeko.



BIZARDUNAK

Bizardunak taldearen kontzerturako sarrerak. Maiatzak 25, Elgeta - 22:30ean. 3 sarrera bikoitz (6 sarrera)



DESKONTUAK: www.goienakluba.com



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

KIROLA



Antzuolako jokalarik eta teknikoak, txapeldunordearen kopa eskuetan dutela ospakizunetan. | GAIZKA ASENSIO

ERREGIONAL PREFERENTEA

Antzuolako mutilek Gipuzkoako txapeldunordearen saria jaso zuten

- ▶ Zapatuan, Vasconiaren aurka, Gipuzkoako txapeldun izateko finala jokatu zuten
- ▶ Zale asko joan ziren autobusean Antzuolatik Azpeitira, euren taldea animatzera

EMAITZA
VASCONIA
2-1
ANTZUOLA

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Antzuolak eta Vasconiak Gipuzkoako txapeldun izateko finala jokatu zuten zapatuan Azpeitian; bada, donostiarrek eroan zuten txapela etxera. 2-1 nagusitu ziren Vasconiako mutilek.

Juanina Garaik zuzentzen duen taldeak ohiko hamaikakoa-rekin jokatu ahal izan zuen Azpeitian; hala ere, atzokoan Ander Aranek ezin izan zuen jokatu lesionatuta dagoelako.

Atzean ondo kokatuta

Zelaira oso ondo kokatuta irten ziren Antzuolako mutilek. Defentsan lan ona egin zuten, serio jokatu zuten eta ondorioz kontraerasoan jokaldi onak eta politik egiteko aukerak sortu zituzten. Hasierako minutuak eta baita lehenengo zatia ere nahiko parekatuak izan ziren.

Antzuolak aukera onak izan zituen markagailuan aurretik jartzeko baina ezerezean geratu ziren aukera horiek. Atsedendian husnako berdinketarekin joan ziren aldageletara.

Bigarren zatian indar berekin irten ziren zelaira Juanina Garairen mutilek baina gauzak nahastu egin zitzaizkien hasiera hasieratik.

Falta bidez, lehenengo gola

Bigarren zatiko 15. minutuan sartu zuen Vasconiak lehenengo gola: falta zuzen bidez, gol ederra lortu zuten donostiarrek. Bigarren gola minutu gutxi barru etorri zen. Zorigaiztoko jokaldi bat izan zen. Imanol del Pozok bere atean sartu zuen gola. Gainera, Antzuola jokalarik bat gutxiagorekin geratu zen markagailuan 2-0 zihonean. Markel Letek, bi txartel hori ikusita, zelaia utzi behar izan zuen.

Vasconiaren bigarren gola golpe gogorra izan zen antzuolarrendako. Hala ere, indarrak atera zituzten eta aurrera egiteko gauza izan ziren. Ondorioz, gola egin zuten. Penalti bidez sartu zuen gola Antzuolak. Ibai Zabalok izan zuen baloia jaurtitzeko ardura.

Antzuolarraren gola, baina, oso berandu iritsi zen: luzapenean sartu zuten gola antzuolarrak, eta ondorioz ez zuten denborarik izan gol gehiago egin eta partiduari buelta emateko.

Zapatuan, Antzuolak ez zuen jakin izan aukerak ondo aprobetxatzen, eta futboleko gehiegi barkatuz gero, garesti ordaintzen da. Antzuola zerbait gehiago izan zen futboleko, baina ez zituen aukerak aprobetxatu; bai, ordea, Vasconiak. Hala azaldu zigun Iban Unanue, Antzuolako jokalarik: "Gure aukerak ez ditugu aprobetxatu, kontraeraso politik egin ditugu baina ez dugu golik egin", zioen. Azkeneko minutuan gola egin arren, "ezinezkoa" zela partiduari buelta ematea esan zuen Unanuek.

Sariak banatu zituzten

Partiduaren amaieran sari banaketa ekitaldia egin zuten. Antzuolak txapeldunordearen kopa jaso zuen, eta Vasconiak txapeldunarena.

Sari banaketa ekitaldian federazioko ordezkariak egon ziren, eta tartean zeuden Aloña Mendiko presidente Jabi Azpiazu eta baita Bergarako presidente ohi San Jose ere.

Datorren urtean, gora

Antzuolak denboraldi bikaina egin du. Erregional preferente mailan, euren taldean, txapeldunak izan dira eta modu horretan mailaz igotzeko txartela lortu dute. Joan zen astean lortu zuten

etxean, eta baita ondo ospatu ere. Datorren urtean ohorezko erregional mailan jokatu dute.

Jokalarik oso pozik daude zapatuan jende asko joan zelako Antzuolatik Azpeitira. Autobusa jarri zuten eta bete egin zuten.

IÑAKI AGIRRE | KAPITAINA

"Zaleen aldetik animu asko jaso ditugu eta horregatik pozik gaude"

Zapatuko partidua-
ren ospakizunen
ondoren izan gara
taldeko kapitainare-
kin.

Nolako partidua izan zen zapatukoak?

Oso gogorra. Zelaia lokaztuta zegoen eta zaila izan da. Guk huts egin dugu eta eurek ez.

Behin finalera iritsi eta ez irabazteak zapo gazi-goza uzten du?

Ez, galdu arren oso pozik gaude. Zale asko joan zen Azpeitira eta



GOIENA

animu asko jaso ditugu. Kontrarioak ere harrituta zeuden gure zaleekin.

12. jokalaria izan dira, hortaz?

Bai, harmaila guztia antzuolarrak beteta zegoen.

Hasierako helburua bete duzue?

Bai, gure helburua mailaz igotzea zen eta lortu dugu.

Datorren urterako gogotsu?

Bai, ia denendako maila berria izango da. Hala ere pozik gaude, derbi politik izango ditugu.



Kerman Azkarraga eta Iñigo Prieto omendu zituzten atzo arratsaldean. | ARANTZAZU EZKIBEL

OHOREZKO ERREGIONALA

Omenaldiz betetako arratsaldean Aretxabaletak liderra hartu zuen mendean

Partidu hasieran Prieto eta Azkarraga omendu zituzten, eta atsedendian Joseba Larrinaga zena

EMAITZA
ARETXABALETA
2-0
OIARTZUN

ARANTZAZU EZKIBEL | ARETXABALETA
Arratsalde hunkigarria izan zen atzo Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian bizi izan zena. Hunkigarria, eta polita era berean. Aretxabaletak Oiartzun hartu zuen etxean jokatu beharreko ligako azkeneko partiduan.

Partidu hasieran omenaldi txikia egin zieten jokalariei eta zaleek Iñigo Prieto eta Kerman Azkarraga jokalariei. Futbola uztea erabaki dute biek ala biek, eta urte hauetan Aretxabaletan egin duten lana eskertu zieten omenaldian. Hiru dantzarik aurrekoa dantzatu zuten lehengo; eta, ondoren, Udako pre-

sidente Juan Mari Enekotegik eta UDAko idazkari Aitor Irurek plaka bana eman zieten Azkarraga eta Prietori, hurrenez hurren. Gainera, Aritz eta Raul jokalariek taldeko kamiseta bat eman zioten Azkarragari.

Larrinagari omenaldia

Atsedendian, Aretxabaletako jokalariek zelai erdian geratu ziren eta Joseba Larrinaga zena senitartekoak txalo artean hartu zituzten. Josebaren anaia Julen eta honen emazte eta semeak irten ziren zelai erdira.

Aretxabaletak Larrinaga *Mardo*-ren izena zeraman kamiseta eman zion familiari.

Aretxabaleta talde sendoa

Esan bezala, omenaldiz jositako arratsaldea izan zen atzokoa; baina, omenaldiez gain, Aretxabaletak partidu ona jokatu zuen. Oiartzun liderra izan zuen aurrean

Aretxabaletak baina hala ere ez ziren kikildu etxeko mutilak.

34. minutuan etorri zen etxeko lehengo gola. Jokin Badillok sartu zuen. Badillo bakar bakarrik geratu zen atezainaren aurrean eta ez zuen hutsik egin. Hurrengo jokaldian Haritz Igarituak izan zuen gola egiteko aukera, baina Igartua ez zen baloira iritsi. Hala ere, epaileak area barruan falta adierazi zuen atezainari baloia pasa ziolako. Igartuak jaurti zuen falta, baina ezerezean geratu zen jokaldia.

Bigarren gola Oxelek egin zuen. Atzean ondo presionatu zuen Aretxabaletak; hala, Oxelek atzealdean baloia lapurtu eta atezainari loratu egin zion bigarren gola eginez. Atsedendian ostean partidua apur bat nahastu egin bazen ere –falta asko–, etxeko taldeak ondo eutsi zion markagailuari.

zuen markagailuan. Gainera, Bergarak bi jokalariek gutxiagorekin amaitu zuen lehia: Beretxinaga eta Nafarrete egotzi zituen epaileak. Hala, ez dute hurrengo neurketa jokatu –ezta Baltzategik ere.

Ondartzak urak hartuta zegoen

Aloña Mendik alperrik bidaiatu zuen Hondarribira. Ondartzak futbol zelaia urez gainezka zegoen, eta partidua bertan behera utzi zuten. Bihar, martitzena, erabakiko du federazioak noiz jokatu neurketa. Andoni Azkargortak uste du liga amaitu ondoren izango dela, izan ere, bi taldeek ez dute ezer jokoan.

OHOREZKO ERREGIONALA

Mondrak bat gutxiagorekin jokatu zuen bigarren zatia

Iturrinoren mutilek Aurrera hartuko dute zapatuan; hil ala biziko partidua izango da

EMAITZA
OSTADAR
3-1
MONDRA

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Azken partidura arte defendatu beharko dute maila Mondra-ko mutilek. Atzokoa irabazi beharreko norgehiagoka zen, baina Lasarten gelditu ziren hiru puntuak.

Ostadar taldea izan zen atzokoan lehena gola egiten, baina Arrasatekoak ez ziren kikildu eta berdintzea lortu zuten. Julen Zaitegik egin zuen berdinketaren gola. Jaurtiketa bat area kanpotik eta barrura. Emaitza horrekin –1-1– iritsi ziren atsedendira.

Gorka Dueñas kanporatua

Lutxo Iturrino entrenatzailearen esanetan partidua kontrolatua zegoen, eta irabaztea oraindik ere posible zela sinetsita irten ziren Mondra-koak bigarren zatia jokatzera, baina epaileak Gorka Dueñas kanpo-

ratu zuen hasi eta gutxira, eta kanporaketa horrek min handia egin zion taldeari. "Bigarren zati osoa jokalariek bat gutxiagorekin jokatu behar izan dugu, eta erabakigarria izan da hori", zioen Iturrinok partidu amaieran. Taldea behera etorri zela eta bi gol egin zizkietela azaldu zuen entrenatzaileak.

Urolak galdu egin du aste bukaeran, eta hori Mondraren aldeko emaitza da. Oraindik posible da mailari eustea; hori bai, datorren aste bukaeran, gutxienez, berdindu egin beharko du Mondrak.

Zapatuan Mojategin

Zapatuan jokatu du Mondrak txapelketako azken norgehiagoka. 18:00etan jokatu dira azken jardunaldiko partidu guztiak, baita Mojategikoa ere. Arerio zuzena da Aurrera, eta Iturrinok adierazi duenez baja asko ditu taldean: Andres Castellejo eta Julen Losada lesionatuta daude; Gorka Dueñas, berriz, zigortuta dago. Martitzeneko eta egueneko saioetan erabakiak hartu beharko dira.



IMANOL SORIANO

OHOREZKO ERREGIONALA

Bergarak 2-1 galdu zuen eta Aloñaren neurketa bertan behera geratu zen

A.E. | ARRASATE

Emaitza txarrarekin itzuli zen Bergara Berioaren zelatik. 2-1 galdu zuten Neka Galanen mutilek denboraldiko azken aurreko neurketan. Entrenatzailea, gainera, ez zegoen gustura Donostian ikusitakoarekin.

Partidua nahiko berdindua izan zen hasierako minutuetan. Bi taldeek ondo mugitu zuten baloia, baina gola egiten lehengoak donostiarrak izan ziren. Zelai erditik sartu zuten gola;

falta atera eta baloia inork ukitu gabe sareetan sartu zuten. Atsedenera joan aurretik Bergararen aldeko penaltia adierazi zuen epaileak; Berioko atezainak gelditu egin zuen baloia. Pare bat aukera garbi izan zituen Bergarak gola egiteko, baina mahone-roek ez zuten atea zulatu.

Bigarren zatian, Beriok penaltiz egin zuen bigarren gola, eta hurrengo jokaldian Imanolek hegaletik egindako jokaldi baten ondoren Anderrek 2-1eko jarri

ARETO FUTBOLA

Eskoriatzak galdu egin zuen

Euskal Ligako azkeneko partidua jokatu zuten zapatuan Manuel Muñoz kiroldegian Eskoriatzak eta Meatzari de Gallartak. Etxekoek ez zuten ezer jokoan, bizkaitarrek bai ordea: iguera fasea jokatzeko txartela behar zuten. Hala, partidu guztia berdinduta egin ondoren, azkeneko 20 segundoetan gola egin zuten bizkaitarrek (0-1). Eskoriatzak 11. postuan amaitu du liga, 23 punturekin.



Asier Azkarate, Aramaioko geldiuenean komunikatua irakurtzen. | J. ARANTZABAL



Lore eskaintza, Larrinagak istripua izan zuen tokian. | JA.



300 bat laguneko tropela, atzo, Aretxabaletatik Eskoriatzarako bidean. | JOSETXO ARANTZABAL

TXIRRINDULARITZA

Ziklisten azken agurra jaso zuen atzo Joseba Larrinaga 'Mardo'k

Errepideetan denondako lekua dagoela aldarrikatu zuten ekitaldira batutako txirrindulariek

LARRAITZ ZEBERIO | ARETXABALETA
Herri, elkarte eta adin ezberdinetako 300 bat ziklista elkartu ziren atzo, zapatua, Joseba Larrinagaren omenez haren lagunek antolatutako bizikleta martxan. Tropela 10:00etan abiatu zen Aretxabaletako plazatik eta Eskoriatza zein Arrasate zeharkatu ostean Aramaiorako bidea hartu zuen.

Larrinagak maiatzaren 7an istripua izandako lekuan utzi

zioten 300 txirrindulariek pedalak emateari. Aramaioko saihesbide bazterretik zuriz margotutako bizikleta batek seinalatuko du aurrerantzean ezbeharra gertatutako tokia. Bertan, ziklistek Larrinagaren omenezko komunikatua entzun zuten, eta jarraian minutu bateko isilunea eta lore eskaintza egin zituzten. Kontzientziazio kanpaina baterako irudi-grabazio batean ere parte hartu

DATUA

300

ZIKLISTA

Herri, elkarte eta adin ezberdinetako 300 bat ziklista izan ziren atzoko bizikleta martxan.

zuten, izan ere, atzoko ekimenak asko izan zuen aldarrikapenetik. Ziklistek errepidean bizi dituzten egoera arriskutsuak asko dira, eta garrantzitsua da gizartean kontzientzia sortzea Larrinagaren moduko ezbeharrik berriz ez gertatzeko.

Senitartekoak plazan

Bizikleta-martxa 12:00ak jota iritsi zen Aretxabaletako plazara.

Bertan, Joseba Larrinagaren omenezko irudia eta haren senitartekoak zituzten zain txirrindulariek. Aretxabaletako bi dantzari eta txistulari talde batek aureskua eskaini zuten.

Une hunkigarriak bizi izan ziren, gehienbat senitartekoek Larrinagaren lagun min Alfredo Meaberi haren kaskoa eman ziotenean. Hunkituta jantzi zuen Meabek.

IÑIGO AZKARATE
DORLETAKO AMA
ELKARTEKO
PRESIDENTEA



"Elkartu garenetik emozio handiko eguna izan da. Guretzat kontzientziazioa ere oso garrantzitsua da: denondako lekua dago errepideetan".

IBON BITERI
ESKORIATZAKO
TXIRRINDULARIA



"Joseba larunbatero irteten zen gurekin. Hau izan da azken irteera berarekin. Beldur ginen eguraldiarekin, baina talde polita irten gara azkenean".

GORKA MADINABEITIA
ARETXABALETAKO
TXIRRINDULARIA



"Merezi zuen omenaldia. Ea kontzientzia apur bat sortzen dugun. Errepidean errespetuz jokatzeko eguneroko gauza izan behar du, ez egun batekoa".

ASIER AZKARATE



LIHER UNZUETA

ANDONI AZKARATE

Asierrek irakurri zuen atzo komunikatua. Ziklista gazteak dira hirurak, eta oso kontuan omen dituzte ziklismo eskolan jasotako aholkuak: "Kontuz ibiltzeko, errepidearen izkinatxotik joateko eta egin behar dugun guztia markatzeko esaten digute".



Bizikleta martxaren ostean aureskua dantzatu zuten plazan. | LARRAITZ ZEBERIO



Larrinagaren senitartekok Alfredo Meaberi eman zioten haren kaskoa. | LZ

Ziklistek atzo helarazitako komunikatua

2013ko maiatzak 7, asteartea, arratsaldeko 6ak inguru. Inoiz ahaztuko ez dugun data. (...). Ekidin zitekeen ezbehar madarikatu baten ondorioz gure lagun Joseba hil zen. Bere bizitzeko grina bat-batean errepidearen bazterean utzi zuen auto batek, berak oso gustuko zuen kirola egiten (...). Gaur batu garenok gure laguna ekarri nahi dugu gogora, bere bizipoza eta bere konpromisoa. (...) Bere izaera aldarrikatzera gerturatu gara gaur Aramaioa, eta ozen aldarrikatu nahi dugu errepidean errespetuz jokatu behar dela. Josebak erakusten zuen konpromisoaren bandera denok hartu behar dugu. Auto gidari eta bizikleta zale. Denok konpartitu behar ditugu errepideak, errespetuz eta konpromisoz. (...) Gaur hemen elkartu garenok bizikleta bat utziko dugu Joseba zendu zen tokian. Maite genuelako etorri gara eta maite genuelako beti izango dugu gogoan (...).

ALDEDI

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

GOITIBEHERA JAITSIERA

Maldan behera abiaduraren zirrarak erakarrita

San Martzialgo aldapetan behera jaitsi ziren 25 goitibehera atzo

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA

Banaka edo taldean. Etzanda, auto baten barruan edo bizikleta gainean. Atzo arratsaldean Bergaran San Martzialerako bide bazterrak jendez bete ziren goitibeheren jaitsiera ikusteko.

Oraindik ere goitibeherena gizonezkoen esparrua dela ikusi zen, 25 parte-hartzaileetatik bi soilik baitziren emakumezkoak. Baina desberdintasunak alboratuta, guztiak bat eginda sentitu ziren abiaduraren zirrarak erakarrita.

Azkarrenak helmugan

Etxean egindako tramankuluak edo zertxobait profesionalagoak ere ikusi ziren. Helburua, ahalik eta denbora laburrenean helmugara iristea. Gehienek lortu zuten bidea arazo barik amaitzea, pare bat goitibeherak izan ezik.

Eta bi jaitsieraren ostean, sari banaketa iritsi zen. Denbora onenak egin zituzten bergararrak saritu zituzten: Jokin Gutierrez (01:07:03), Unai eta

Urtzi Markiegi (02:18:14) eta Mikel Mumoitio (02:29:45).

Pneumatiko sailean: Zallako Asier Leizea (01:03:46), Sopelako Pal Matrix (01:07:03) eta Julen Gutierrez (01:09:10).

Errodamendu atalean, Gueñez (01:22:28); eta goitibehera arinetan, Iker Aristi (01:12:64) eta Maddi Gutierrez (01:27:45).



Goitibehera arina, maldan behera. | JOSETXO ARANTZABAL



Bergarar azkarrenak, podiumean. | J.A.



Hirukotea, azken bihurgunean. | J.A.

SASKIBALOA

70-75 galdu zuen MUK denboraldiko azken partidua



MUKo jokalaria Mikel Atxa saskiratzea egiteko saiakeran. | IMANOL SORIANO

Natra Oñatiko bi pibot lesionatuta

Zilarrezko LEB mailarako igoera prestatzen ari da Natra Oñati, eta lagunarteko bi partidu jokatu ditu. Egubakoitzean 73-75 galdu zuen Zornotzaren kontra, eta zapatuan 85-84 irabazi zuen EBA eta LEB mailatan diharduten jokalarien selekzio baten aurka. Aste bukaerako albistea, ordea, Asier de la Iglesia eta Josean Cavada piboten lesioak dira. Ez dira forma onean egongo taldeak aste bukaeran Plasencian jokatzea duen igoera faserako.

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Josu Larreategiren taldeak garai-pen batekin amaitu gura zuen denboraldia eta gogor ahalegindu ziren Iturripen, baina zapatuan Mikeldi taldea Arrasatekoak baino gehiago izan zen.

Etxekoek ondo hasi zuten norgehiagoka, baina bizkaitarrek neurria hartzen jakin zuten, eta markagailuan aurretik izan ziren ia norgehiagoka guztian. Arrasatekoek gorabehera handiak izan zituzten: birritan bederatzi puntuko alde zabaldu zen bi taldeen artean —18-29 eta 48-57 ikusi genituen markagailuan—, baina etxekoek bietan lortu zuten berdinketa egoerara bueltatzea —33-33 eta 69-69—. Hala, egindako ahalegina aitortu behar zaie etxekoei. Lorpen horretan nabarmentzekoak izan ziren Barberoren eta Balantzategiren saskiratzeak.

Norgehiagoka amaitzeko minutua falta zela berdinketa zen markagailuan; 69-69. Hogei segundoren faltan, berriz, 70-71. Partidu amaierako uneak nahasiak izan ziren, eta oso teknikoak. Harmailetan ez zen Arrasateko jarraitzaileen animorik falta, ezta haserre bat edo beste ere epaileen erabakien harira. Azkenean, ordea, bizkaitarrek egin zituzten saskiratze gehien. Honenbestez, amaitu da txapelketa.

PILOTA

Gaur jokatuko dituzte Bergara Hiria Pilota txapelketako finalak Udal Pilotalekuan, 19:00etan

Bergara Hiria Pilota txapelketako finalean herriko pilotari bat izango da. Nagusien mailan, Beñat Rezusta bergararrak, Jaka bikotekidearekin batera, Yoldi eta Tolosaren aurka jokatu du finala. Herritarren animuak izango ditu Rezustak txapela irabazteko. Gazteen mailan, ostera, Altuna-Imaz bikoteak Irribarria eta Xanet Imazen aurka jokatu du finala. Finalak 19:00etan hasiko dira, Udal Pilotalekuan. Lehenengo gazte mailako finala jokatu dute eta ondoren hasiko dira nagusiak.

TXIRRINDULARITZA

Carlos Antonio Jimenezek irabazi du 78. Pentekoste Saria

Bergarar azkarrena Jokin Etxabe izan da

A.E. | BERGARA

Caja Rural taldeko Carlos Antonio Jimenezek irabazi zuen atzo Bergaran jokatu zen Pentekoste Saria. 22 laguneko taldean sartu ziren helmugara eta sprintean erabaki zen irabazlea.

Labegaraietan izan zituen hasiera eta helmuga atzoko lasterketak. Hasierako kilometroetan Gipuzkoa eta Caja Rural taldeko txirrindulariak ibili ziren tropeletik tiraka. Maltzagan 12 txirrindulariz osatutako taldetxoia zihoan tropeletik ihes eginda. Elorregi eta Zubillaga-

tik pasatu ondoren, Angiozarretik, Asentzioko gainera jo zuten txirrindulariek. Angiozarren gora Lizarte taldeko txirrindulariak ibili ziren tiraka. Asentzion, tarteko helmuga Caja Rural taldeko Ruben Martinezek irabazi zuen.

Bergarar onena, Etxabe

Jokin Etxabek eroan zuen lehenengo bergararraren saria -7. sailkatu zen; talde onenaren saria, berriz, Caja Ruralendako izan zen. Jende dezente egon zen helmuga puntuan.

AUTOMOBILISMOA

Monika Muñoz | Pilotua

"Autoa senarrarekin partekatzen dut: nik igoerak egiten ditut eta hark, rallysprintak"

- ▶ Pilotu oñatiarrak Gorlako Igoeran hasi du denboraldia: motorra apurtu zuen
- ▶ 19 urterekin auto-krosetan ibili arren, igoeretako debuta iaz Udanako Igoeran egin zuen

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Monika Muñoz (Oñati, 1975) ile-apaintzailea da. Hori da haren lanbidea, baina hilaren 11n Gorlako Igoeran Citroen ZX bat gidatzen ikusi zuten askok. Pilotua ere bada, eta senarrarekin partekatzen du zaletasuna. Baina ama ere bada. Bi alaba ditu: Naia eta Lur. Ezaugarri horiek guztiak batuta, ama ile-apaintzaile pilotu baten istorioa daukagu. 16 urterekin ikasi zuen gidatzen, baina iaz hasi zen auto igoeretan parte hartzen.

Gorlako Igoerarekin hasi duzu denboraldia, baina zorte txarra izan zenuen.

Bai. Entrenamenduan denbora ona egin nuen: 35. onena. Baina lehenengo mangan motorra apurtu nuen eta lasterketa bertan behera utzi behar izan nuen. Amorratuta irten nintzen autotik. Denboraldiko lehena zen, etxetik gertu, sentsazio onekin... Bidea ondo ikasteko entrenamendu asko egin arren, ezin izan nuen proba hasi ere egin.

2012ko Udanako Igoeran egin zenuen debuta gidari moduan, 37 urterekin?

Autoa erosi genuenean, zirkuituetan ibiltzeko asmoarekin erosi genuen: Mirandan, Los Arcosen... Zirkuitua alokatu eta autoan ibiltzeko aukera dago leku horietan. Baina, behin autoa erositako, igoeretan parte hartzeko gogoia piztu zitzaigun Jon Ander senarrari eta bioi. Eta Udanako eta Gorlako igoerak aproposak zirela pentsatu genuen: nik Oñatikoa eta senarrak Bergarakoa.

Oñatiko probarako bakarrik egin nuen federatu txartela. Orduan ere zorte txarra izan nuen: lehen txandan kolpe bat izan nuen; bigarrenaren ez nintzen irten eta hirugarrenarekin ez nintzen gustura bukatu. Hori horrela, denboraldi osorako federatu txartela egitea erabaki nuen.

Senarrak hainbat igoera egin zituen eta ondoren rallysprintak egiten hasi zen: Jon Ander gidari eta ni kopilotu. Laguntzaile lanak egiten ditut harekin.

Ze asmo dituzu aurtengo denboraldirako?

Udanako Igoera eta Urrakikoa egingo ditut. Arlabangoa ere begiz jota daukat, baina errepidea apurtuta dago eta ez dakit egingo den. Markinako rallysprintean parte hartu gura dut senarrarekin, baina zereginak aldatu egingo ditugu: nik gidari lanak egingo ditut eta hura laguntzailea, kopilotua izango da.



Monika Muñoz pilotua, igoeretan erabiltzen duen jantziarekin. | MIREIA BIKUÑA

Autoa partekatzen duzue?

Bai. Nik igoerak egiten ditut eta senarrak, rallysprintak. Azken horietan biok joaten gara autoan.

Eta non sentitzen zara erosoan?

Zalantza barik, pilotu lanetan nago erosoan. Kopilotu modura gustura joaten naiz eta asko disfrutatzen dut. Baina gidariaren lekutik adrenalina askoz gehiago askatzen da. Ezin dira bi paperak alderatu.

Nondik datorkizu zaletasuna?

19 urterekin, Oñatin eta inguruetan egiten ziren auto-krosetan ibiltzeko auto bat zuen Euskadi Racingek eta gidaria behar zuten. Hainbat gidari aukeratu zituzten proba egiteko, eta horietako bat ni nintzen, eta neska bakarra, gainera.

Nola prestatzen dituzu igoerak?

Inportanteena bidea, ibilbidea ondo ezagutzea da. Adibidez,

Gurasoek lehen, eta alabek orain, zer esaten dizute?

Amak jakin zuenean, susto galanta hartu zuen. Zoratuta ote nengo galdetu zidan. Baina ez gustatu arren, beti izan da jarraitzaile sutsua, eta parte hartzen dudako igoera guztietara joaten da. Alaba zaharrenak atsegin du autoen eta motorren mundua. Txikienari ez zaio batere gustatzen.

Euskadi Racingek egindako proba baten ere egon zinen.

Hala da. Automobilismoan ibiltzeko auto bat zuen Euskadi Racingek eta gidaria behar zuten. Hainbat gidari aukeratu zituzten proba egiteko, eta horietako bat ni nintzen, eta neska bakarra, gainera.

Nola prestatzen dituzu igoerak?

Inportanteena bidea, ibilbidea ondo ezagutzea da. Adibidez,

Gorlako prestatzeko, gora eta behera ibili naiz etxeko autoarekin: errepidearen gorabeherak ikusi, bihurguneak non dauden eta nolakoak diren barneratu, abiadura neurtu... Hori izaten da prestaketa onena.

Bestalde, autoaren egoera zein den jakiteko, Mirandako zirkuituan egon ginen. Han probatu genuen autoa.

Rallysprintak beste modu batera prestatzen ditugu: kopilotuak badauka errepidearen gaineko informazioa, eta momentuan esaten dio gidariari zer egin behar duen.

Zuek egiten dituzue mekanikari lanak?

Bai. Autoa erosi genuenean, igoeretan parte hartzeko nahikoa prestatuta zegoen. Gure beharretara egokitu dugu, eta guk konpontzen dugu.

Kirol garestia da?

Norberak gura duen beste garestia izan daiteke. Norberak ipintzen du muga: nolako autoa, ze ekipamendu, arropak... Guk bada, kigu non dagoen gura aurrekontua. Autoak zaletasuna dira guretzat, baina beste hainbat gauza ere baditugu.

Zer sentitzen duzu igoera hasteko gertu zauden unean?

Urduritasuna eta lasaitasuna, aldi berean. Autoak pasioa izan dira niretzat. Asteko tentsio guztiak askatzeko aukera ematen didan kirola da.

Txikitako ametsa bete duzuela esango zenuke?

Bai. Askotan amestu izan dugu autoa erosi eta igoeretan parte hartzeko aukerarekin. Orain, bete egin dugu ametsa. Biok elkarrekin lehen lasterketa egin genuen eguna gogoratzen dudako bakoitzean, oilo ipurdia jartzen zait.

Emakume bakarra zara zirkuituan?

Bai. Gorlan beste neska pilotu bat egon zen, baina, normalean, ni bakarrik ibiltzen naiz.

Eta zer moduz gainerako pilotuekin?

Ondo hartu nautela esan beharra daukat. Arlo guztietan moduan, beti dago norbait harre hotza egin izan didana, baina, oro har, laguntasun handia jaso dut gainerako gidariengandik. Hasieratik. Ezaguna izan edo ez. Oso gustura egon naiz probetan.

Abiadura gustuko duzu?

Lehiatzeko orduan bai. Horregatik aukeratu dut zaletasun hau. Baina etxeko autoarekin nabiltzean, arauak errespetatzen ditut. Askok uste dute pilotua izateagatik zoroen pare ibiltzen garela errepidean. Batzuk, akaso, horrela ibiliko dira, baina ezin gaituzte pilotu guztiak zaku berean sartu. Izan ere, abiadura lehiatzeko da, ez egunerokotasunean ibiltzeko.

"Rallysprintetan kopilotu lanak egiten dizkiot senarrari"

"Udanan eta Urrakin egongo naiz eta Arlabangoa egiten bada, baita ere"



Monika Muñozen autoa Gorlako Igoeran. | IBAI URRUTIA, WWW.EUSKADITRABES.COM

"Autoa erosi genuenean, gure betiko ametsa bete genuen"

"Pilotu guztiak ez gara zoroen pare ibiltzen; abiadura lehiatzeko da"

Mendebaldeko gehiegizko higiene ohiturek areagotu egiten dituzte alergia kasuak

Gaur egun bost umetik bat alergikoa da, eta asma kasuak bikoiztu egin dira

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Avilan —Gaztela eta Leon— kongresu berezia egin berri dute gaiaren inguruan. Bertan, immunologia klinikoko eta alergia pediatrikoko 500 profesionalek gora elkartu dira. Datuak eman dituzte bertan, eta adierazi dutez gaur egun bost umetik bat alergikoa da, eta asma kasuak bikoiztu egin dira azken hiru hamarkadatan. Adituen esanetan gehiegizko higiena, elikadura eta kontaminazioa dira bilakera horren atzean dauden faktore nagusiak. "Haurrak giro aseptiko batez inguratuta egoteak eragina du: sistema immunologikoak defentsaren mekanismoa aktibatu beharrean alergiaren mekanismoa aktibatzen du", azaldu du Marcel Ibero sendagileak. "Ez dago germetik umeen inguruan, dena esterilizatuta dago, guztia- ren kontra txertatzen ditugu, eta ez dago infekzio arriskurik", gaineratzen du.

Immunity aldizkarian argitaratutako ikerketa batean frogatu



Doministikua. | TYREXITO

dute ingurumenean dauden germinen eraginpean egoteak sistema immunologiko "normal" bat garatzea ahalbidetzen duela.

Alergia kasuen areagotzea mendebaldeko gizarteetan ematen den fenomeno dela ere badiote adituek, eta familiaren egoera ekonomikoa faktore eraginkorra dela fenomeno horretan. Esaterako, Ameriketako Estatu Batue-

tan egindako ikerketa batek erakutsi du alergia kasu gehiago dagoela egoera ekonomikoa altua duten familien artean —%18,3— baliabide gutxiago dituzten familien artean baino —%14,9—.

Prebentzio neurriak hartzea, nork bere gaixotasuna ondo eza- gutzea eta arriskuez jakitun izatea dira alergia bat ondo erama- teko gakoak.

Aisialdi ez-programatua garatzeko denbora behar dute neska-mutikoeak

Haurren aisialdiaren inguruan gogoeta polita egin du Asier Huegunek *Hik Hasi* aldizkarian

L.Z. | ARRASATE

EHUko Pedagogiako eta Gizarte Hezkuntzako irakaslea da Asier Huegun, eta defendatzen du aisialdi informala galtzen doala. "Sistema ekonomikoaren ondorioz, gurasoek denbora hartuta dute eta horrek haur eta gazteen aisialdian du eragina", irakurri diogu *Hik Hasi* aldizkarian. Uste du aisialdiaren helburu bihurtu dela denbora okupatuta edukitzea. "Alde batetik, ez dago gaizki denbora librean antolatzea eta gauzak sortzea denbora betetzeko. Baina neurritz kanpo gertatzen denean, eztanda egiten du".

Huegunek azaltzen du aisialdi hezitzailearekin batera bada- goela beste aisialdi bat, informala, gizarteratze-prozesu natural batekin loturikoa, kalea-rena. "Hori asko galdu da", dio.

"Kaleak balioa galtzearekin batera, aldatu egin da aisialdi-ko jardueren zentzua, eta, badi- rudi, zenbait jardueraren hel- burua haurra gai horretan aditu bihurtzea dela", azaltzen du. Aisialdiko jarduerak nola aukeratu behar ditugun galde- tuta lehiakortasuna, kontrola, zurruntasuna, hizkuntza... kon- tuan hartu behar direla dio, baina baita beste honakoa ere: "Aukeratzen dugun horrek ekartzen duen onurari begira- tu beharko genioke, eta ea jar- duera horrek uzten duen aisial- di ez-programatua garatzeko denborarik. Alegia, haurrak denbora guztia, goiz eta arratsalde, okupatuta baldin badu, seguru ez dela onuragarria. Denbora librean beharrezkoa da, eta baita kalean sozializaziora- ko espazioak edukitzea ere".

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

ARIZMENDIREN TXOKOA

Eraikuntzaren kontzeptua berritzen

Aitor Axpe

Arkitekto teknikoa eta irakaslea

Natura betidanik izan da giza- kiaren bizilekua. Batzuetan krudela izan bada ere, gehie- netan babesteko eta hornitzeko erabili du gizakiak natura, eta elkarren arteko mendeetako harremanari esker elkar ezagutza handia eratu dute. Baina azke- neko hamarkadetan, batez ere industria-iraultzaren ondorioz, harreman hori eten egin da, eta bakoitzak bere bidea hartu du.

Gizakiok eraikuntzako kon- tzeptu gordina sinesmen bakar batekin bultzatu izan dugu: "Giza- ki modernoaren naturaren gainetik dago, eta ez du bere beharrik; izan ere, bere kabuz sor dezake energia merke batean oinarritu- tako mundu abstraktu bat". Joe- ra oker hori dela-eta, hainbat eta hainbat proiektu eta lur antola- mendu desegoki egin ditugu, eta orain ondorio latzak ordaintzen ari gara. Zorionez, azkenaldian,

beste bide batzuk eratu dira joe- ra horri buelta emateko eta, berriz ere, bi elementuak elkar uztar- tzeke.

Nahiz eta bide berri horiek oraindik bidexkak izan, eta ber- tan urratsak ematea nekeza izan, Arizmendi Ikastolako eraikuntza zikloko bidexka berri horien aldeko apustua egin dugu era- ginkortasun energetikoaren eta bioeraikuntzaren ezagupenak eskainiz.

Horren adibide argia da maia- tzaren 10ean Arrasateko Udalak, LKS ingeniariatzak eta Arizmen- di Ikastolak antolatu zuten Erai- kuntzako Jardunaldia. Jardunal- di horretan eraikuntzaren eta naturaren arteko sinbiosia izan zen mintzagai nagusia, eta horre- tarako goi mailako lau aditu

Bioeraikuntza eta eraginkortasun energetikoa helburu

etorri ziren euren esperientziak eta ezagupenak azaltzera.

Lehenengo hizlaria Eduardo Rojo izan zen, eta Gasteiz hiri- buruan abian jarrita duten bar- neko erazten berdearen proiektu- arri buruz aritu zen. Ondoren, Mikel Baztanek denok txunditu gintuen; izan ere, demostratu zuen epe laburrean nola hobetu daitekeen bizi kalitatea lorezain- tzari esker. Horretarako, Noain- Elortz herriko adibidea jarri zuen.

Ekokaleak lehiaketaren sari banaketaren ostean, Estatu mailan bioeraikuntzan eta diseinu bioklimatikoan aitzindari den Iñaki Urkiak lastozko etxebizitza bioklimatikoek aritu zen. Azken hizlaria Teknialiko Elena Morales izan zen. Landareriako itxi- turen eta estalkien onurez aritu zen.

Bukatzeko, Arrasateko Uda- leko teknikari Juan Antonio Urdangarinen gidaritzapean hiz- lariak bertaratutako galderei erantzun zieten.



Iñaki Urkia Eraikuntzako Jardunaldietan hitzaldia egiten. | ARIZMENDI IKASTOLA

Adibide bat: Erdi Aroko herri edo hiria

Normalean, errepide baten inguruan edo erromatar hiri baten gainean sortuak ziren, eta eskarien arabera handitzen ziren inguruko orografia, klima, eguzki erradiazioa... errespetatuz. Ondoren, lurra sakonera handiko eta zabalera estuko lursailetan banatzen zen. Aurreko aldean bi solairuko etxebizitza —tailerra eta etxebizitza— egiten zen, eta atzeko aldean baratzea, etxeko animaliak eta ur iturria ipintzen ziren. Hala, hiri eta etxebizitza bioklimatikoak eta energetikoki autonomoak zituzten. Eskoriatza eta Aretxabaleta, esaterako, horren adibide dira.

Testuak osorik irakurtzeko eta erantzuteko: **arizmendi.eu**

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



Ninika Loradenda

Ramon Maria Lili, 8 - Bergara

- %10 deskontua artikulu guztietan.



Alzu, S.L

Arantzazuko Ama, 2 - Oñati

- Arropetan %10 beherapena.



Naren Fisioterapia Zentroa

Belorrieta 5 behe - Aretxabaleta

- %15 zerbitzu guztietan.



Esko Sport

Intxaurtxueta 5, Eskoriatza

- Arropa eta zapatiletan %10 deskontua.



Jaixak

Barrenkale - Bergara

- %10 deskontua*, 20 eurotik gorako erosketetan.

* Liburutetan izan ezik.



Estacion Servicio Arrasate

San Andres 7 - Arrasate

- % 2 gasolindegian erregeia erositara.
- % 2 dendako produktuetan.



Begiondo Optika

Belorrieta, 11 - Aretxabaleta

- %15 produktu guztietan.
- Kontsulta doan.



Etxe-Aundi Hotela/Jatetxea

Torreazuo Auzoa 10 - Oñati

- %10 deskontua menu berezian (asteburuetakoa) eta kartan.



Gahir Fisioterapia/Osteopatia

Aranburuzabala 6 behe - Eskoriatza

- %50 deskontua lehenengo kontsultan.



Gaes

Otalora 18, Arrasate

Zurradero 10 Bergara

- %10 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.



Multiópticas

Juan Carlos Guerra, 1 behe - Arrasate

Ibargarai, 16 Bergara

- %15 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.



Arrikruz Kobak

Araotz Auzoa - Oñati

- %10 deskontua sarreran*.

* Topea bost pertsona.



Imprespal, C.B Imprimategia

Komenio 2 - Bergara

- %5 deskontua egiten den edozein lan edo erosketetan.



Kuttuna Estetika

Aranburuzabala 19, behe - Eskoriatza

- %5 deskontua* zerbitzu guztietan.

* Beste promozio batzuk izan ezik



AQUARIUM

Jacques Costeau Plaza 1 - Donostia

- Bi erosi eta bat ordaindu*.

* Sarrera garestiena ordainduko da.



Oñati Garajea

Goribar Auzoa 9 - Oñati

- %5 beherapena egiten diren konponketetan.



Biotika

Iturriotz 21 - Arrasate

- Hauschka kosmetika etxearen makillaje produktuetan %10 beherapena.



Caravanas Oñate

Otadui Zuhaiztia, 25 - Oñati

- 50€-ko erosketaren egiteagatik, %10 deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).
- %20-ko deskontua lineako patinetan.



Guztiz Eder

Kalebarria 29

Oñati

- %10eko deskontua Termason tratamenduan 10 saio hartuz gero.
- Drelimpur tratamendua: 10 bono: 100€. Sesioko: 12€.
- %5eko deskontua* argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan.

* Bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik.



Lilura Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7 - Bergara

- %15 laser depilazioan: hanka osoa + izterondoa (besapekoak opari).
- %20 elikagai intolerantzia proban.
- %10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- %10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.



Argia

www.argia.com

- %25eko deskontua ARGIAko harpidetzan Goiena klubeko kide izanda.



Txuri Urdin izotz pista

Anoeta Ibilbidea 24 - Donostia

- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan*.
- % 20 zapatu eta domekatan**.
- % 10 zubi eta oporraldietan.

* Ez bada jai egun, jai egun bezpera edo oporraldia.

** Ez bada zubia edo oporraldia.



Lastai

Arkatza 1, 49 Pab - Gasteiz

- %5eko deskontu gehigarria helduentzako atsedean arloan.
- %5eko deskontua haur kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietan.
- %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan.
- %10eko deskontua* denboraldiko haur-arropan.

* Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik.



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan Goiena papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

KULTURA



Gatz museo barruan ikus daitezkeen dorlak. | IMANOL SORIANO



Gatz museora joandako bisitariak, azalpenak entzun eta bertako gurpilari begira. | GOIENA



Garai bateko ikuspegia jasotzen duen maketa. | I.S.

Gatz museoa, herriari lotuta

Leintz Gatzagako museoak bisitariari erakusten dio gatzak ze garrantzia izan duen eta nola egin izan den

GUREN AUZMENDI | LEINTZ GATZAGA
Leintz Gatzagako museoak herriak eta gatzak izan duten harreman estua erakusten du. Debagoieneko herririk txikienean dago, herritik 250 metrora eta Dorletako gaztelu zaharraren ondoan. Bisitariak txoko aparta du gatzagarren historiari begiratu bat emateko: Gatz museoak atek zabalik ditu.

Aspaldikoa da oso gatzak Leintz Gatzagarekin duen lotura; iturburu gaziaren inguruan sortu zen herria. Gai horrek eman dizkio bai izena, eta baita izana ere. Bertara joandakoei horixe erakusteko zabaldu zen orain hamar urte baino gehiago gatz museoa. Aitziber Gorosabelek eman digu Debagoieneko museo horren berri; hango arduraduna da bera.

Museoan, erromatarren garaitik hango gatzagak izan duen bilakaera esplikatzeko diote bertaratutakoari, gatzak garrantzia handia izan baitu jendearen bizitzan; jana kontserbatzeko oina-

rrizkoa izan da orain gutxira arte toki askotan. Gatzagan, baina, ezohiko sistema bat erakusten dute. Iturriak emandako urari gatz ateratzeko dorletan irakiten zuten, iturburuaren inguruan zeuden etxeetako galdaretan, hain zuzen. Ura hara eramateko ponpa-sistema bat erabiltzen zen:

errekako ur gezaren indarrarekin altxatzen zen gazia. Mekanismoaren ur-gurpila ikusi egiten da.

Gorosabelek kontatu digu ur gaziarekin lixiba ere egin zela urteetan; Lejia Leniz izenarekin saldu zen. Dena den, gatzagak 60ko hamarkadan gainbehera izan zuen. Batetik, etxeetan hoz-

kailuak ugaritu eta gatzaren garrantzia gutxitu egin zelako. Bestetik, itsasoko gatz merkeagoa zelako (ekoizpen-kostu txikiagoak ditu barrualdeko gatzagatakoarekin alderatuta).

Gaur egun, bi eratako bisitak izaten dituztela esan digu museo-ko arduradunak. Asteburuetan,

bisita gidatuak hartzen dituzte, 12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelaniaz. Asteazkenetan, berriz, eskoletako ikasleak izaten dira; horiei era arinagoan azaltzen dizkiete museo-ko edukiak, jolasekin eta mendi-ibilaldiekin. Ez omen dabil jende gehiegi, baina eskaintzen dutenarekin gustura azaldu da Gorosabel: "Herri txikiak eta euren museoek harreman berezia dugu".

Museoen Nazioarteko Eguna

Museoen Eguna izan zen zapatuan eta, arrazoi horregatik, asteburutan itxita egon ohi den Eskoriatzako Ibarraundi Museoak zabalik izan zituen atek. Museoan, gainera, umeei zuzendutako tailerrak egin zituzten: lehendabizikoan, historiaurreko tresnak –lantzak, arkuak eta geziak, eta jaurtigailu edo bultzagailuak– nola erabili ikasi zuten, Ekainberrikoen eskutik; eta bigarrean, zeramikazko katiluak eta ontziak egin zituzten, Iraia Artzamendi artista eskoriatzarrak gidatuta. Museoan ez ezik, Zubiateko labearen ere ibili zen jendea; sarrera doan izan zen zapatuan.



Teoria praktikan jartzeko puntuan. | IMANOL SORIANO

Aurrera begira

Etorkizunerako planik ba ote duten galdetuta, dituzten proiektuen berri eman digu Aitziber Gorosabelek. Udalarekin batera, gatz-produkzioari berriz ekitea aztertzen dabilta, beste hainbat tokitako gatzagatan bezala.

Bestalde, uztailaren 19 eta 20rako, barrualdeko gatzagen topaketa antolatzen dabilta, Añanakoekin batera. Lehenengo egunerako, protokolo-ekitaldia antolatu dute; bigarrenerako, herritar guztiek disfrutatzeko moduko eguna.

Emakume musikarien rola ezagutzeko aukera dago Kulturateko klaustroan

'Emarock' erakusketa hilaren 31ra arte dago zabalik

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Emarock proiektua aurkeztu zuten egubakoitzean Kulturaten. Areto nagusia ia bete egin zen euskal emakume musikarien lana eta gogoetak entzuteko. *Emarock* proiektuak dokumentala eta erakusketa batzen ditu: erakusketa klaustroan dago, hilaren 31ra arte.

Saioa Cabañas, *Emarock* proiektuko koordinatzaileak, gidatutako dokumentala aurkeztu zuten lehenengo: *Emarock. Iragana, oraina eta geroa*. 16 emakume musikariren testigantzak jaso dituzte ikus-entzunezkoan, tartean, Ines Osinaga arrasatearrarenak eta baita Arrasate Musikaleko irakasle Maixa Lizarazurenak ere.

Kontzertu akustikoak

Ines Osinagak eta Kokein taldeko Zalao eta Ikerrek kontzertu akustikoak eskaini zituzten zuzenean. Zalao eta Iker igo ziren lehenengo taula gainera. *200 gezur* eta *Iraultza oilategian* eskaini zituzten lehenengo, eta bigarren aldiz taulara irten zirenean *Zain egon gabe* abestia; eta Ines Osinaga arrasatearrak *Kamarada* eta *Surik bai* Gosereren abestiak jo zituen, ohikoa den moduan, trikitiarekin. Herritarren txaloak jaso zituzten, Arrasate bertako Osinagak batez ere.

Dokumentala amaitu zenean klaustrora irten ziren, bertan jarrita dagoen erakusketa ikustera. Gainera, inauguraziora joan ziren denendako luncha prestatu zuten.

Irudia, jarrera... berbagai

Saio Cabañas kontzertuetako argazkilaria da. 2010ean erakusketa bat egiteko gonbidapena jaso zuen eta konturatu zen emakumeen argazkiekin bakarrik egin zezakeela erakusketa. Hala ere, konturatu zen ia gehienak abeslariak zirela, eta emakume instrumentu-jotzaile gutxi zeudela. Dokumentalean hausnartu gura izan dute zergatik dauden hain emakume gutxi eszenatokian. Musikariei euri eman diete ahotza, eta besteak beste, emakume musikariren irudiaz, amatasunaz, gurasoez, jarreraz... berba egin dute.

Klaustroan jarrita dagoen pantaila baten bidez dokumentala ikusteko aukera egongo da hurrengo egunetan ere.



Ines Osinaga musikaria. | A.E.



Kokein taldeko Zalao eta Iker. | A.E.



Kulturateko klaustroan dagoen erakusketa ikusten. | ARANTZAZU EZKIBEL



Amaieran luncha izan zuten. | A.E.

Loramendiren 24. Literatura Lehiaketak baditu irabazleak

Bariku arratsaldean egin zuten sariak emateko ekitaldia, Aretxabaletako udaletxe zaharrean



Sari banaketa amaieran ateratako talde argazkia. | IMANOL SORIANO

GOIATZ ARANA | ARETXABALETA

Haur, nerabe eta gurasoak batu ziren bariku arratsaldeko sari ematean, eta ekitaldian izan ziren Loramendi Euskara Elkarteko ordezkariak eta Udaleko Euskara eta Hezkuntza zinegotzia ere. 358 lan aurkeztu dituzte Loramendiren 24. Literatura Lehiaketara eta horien artetik 22 saritu ditu Loramendiko Kultura taldeak eta bertso eskolek osatutako epaimahaiak: LH 3 eta LH 4 mailetan, Iker Arias eta Kattalin Linazisoro –ipuina–, Aner Gejano eta Amets Eraña –bertsoa–, eta Leire Calvo eta Xabi Vitoria –deskribapena–; LH 5 eta LH 6 mailetan, Alaitz Mujika eta Ane Etxabe –ipuina–, Xubane Garai eta Aiora Diaz de Gereño –bertsoa–, eta Eneko Mateos eta Laia Arriola –iritzi artikulua–; DBH 1 eta DBH 2n, Jokin Salido eta

Sarah Corres –sentimenduzko gutuna–, Nerea Fernandez de Antona eta June Gaztañaga –komikia–, eta Itziar Sarasua eta Danel Feijo –argazkizkiak–; eta DBH 3 eta DBH 4n, Nerea Bastardo eta Aitziber Colino –sentimenduzko gutuna–, eta Mainer Bastardo eta Jon Egidazu –argazkizkiak–.

Berrikuntzak

Argazkizkien, deskribapenen eta iritzi artikuluen atalak izan dira aurtengo nobedadeak eta antolotzaileak pozik daude izan duten harrerarekin; batez ere, argazkizkiekin –argazki eta hizkiekin egindako lanak–, horiei esker gora egin duelako apur bat DBHko neska-mutikoen parte-hartzeak. Iaz nagusien literatura lehiaketan estreinatu zuten atal hori eta, ondo funtzionatu zuela ikusirik, gazteenean txertatu dute aurrean.

Bukaera, bertsotan

Bariku arratsaldeko ekitaldia xumea izan zen eta ez zen denboran askorik luzatu, baina bertsoen atalean saritua izan zen gazteetako batek botatako bertsoarekin, kantuan eginez boro bildu zuten hitzordua.

DATUA

22

SARI

Lehiaketara aurkeztutako 358 lanetatik 22 saritu dituzte. Lanen maila altua azpimarratu dute epaimahaia osatutakoek.

Gatazkari buruzko gogoeta bat antzezlan formatuan

ETako preso baten ama eta bikotekidea galdu duen gizona aurrez aurre

LARRAITZ ZEBERIO | ARETXABAETA
Herritar baten proposamenari bide emanda izan zen egubakoitzean Gasteizko Ortzai taldearen

Eta orain? ¿Y ahora? antzezlanaren Aretxabaletan. Argumentua fikziozkoa da, baina gertukoa: Euskal Herritik kilometro askotara

preso dagoen ETako kide baten amak eta haren biktimaren bikotekideak bat egiten dute baserri batean, eta eguraldia tarteko ezin dira handik mugitu. Nortzuk diren konturatzen dira, eta harremana tentsio handikoa da. Isolamendu egoerak, ordea, aukera ematen du nork bere bizipenak besteari kontatzeko, eta sentimenduak agertzen dira.

Amaieran foruma

Orain lau urte idatzitako obra da *Eta orain? ¿Y ahora?*. Aretxabaletan 50 bat lagun elkartu ziren emanaldia ikustera, eta amaieran eztabaidarako tartea ere zabaldu zuten aktoreek.

Iker Ortiz de Zarate aktore eta zuzendariak hainbat azalpen eman zituen, eta hor amaitu zen foruma, ez zuen-eta beste inork hitza hartu. "Garrantzitsua da bi aldeentzat sentimenduak jasotzen dituzten obrak jendaurrean egitea", adierazi du Joaquín Urteaga aretxabaletarrak. "Oso gai delikatuak izanagatik posiblea da orain".



Iker Ortiz de Zarate obrako aktorea eta zuzendaria da. | IMANOL SORIANO



Iker Ortiz de Zarate eta Teresa Ibañez, egubakoitzean, Zariaian. | IMANOL SORIANO



Teresa Ibañez aktorea. | IMANOL SORIANO



Ana Perez aktore irundarra tailerra gidatzen. | IMANOL SORIANO

Antzerkian mugimenduak garrantzia handia duela ikasi dute Dokekoek

Ana Perez antzezle irundarrak baliagarriak izango zaizkien irakasgaiak eman dizkie

L.Z. | ARAMAIO

Doke antzerki taldeak antolatuta aste bukaeran antzerki tailerra egin dute Aramaion. Hamar bat lagunek hartu dute parte antzerki formazio saio horietan. Zapatuan, goizean eta arratsaldean elkartu ziren. Domekan, berriz, goizean egin zuten saioa.

Ana Perez aktoreak egin ditu irakasle lanak, eta haren gidaritzapean gauza berri eta interesgarri asko ikasi dituztela esan digute Doke taldeak. Ezaguna da Perez Doke antzerki taldean, izan ere, aurretik ere egonda dago tailerrak ematen. Ikastaro honetan mugimenduaren garrantzia ikasi dute. "Tailer oso fisikoa izan da", azaldu du Mikel Irastorzak. "Antzerkiko testuak prestatzeko modu asko daudela ikasi dugu, eta mugimenduaren bitartez ere ikasi eta prestatu daitezkeela testuak erakutsi digu Anak".

Perezek testu ezberdinak proposatu dizkie ikasleei, eta

prestatzeko modu diferentek landu dituzte. "Oso ikastaro dinamikoa izan da. Mugimenduak, gorputza kokatzeko formak... gauza asko landu ditugu", azaldu du Irastorzak. "Landu ditugu testu desberdinak, eta ikusi dugu nola ikasi edo memorizatu daitekeen mugimenduaren laguntzarekin".

Irastorzaren esanetan ikastaro oso interesgarria izan da baliabide berriak jaso dituztelako eta okerreko eskemak apurtzeko ere balio izan duelako. "Egia esan, nik ez dut sekula mugimenduaren bidez testu bat barneratzen ikasi. Berria zen niretzat. Eta modu erraza da", esan du.

Atsedendian

Doke antzerki taldeko kideek formazioa egiteko baliatzen dituzte estreinaldi ezberdinen arteko hila-beiteak. Uneotan ez dira antzezlanik prestatzen ari. Seguruenik uda ostean hasiko dira hurrengo antzezlanaren auzeratzeko lanetan.

Parodia interesgarria emakumeak gaurko gizartean duen paperaz

Prest gaude! antzezlanarekin barre egin zuten egubakoitzean Aramaion

L.Z. | ARAMAIO

Gurutze Eizmendi, Alaitz Olaiola eta Idoia Uranga aktoreek antzeztzen dute *Prest Gaude!*, eta egubakoitzean gaur egungo utzi zituzten aramaiorak. Azpeitiko Lakrikun antzerki taldeko kideak Aramaion izan ziren iaz ere. Orduan, *Greban gaude* antzezlanaren eskaini zuten. Egubakoitzean, berriz, trilogiaren bigarren zatia aurkeztu zuten kultura etxean, eta gustura egin zuten barre ikusleek.

Emanaldiak bat egin zuen herrian programatuta zegoen beste ekitaldi batekin, eta antolatzaileen esanetan eragina izan zuen horrek. Dena den, gustura agertu dira Txirritola euskara elkartetik kultura etxean elkartutako publiko kopuruarekin.

Antzezlanak ordu eta laurdeneko iraupena izan zuen, eta umorearen bitartez gaur egungo gizartean emakumeak bizi duen egoeraren inguruan gogoeta egiteko bidea zabaldu zuen. Aramaion

ere emakume batek baino gehiagok identifikatu zuen bere burua antzezlanarekin ikusi eta entzundakoekin. Aktoreen esanetan horrek egiten du antzezlanak funtzionatzea; "Bizi ditugun drama txiki horiek umorearekin lantzen ditugu", adierazi dute.

"Iaz gustura ikusi genuen *Greban gaude!* lehenengo zatia, eta aurrean ere gustura geratu gara *Prest gaude!* bigarren zatia-ekin", adierazi du, berriz, Divina Arriolabengoa aramaiorak.



Prest gaude! antzezlaneko aktoreak egubakoitzean Aramaion. | IMANOL SORIANO

FIACHRAS

GURE MUSIKA TALDEAK



Aste honetan helduko zaie disko berria. | FIACHRAS

"Musika erosten duenak nahiago izaten du biniloa, xarma berezia dauka"

- ▶ Sumision City Blues taldearekin batera singlea kaleratu behar dute
- ▶ Kantu rockeroagoak dira, hasierako folk-rock musikatik aldentuta

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Solo soy un perro embaucador y desterrado; horrela dio Bergarakoen *Antes de marcharme* kantua. Fiachras bueltan da bi himno berriekin, eta kantuak inoiz baino gordinagoak dira; hala ere, ehuneko ehunean Fiachras direla antzematen da lehenengo entzundititik. Gasteizko Sumision City Blues taldearekin bat kaleraturiko binilo-singleko abestiak aurkeztu zituzten egubakoitzean Bergarako jaietan. Bi taldeek orain dela urte batzuk punk-rock *anfetaminikoaren* bidea alde batera utzi zuten, beste abentura batean murgiltzeko. Diskoa bidean elkartu zireneko testigantza da. **Nolatan singlea?**

Artola eta *Pela* [SCBko abeslaria] lagunak dira aspalditik, eta *Pela*-ren urtebetetze festa batean jo genuen. Guk Brigada Criminal taldea utzi ondoren sortu genuen Fiachras, eta Sumision City Blues

Obligaciones taldea desegin ostean sortu zen. Kasualitatez, bi taldeok punk-rocka alde batera utzi eta musika modernoaren sustraietara jo genuen. Hori dela eta, kontzertu batzuk batera egin genituen eta horietako batean sortu zen ideia. Gainera, SCBkoek disko luzeak grabatu beharrean disko motzak argitaratzen dituzte, eta ideia gustuko izan genuen. Gaur egun diskoak ez dira saltzen eta lan izugarria egitea diskoko hiru kantu bakarrik entzun daitezkeen... beste formula bat izan daiteke. **Lan egiteko era aldatu duzue?**

"Datorren urtean disko berria grabatu nahi dugu"

Egia esan, orain arte bezala funtzionatu dugu. Erabakiak hartzeko bi talde garela kontuan hartu beharra dago, baina ez da egon ezberdintasun handirik. **Zelakoa izan da grabazioa?**

Zapatu batean grabatu genuen, Tolosan, Bonbereneako estudioan, Txapen laguntzarekin. Egun bakarrean grabatu genuen eta emaitzarekin nahiko pozik gaude, presaka ibili ginen arren. Buruan genituen hainbat gauza egin gabe geratu ziren, baina... **Zelakoak dira kantuak?**

Lehena *57 segundos* deitzen da, eta lanean bizi diren kontu txarren ingurukoa dela uste dut, Artolak egiten ditu letrak. Rockeroagoa da, grabazio honetarako soinua aldatu egin dugu.

Antes de marcharme, ostera, Artolak ia amaituta ekarri zuen, lokalean zerbait moldatu eta forma hartu zuen. Letra Rasputinen ingurukoa da, Artolak biografia

ZERTZELADA



FIACHRAS/SUMISION CITY BLUES

Estiloa: Rock.

Egilea: Fiachras/SCB (Bergara/Gasteiz, 2013).

Argitaletxea: Bonberenea Ekintzak.

Iraupena: 13:43 minutu.

"Punkaren ostean ere bada bizitarik"

Bergara-Lazkaoko eta Gasteizko talde hauek asko dute komunean; hortaz, singlea elkarbanatu izana komenientziak ezkontza izan da. Bai Artolak Fiachrasen eta baita Pelak SCBen ahalegin berezia egiten dute kantuen hitzak idazterakoan; izan ere, biak poeta-galtzaile hutsak dira. Horrez gain, bi taldetako kideak punk-rocketik datoz, baina horri bizkarra eman eta bestelako koordinadak lantzeko sortu zituzten taldeok. Fiachrasen bi kantu berriak gitarreroagoak dira, nahiz eta folketik erabat ez urrundu eta koro, tenpo erdiei eta malenkoniari eutsi. Eta Sumision-en 'Angelines' errepideko pieza rockero-blueseroa da, etxeko marka duena. Gora ezkongaiak!

IKER BARANDIARAN

bat irakurri zuen eta horren gaineko istorio bat kontatzen du. **Berriz ere Bonberenean Txapekin.** Konfiantzazkoa da, erraza da harekin lan egitea eta pazientzia handia du. Talde bezala ondo ezagutzen gaitu dagoeneko. Azken urteetan beti harekin grabatu izan dugu eta emaitzarekin pozik

gaude. Egia esan, ez dugu planteatu beste estudio batera jotzea, kontu horietarako nahiko nagiak gara, kantuak egiten saiatzen gara. Orain, adibidez, Txus sartu zenetik ahotsei garrantzi handiagoa ematen diegu, melodikoagoak dira.

Kantu berri hauek rockeroagoak dira. Apropos egindakoa?

Nolabait, bilatu egin dugula uste dut. Oraingoan, ez genuen instrumentu askorik zuen kanturik egin nahi, beraz nahitaez gitarrek presentzia handiagoa dute. Hasierako folk-rocka alde batera utzi eta rock klasikoagorantz jo dugula esan genezake.

Beraz, taldeak ibilbidean eboluzioa izan du.

Bai, lehenengo diskoa oso *folki*-a zen, bigarrenarekin kantu osatuagoak egin genituen, moldaketa eta instrumentazio askorekin. Oraingo honetan, hori guztia alde batera uztea erabaki dugu; zuzenean, gainera, kantu asko diskoan dauden moduan interpretatzea ezinezkoa da. Kantu zuzenagoak egiten saiatu gara.

Zelakoa izango da banaketa?

500 aleko tirada egingo dugu eta Bonberenea Ekintzek argitaratuko dute. Hasieran, Bi Batean Diskak diskotxearekin kaleratzeko asmoa genuen, baina ardura-duna Londresera joan zen bizi izatera. Ostean, Bonbereneakoek eurekin argitaratzeko eskaini ziguten. Orain arteko diskoak eurekin egin ditugu eta interesa erakutsi zuten momentutik ez zen arazorik egon. Diskoak kontzertuetan eta Bonberenea Ekintzen webgunean egongo dira salgai.

Hemendik aurrerako planak?

Hurrengo urtean disko grabatu nahi dugu; horrenbestez, uda ostean lanean hasi beharko dugu. Ordura arte kontzertu gutxi emango ditugu; hala ere, irailean SCB-rekin batera aurkezpen txukun bat egitea gustatuko litzaiguke.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALGAI

Abadiño. Piswa salgai edo alokairuan Abadiño probalekuan; 3 logela, 3 balkoi, sukalde jantokia, egongela handi bat, komuna eta ganbara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615711240.

Bastida. Piswa saldu edo egunetarako alokatu egiten da, Bastidan (Arabar Errioxa). Herriaren erdialdean kokatuta dago. 106m2koa eta 3 logela, 2 bainu, sukaldea eta saloia dauka. Altxarriekin geratzen da. 8/10 pertsonentzat alokatzen da 65 euro eguneko, pisu osoa. Arremnantan jartzeko 600 46 32 76 telefonora deitu. alejandrosjfina@gmail.com.

Bolibar. Bolibarren etxea salgai, lur sailekin edo gabe. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660 35 80 67.

Durango. Piswa salgai Durango erdigunean. Bi logela. Berriztatuta. Denak kanpora ematen du. Oso argitsuua edo eguzkitsua. 120.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 70 24 61.

Eibar. Piswa salgai Arragueta kalean. Eraikitako 75m2 ditu. 3 logela, komun bat, sukaldea, egongela, despentsa eta bi balkoi ditu. Etxebizitza hirugarren solairuan dago. Eraikinak igogailua du eta orientazioa ipar hegoaldekoa da. Arroparako esekitokia estalita dagoen patio batean dago. Kokapena eta komunikabideak oso onak dira. Interesatuok deitu telefono honetara: 656 78 60 97.

Elorrio. Etxebizitza salgai Elorriko erdigunean, estrenatzeke. 3 logela, bi komun, sukalde ekipatua, 8m2 ko trasteroa eta igogailua. Prezioa: 198.000 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 634 45 72 01.

Gasteiz. Piswa salgai San Martin auzoan (125m2, 2. Solairua). Etxe argitsuua eta ikusmira ederrekoa, ipar hegoalde dera begira. Sukaldea, 3 logela, egongela eta bi komun ditu; baita balkoia, aparkaleku eta trasteleku ere. Altxari eta guzti. Berogailua gas bidez. Igogailua ere badu. Ikusi nahi izanez gero, 693 24 37 12 telefonora deitu. 253.000 euro.

Iurreta. Iurretan, Arriaundin, etxebizitza salgai. 50.000 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 685 72 80 42.

Iurreta. Iurretan Zubiarre kalean pisua salgai. 70 m2, 3 logela, egongela, komuna eta sukaldea. 30 m2ko terraza. Berriztatzeke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 40 26 67.

Orendain. Etxebizitza bifamiliarra. Orendainen salgai edo alokairuan etxebizitza bifamiliar berria, izkin batean. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela jangela, tximinia, bi terraza lorategi eder, trasteleku, garaje bikoitza, eta abar... 145 m2. Ikuspegi irekiak eta independentea. Baratza du. Interesatuok deitu 943 65 42 72 edo 661 31 98 47 telefono zenbakira.

103. ERRENTAN EMAN

Abadiño. Muntzaratz auzoan, pisua alokagai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652736339.

Arrasate. Ikasleendako hiru logelako etxebizitza ematen da errentan arguin 7an. Egongela ere badu. Laugarren solairua, igogailuarekin. Berokuntza indibidualarekin. 676 85 45 36 / 943 79 83 48.

Arrasate. 2013/2014 ikasturterako hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Unibertsitatetik oso gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 605 77 51 71

Bastida. Bastidan opporetako pisua alokatzen dut pisinarekin. Torre otxandi urbanizazio pribatuan. Urbanizazioakigerileku eta saskibaloipista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldea eta egongela, guztiz apainduta. Paisaia eta bista ikusgarriak. Ezkaririk hurbil. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilabetea alokatzen da. Interesatuok deitu hona: 620 62 92 45. iarteaga@hotmail.com.

Bergara. Etxebizitza interesgarria ematen da errentan erdigunean. Garajearekin, eguzkitsua eta guztiz hornitua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 62 39 45.

Conil (Cadiz). Apartamentu bat alokatzen da. Hondartzan inguruan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653 73 34 57

Conil (Cadiz). Landa etxea alokatzen da. Herrik 3 minutura. Lorategia dauka eta ingurune lasaia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600 59 65 38

Durango. 4 gela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berokuntza zentrala, igogailua eta argitsuua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660 05 56 43.

Elgeta. Etxebizitza errentan ematen da elgetako Salbador kalean. Bi logela, sukaldea eta egongela. 650 23 10 19.

Elorrio. Etxebizitza alokagai. Erdigunean eta estrenatzeke. 3 logela, bi komun, sukalde ekipatua, 8m2 ko trasteroa eta igogailua. Prezioa: 650 euro hilean. Interesatuok deitu telefono honetara: 634 45 72 01.

Eskoriatza. Unibertsitatetik 15 metrora. Lau logela. Guztiz hornitua eta berokuntzarekin. Deitu zenbaki hauetara: 655 72 44 10 edo 656 71 65 11.

Gasteiz. Piswa alokagai Arantzabal auzoan (8. Solairua). Etxe argitsuua eta ikusmira ederrekoa, hegoalde dera begira. Sukaldea, 4 logela, egongela eta bi komun ditu; baita aparkaleku eta trasteleku ere. Altxari eta guzti; bizitzen hasteko moduan. Igogailua ere badu. Ikusi nahi izanez gero, 693 24 37 12 telefonora deitu. 950 euro.

Oropesa del Mar (Castellón). Marina Dor 4 6 pertsonantzako apartamentu berria, udan eta urte osoan zehar alokagai. Hondartzatik 150m tara. Egongela, 2 logela, komuna, sukaldea, terraza handia, garaje, 2 igerileku eta txintxaunak. 2 igerileku eta txintxaunak. Animaliarik ez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 670 21 49 24. Marijo

Tolosa. Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det tolosan, persona bat edo bintzako egokitua, bi planta dauzka. Eguskitzua da eta lasaia. Prezio 450 euro. 609 48 11 24.

Valle Rmales (Kantabria). Txaleta alokatzen da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653733457

Zaldibar. Piswa alokatzen dugu Zaldibarren. 3 logela, altzariz horniturik. Hilean 550 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 655 70 62 68.

Zaldibar. Herri erdigunean, pisua alokagai. 3 logela, altzariz horniturik eta igogailuarekin. 639 21 01 39.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan eman
- 104. Errentan hartu
- 105. Etxeak osatu
- 106. Bestelakoak

3. LOKALAK

- 301. Saldu
- 302. Erosi
- 303. Errentan eman
- 304. Errentan hartu
- 305. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

- 501. Jaso
- 502. Eman
- 503. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

- 701. Saldu
- 702. Erosi
- 703. Eman
- 704. Bestelakoak

9. HARREMANAK

- 901. Agurrak
- 902. Harremanak
- 903. Deiak
- 904. Bestelakoak

4. LANA

- 401. Eskaintzak
- 402. Eskaerak
- 403. Bestelakoak

2. GARAJEAK

- 201. Saldu
- 202. Erosi
- 203. Errentan eman
- 204. Errentan hartu
- 205. Bestelakoak

6. MOTORRA

- 601. Saldu
- 602. Erosi
- 603. Alokatu
- 604. Bestelakoak

8. DENETARIK

- 801. Saldu
- 802. Erosi
- 803. Eman
- 804. Hartu
- 805. Trukatu
- 806. Galdtu
- 807. Aurkitu
- 808. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburak.com



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokoosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Zubieta 70 m², 3 logela, Oso ondo. 132.223 €.
- Masterreka 73 m², 2 logela, Oso ondo. Igogailua.
- Aranerreka 84 m², 3 logela, trasteleku. Garajea aukeran. 150.000 €.
- Barrenkale 90 m², 3 logela. Erabat berritua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berritua. Garajea aukeran. 150.000 €.
- Bolu 66 m², 2 logela. Irasteleku. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.220 €.
- Bidekurutzeta 65 m², 2 logela. Irasteleku. 120.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Zubiurre 56 m², 2 logela. Igogailua, erabat berritua. 135.000 €.
- Matxietegi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m², 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000 €. Aukera ona
- Zabalolegi 80 m², 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarantiz 75 m², 3 logela. Berritua. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €.
- Ibarra 65 m², 3 logela. Berritua. 150.000 €.
- Artzamendi 70 m², 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760 €.
- Zubiurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onan. 132.223 €.
- Zabalolegin 2 eta 3 logeletako pisuak OSO PREZIO ONEAN.
- Bidekurutzeta 147 m². Igogailuarekin. 135.000 €. Prezio jeitsierarekin.
- Martzial Agirre 60 m², logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
- Matxietegi 60 m², 2 logela. Igogailua. Erabat berritua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoiekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Errealden 77 m², 3 logela. Balkoia, trasteleku eta garajearekin. 205.000 €.
- Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Irasteleku eta garajearekin. Oso ondo.
- Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.
- Marriko 140 m², 4 logela. Berria. Oso ondo. 225.000 €.
- Justo Garate 50 m², 2 logela. 10m2 terraza. Oso ondo. 210.350 €. PREZIO JEITSIERA.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berritua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.
- San Antonio 70 m², 2 logela. Garajea. Berria. 157.000 €.

ANTZUOLA:

- Beheko Auzoa 60 m², 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errealden 94 m², 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurategi 83 m², Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- **ETXEBIZITZEN ETA GARAJEN ERAIKUNTZA BERRIA.** Leku onetan eta prezio interesgarriak.

SORALUZE:

- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:

- Domingo Iurbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealden 77 m², 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iurbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

OSINTXU:

- Osintxu 85 m², 3 logela. Igogailua. Berritua. 150.000 €. AUKERA BIKAINA.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, merke. Bi edo hiru logelakoa. 629 80 7773.

Bergara. Alokairuan hartzeko etxe bila nabil. 400 eurotik behera. 622 94 1912.

Bergara. Hiru logelako etxebizitza errentan hartu nahi dut. 654 24 13 27

105. ETXEEK OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73.

Arrasate. Pertsona bat behar dut gelmako etxeetan etxebizitza osatzeko. Olala. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 687 26 46 58.

Bergara. Pertsona bat behar da etxea osatzeko Bolun. 225 euro dena barne. Wifiarekin. 670 85 86 68

Berriz. Logela alokatzen da baserria konpartitzeko. Berriz-tatu berria eta leku paregabea. 619 66 58 57.

Oñati. Pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko. Ruben. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 69 49 76.

Oñati. Pisu osatzeko pertsona bat beharko genuke. Langilea izatea gustatuko litzaiguke. Deitu 653 74 87 51 zenbakira 20:00etatik aurrera.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Santa Kurtz 24an garaje itxia salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 655 71 37 84.

Deba. Garajea salgai Debako hondartzan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648 20 37 75

Elgeta. Salbador 2lean, garajea salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 43 60 35 edo 943 76 32 27

Elorrio. Elorriko Berrio Otxoa kalean garaje itxia saltzen da. Interesa baduzu eta informazio gehiago nahi baduzu, deitu! Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 658 75 92 64.

Elorrio. Elorriin, Belengua kalean, garaje itxia salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 45 72 01.

Otxandio. Otxandion bi garaje salgai. Bat itxia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: Interesatuok deitu telefono honetara: 675 71 72 83.

203. ERRENTAN EMAN

Durango. Garaje plaza bi errentan ematen ditut. Plateruena plazan. 656 78 02 15.

Durango. Durango Gasteiz bidea kalean garaje itxia alokatzen da. Deitu 658 45 35 66 zenbakira.

Durungaldea. Aparkaleku alokagai Herriko Gudarien kalean. Durango. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 73 56 80.

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Garaje itxia alokatuko nuke Kalegoienan. Gehienez 60 euro ordainduko nituzke. 653 71 04 56

Oñati. Garajea hartuko nuke errentan Bakardadeko Amakale inguruan. Berdin da itxia edo irekia izan. Epe luzerako gurako nuke. 630 13 08 92.

Oñati. Garajea errentan hartuko nuke Errekalde edo Moiuia kalean inguruan. Telefonoa: 650 27 05 78.

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Durango. Bulegoa alokagai Durango, Plateruena plazan. 42m2. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 656 78 02 15.

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate eta Aretxabaleta. Haur Hezkuntza ikasketak aurten bukatzeko dituen neska euskalduna ekainean eta uztailan umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 618 87 12 97

Arrasate. Emakume euskalduna goizetan lanerako gertu: umeak zaindu, plantxa lanak eta abar. Interesatuok deitu telefono honetara: 699 54 17 27

Bergara. Haur Hezkuntzako ikasketak dituen neska euskaldun arduratsua uztailan umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 61576 29 25

Bergara, Arrasate eta Oñati lan egingo nuke. Garbitasun lanak: etxebizitza, tabernak, atarteak eta abar. Umeak edo nagusiak ere zainduko nituzke. Orduka ere bai. Berehalan lanean hasteko moduan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625 86 99 51

Bergara. Emakume arduratsua, euskalduna, umeak zaintzeko gertu. Puerkultura tituladuna. Arantxa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 65 30 62

Bergara. Haur hezkuntza ikasketak egiten ari den neska euskalduna, ekainean eta uztailan haurrak zaintzeko prest. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 618 43 60 35 edo 943 76 32 27

Bergara. Neska lan egiteko gertu, garbitasun lanak: etxeak, tabernak eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 622 94 19 12

Bergara. Neska lan egiteko gertu, garbitasun lanak: etxeak, tabernak eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 622 94 19 12

Bergara. Neska lan egiteko gertu, garbitasun lanak: etxeak, tabernak eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 622 94 19 12

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu zein garbiketarik egiten. Orduka edo egun osoz. 629 80 77 73

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu zein garbiketarik egiten. Orduka edo egun osoz. 629 80 77 73

Debagoiena. Neska lan bila dabil. Garbiketara lanak egingo nituzke: atarteak, etxeak, elkarrekin eta tabernak, baita nagusiak zaindu ere. Sukaldean esperientzia daukat eta kotxeko kameta. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 36 39 92

Debagoiena. Emakume espainiarra lanerako gertu garbitasun lanetan zein nagusien zaintzan jarduteko. Baita etxean bertan bizitzaren ere. Esperientziaduna. 722 32 43 67

Debagoiena. Emakume euskalduna lanerako gertu. Eskarmentua daukat lantegian, denda, nagusi zein

Debagoiena. Nikaraguako mutila lanerako gertu. Zaintzak egingo nituzke bai etxean bizi izaten zein egunez edo orduka. Baita baserrietan ere. Esperientziaduna. 631 45 60 53

Debagoiena. Nikaraguako mutila lanerako gertu. Zaintzak egingo nituzke bai etxean bizi izaten zein egunez edo orduka. Baita baserrietan ere. Esperientziaduna. 633 28 81 24

Debagoiena. Udan umeak edota pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen neska euskalduna naiz. Deitu telefono honetara: 653 70 85 52

Debagoiena. Mutila gertu mekanikari lanak egiteko. Baita igeltsero, margolari eta beritze lanak egiteko ere. 69179 53 34.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu lanerako: nagusi edo umeak zaindu eta garbitasun lanetan. Etxean bertan bizizaten edo bestela. Esperientziaduna. 631 22 32 92.

Debagoiena. Neska orduka edo gauzez lan egiteko gertu. Silvia. 630 99 11 85.

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: eraikituzan, margoketa lanetan, soldatzen edo nagusiak zaintzen. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Gidabaimena daukat. 637 07 23 70.

Debagoiena. Eraikituzan, garbiketaren zein mekanika lanerako gertu nago. 671 26 74 74.

Durungaldea. Nagusiak zaintzeko, garbiketarako edo umeak zaintzeko lan bila nabil. Lanaldi osoan zein erdian, gauzez ere bai. Erreferentzia onekin. 609 88 79 21.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko, sukaldari laguntzaile edo beste edozein lan egiteko prest. Egunez edo orduka. Bizileku baimenarekin. 686 19 00 24.

Durungaldea. Etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko, garbiketaren zein sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest. 680 54 48 62.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko 24 orduz edo egunez, zerbitzari lanetan, sukaldeko laguntzaile edo etxeko lanetan aritzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono honetara: 602 65 39 64.

Durungaldea. Bikote bat lan bila. Pertsona nagusiak zaintzen zein etxeko lanetan. Gidatzeko baimenarekin. Interesatuok deitu telefono honetara: 697 66 48 18 (Roni) // 659 16 93 77 (Hilda)

Durungaldea. Emakume arduratsua eta erreferentziaduna lan bila. Pertsona nagusien zaintzan 24 orduz edo egunez, sukaldeko laguntzaile edo garbiketaren orduka. Interesatuok deitu telefono honetara: 608 65 90 55 // 602 80 83 85 (Nieves)

Durungaldea. Abadiñoako 33 urteko neska euskalduna etxeak garbitzeko, plantxa egiteko edo pertsonak zein umeak zaintzeko prest. Kotxea daukat. Tel: 658 73 80 48 (saiola).

Durungaldea. Pertsona arduratsua eta erreferentziaduna, pertsona nagusiak zaindu edo garbiketaren (portalak, tabernak, etxeak...) aritzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 631 28 34 57.

Durungaldea. Emakume arduratsua nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketaren aritzeko lan bila dabil. Deitu telefono honetara: 689 43 64 54.

Durungaldea. Goizez, arratsaldez, gauzez, asteburuetan zein jaiegunetan garbiketaren zein zaintzan aritzeko prest. Esperientzia gaixorik dauden nagusiak zaintzen. Interesatuok deitu telefono honetara: 690 68 73 95.

Durungaldea. Emakume arduratsua eta erreferentziaduna pertsona nagusiak zaintzen, garbiketaren edo sukaldeko laguntzaile lanetan lan bila dabil. 24 orduz, egunez edo orduka. Interesatuok deitu telefono honetara: 608 65 90 55.

Durungaldea. Erreferentziak dituen emakumea lan bila. 24 orduz edo egunez, orduka, gauzez asteburuetan aritzeko prest. 669 52 73 27.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Asteburuetan, gauzez... 696 75 35 30.

Durungaldea. Lan bila nabil, nagusiak zaintzen edo garbiketaren. Lanaldi osoan edo erdian, baita gauzez ere. Erreferentzia onekin. Segituan hasteko. Paperak erregulatuta. Interesatuok deitu telefono honetara: 650 61 01 94.

Durungaldea. 24 orduz edo egunez, asteburuetan zein gauzez pertsona nagusiak zaintzeko prest. Erreferentzia onak eta esperientziaduna. Gidatzeko baimena. Interesatuok deitu telefono honetara: 619 13 07 16.

Durungaldea. Edozein ordutegitan 24 orduz zein egunez eta edozein lanetan aritzeko prest. Etxeko lanetan, zaintzan zein garbiketaren. Interesatuok deitu telefono honetara: 603 48 80 27 (Nira).

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko, garbitzaile lanak egiteko, sukaldari laguntzaile edo beste edozein lan egiteko prest. Bizileku baimenarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636 44 59 01.

Durungaldea. Garbiketaren (tabernak, etxeak, portaleak) zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 616 32 73 32.

Durungaldea. Pertsona arduratsua, orduka pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 628 78 93 50.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Deitu telefono honetara: 639 96 58 84.

Durungaldea. 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono honetara: 638 33 51 10.

Durungaldea. 24 orduz, lanaldi osoan edo erdian pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono honetara: 660 93 56 31.

Durungaldea. Andre euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Urte askotako eskarmen-tuarekin. 699 74 57 23.

Durango. Durangon egunez zein orduka pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketaren aritzeko lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono honetara: 680 29 66 76.

Elorrio. Arratsaldetan, pertsona nagusiak edota ezinduko paseatzen atera edota konpainia egiteko prest dagoen neska gaztea naiz. Mendekotasuna duten pertsonenganako arreta ikasten ari naiz (atencion socio-sanitaria). Interesa baduzu, jarri nirekin harremanetan. 688 64 06 04. Mila esker.

Zarautz. 26 urteko neska udan haurrak zaintzeko eskaintzen da. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono honetara: 645 71 52 58

Zerbitzari. 17 urteko mutila zerbitzari moduan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. 625 83 84 13 edo 679 38 39 54

Durungaldea. Nagusiak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono honetara: 600 72 84 37.

Durungaldea. Esperientzia duen neska 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila dabil. 672 85 39 30.

Durungaldea. Neska arduratsua, esperientziaduna eta erreferentzia onekin, 24 orduz edo egunez, asteburuetan edo orduka pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila dabil. Paperak eguneratuta. Interesatuok deitu telefono honetara: 628 00 22 17.

Durungaldea. 24 orduz, egunez edo orduka pertsona nagusiak zein umeak zaintzen edo garbiketaren aritzeko lan bila. Deitu telefono honetara: 602 89 44 78.

Durungaldea. Neska euskalduna, titulu eta esperientziaduna, titulu eta esperientziaduna umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 662 36 41 67 // 94 681 39 40.

Durungaldea. Geriatriako laguntzaile asteburuetarako lan bila. Interesatuok deitu telefono honetara: 652 72 02 29.

Durungaldea. Pertsona arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko lan bila dabil. Edozein ordutan aritzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 616 32 73 32.

Durungaldea. Pertsona arduratsua, orduka pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 628 78 93 50.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Deitu telefono honetara: 639 96 58 84.

Durungaldea. 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono honetara: 638 33 51 10.

Durungaldea. 24 orduz, lanaldi osoan edo erdian pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono honetara: 660 93 56 31.

Durango. Andre euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Urte askotako eskarmen-tuarekin. 699 74 57 23.

Durango. Durangon egunez zein orduka pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketaren aritzeko lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono honetara: 680 29 66 76.

Elorrio. Arratsaldetan, pertsona nagusiak edota ezinduko paseatzen atera edota konpainia egiteko prest dagoen neska gaztea naiz. Mendekotasuna duten pertsonenganako arreta ikasten ari naiz (atencion socio-sanitaria). Interesa baduzu, jarri nirekin harremanetan. 688 64 06 04. Mila esker.

Zarautz. 26 urteko neska udan haurrak zaintzeko eskaintzen da. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono honetara: 645 71 52 58

Zerbitzari. 17 urteko mutila zerbitzari moduan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. 625 83 84 13 edo 679 38 39 54

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Durungaldea. Neska gazte bat eskola partikularrak emateko eskaintzen da. L.H. DBH zein Batxilergoan. Ekonomia lizen-

tzatu. DBH eta Batxilergoan irakasle izateko masterduna, eta EGA tituluduna. Interesatuok deitu telefono honetara: 600 72 84 37.

Durungaldea. Neska euskalduna batxilergo eta Administrazio tituluduna, etxez etxe eskola partikularrak ematen ditu. 662 36 41 67 // 94 681 39 40.

Durungaldea. Psikologo euskaldunak ikasketa teknikoak eskaintzen ditu. Irakurketa idazketa ulermen arazoak lan-tzen ditu, batez ere. Hiperaktibitatea, antsiedadea, etab. Deitu telefono honetara: 679 38 23 69.

Durango. Klase partikularrak, ikas tekniak (lan ohiturak, motibazioa): erdi mailako eta goi mailako prestakuntza zikloak; LH DBH eta batxilergoa. 656 79 15 99.

Durango. 24 urteko mutil euskalduna eta Lehen Hezkuntzan diplomatu eskola partikularrak emateko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 695 73 69 94 edo emaila: k.anderez@hotmail.es

Elorrio. Lehen hezkuntzako edozein kurtzora zuzenduta, arratsaldez klase partikularrak emateko prest. Hezkuntza berezia eta haur hezkuntza ikasketak ditut egink. Interesa baduzu jarri harremanetan nirekin: 688 64 06 04.

Villabona. Ingleseko eta frantseseko klase partikularrak ematen ditugu. Taldea edo bakarka. Hizketaldiak, azterketak. Bakarkako klaseak zure etxean eman ditzazkegu edo gure estudioan. Lehendabiziko eguna proba moduan izanik, gero zuk erabaki. Tel: 664 16 02 68.

Villabona. Klase partikularrak ematen dira: ingelesa, frantsesa, matematika, fisika, kimika, eta abar. Taldea edo bakarka. Irakasle tituluduna. Telefonoa 664 16 02 68 eta posta elektronikoa continental56@yahoo.es.

Zumaia. Gitarra klaseak ematen dira, estilo gehientsuenak jorraz; folk pop, rock, blues etx... Zumaia, inguruko herrietara mugitzeko prest. Haur nahiz heldu 10 eurotan ordua edozein momentutan hasi nahi badezue, ere deitu telefono honetara 666 27 40 55 ekialdean@yahoo.es Animatu zaitze!

6. MOTORRA

601. SALDU

Audi A4 kotxea salgai. Audi A4 kotxea salgai. Oso egoera onean. 160.000 km. Interesatuok deitu telefono honetara: 673 49 36 39.

Autoa. Karneta atera berra badaukazu edota zure kontu autoan ibili nahi baldin baduzu, zuretzako auto ezin hobea daukat, 71.000 km erreale dituen polo coupe pt 1.3 55cv. Prezioa 999 euro negoziagarri. Deitu ezazu, 695 70 62 27.

Citroen c3 hdi 70 cv collection diesela salgai. Citroen c3 hdi 70 cv collection diesela salgai, 22.300 km. Irrati cd mp3, abiadura mugatzailea, ispilu elektrikoak, barne ordenagailua, ia ia berria eta durangal detik bakarrik erabilia. IAT 2013ko azarora arte pasata. 7.500 euro negoziagarri. Interesatuok deitu telefono honetara: 618 93 62 14.

Opel frontera 2.3. D salgai. Opel frontera 2.3. D salgai. 1994. Urtekoa. Kilometro gutxi ditu. Interesatuok deitu telefono honetara: 667 09 43 36.

Mercedes Vitto 110 furgoneta salgai. 1999. urteko Mercedes Vitto 110 furgoneta salgai, 105 CV. Ohea, aulkia, mahaia, pintura berria, larruzko aulki berriak, leiho automatikoak, klimatizagailua, ABS eta apar-katzeko sentsoreak. Interesatuok deitu telefono honetara: 673 49 36 39.

Honda Hornet cb 600 motorra salgai. Honda Hornet cb 600 motor horia salgai. 2008. urtekoa. 10.200 km. Bi jaka (Alpinestar L tamaina eta Levior M tamaina), hiru kasko (Hebo L tamaina, Lem S eta M tamainak) eta eskularru pare bat oparitzen ditut. Prezioa: 5.600 euro. Informazio gehiagorako, interesatuok deitu telefono honetara: 629 45 52 41.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Aharia eta ardia salgai. Latxa arrazako urtebeteko ahari ederra eta ardi bat saltzen dira. Interesatuok deitu telefono honetara: 94 621 82 57.

Txintxillak salgai. Martxoaren 14an jaioak 3 txintxilla eme ditut salgai, umezako maskota egokiak. Janan apur bat eta txosten batekin ematen dira (bertan, txintxilleri buruzko informazio dator) informazio gehiago nahi izanez gero txintxillak@gmail.com edo 634 77 84 58 (Izaskun)

703. EMAN

Artzain txakurkume opari. Artzain txakurkume ederrak opari. Interesatuok deitu telefono honetara: 616 93 63 51 (Manu).

Pointer txakur umea oparitzen da. Pointer txakur umea, 3 urtekoa, zuri beltza, oso oso polita, kumeak egiteko aproposa oparitzen da. 616 91 90 61.

Txakurkumeak. Aurki bi hilabete egingo dituzten txakurkume mestizoko ematen ditut opari. Inigo. 688 92 00 86.

Txakurkumeak opari. Labrador arrazako txakurkumeak opari. Pedigriarekin. Interesatuok deitu telefono honetara: 606 70 65 08. Carlos

Txakurkumeak opari. Brako eta ardi txakur nahasketa. Aste-bete daukate. Beltz kolorekoak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 637 90 57 15.

8. DENETARIK

801. SALDU

Arropa. Zapatak eta bestelako osagarriak saltzen ditut. 606 24 79 09

Bolibar. Bolibarren lursaila salgai. Interesatuok deitu telefono honetara: 660 35 80 67

Bernedo. Lursail eraikigarria urturin salgai dago, Bernedon. Gasteizetik 40km tara dago, eta izkiko golfetik 3 minututara baino ez. 308m2 eraikitzea posible da, 7ml ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguru-n beste lursaila eta etxebizitza batzuk ditu; baita golfeko hotela ere. Telefonoa: 665757807 (ana) emaila: ana.vitoria.gasteiz@gmail.com

Quiny freestyle xl (silla+kapazoa). Quiny freestyle xl. Kapazoa (gris iluna) berria da eta silla (beltza) oso egoera onean dago. Sillak lau posizio ditu eta posizio batean erabat

etzaten da. Silla bi norantzatan jarri daiteke, haurra zuri begira dagoela edo aurrera begira. Gehigarriak: euritik babesteko plastikoak. 350 euro. Harremanetarako: 660 25 25 13 (Ana)

Umentzako triziklo berria salgai. Umentzako triziklo berria salgai. Opari egokia udarako, 75 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 634 77 84 58.

802. EROSI

Akordeoi kromatikoa. Akordeoi kromatikoa erosiko nuke. Deitu 607 16 03 60 edo 607 15 26 62 zenbaketara.

Durungaldea. Lursail bat erosi edo alokatu nahi dut . Lursail txikia, ortua ipintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666 69 10 03.

DVD irakurgailu eramangarria. Bi pantailadun DVD irakurgailu eramangarria erosiko nuke. Deitu telefono honetara: 665 75 64 38

Haurren aulkirako zakuak. Bugaboo Donkey haurren aulkirako bi zaku berdin erosiko nituzke. Interesatuok deitu telefono honetara: 635 70 05 14

Irrati antena salgai. Irrati antena salgai. FM transmisorea, osagai hauekin: «link» stereo sorgailu bat, «diratel» FM modulagailu kitzikagailu bat eta «diratel» FM 60W amplifikadore bat. Eta FM sistema eradiatzaile, osagai hauekin: 4 antenayagi FM, 2 elementurekin eta FM banagailu bat, 4 biderekin. 94 681 65 58.

Klarineta. Bigarren eskuko klarineta erosiko nuke. Deitu 688 84 10 82 telefonora.

Samsung Galaxy SII SIII. Bigarren eskuko Samsung Galaxy SII SIII edo antzerako mugikorra erosiko nuke. 647 31 64 41

803. EMAN

Bidali zure ordenagailua Peru eta Boliviara. Hondatuta, zaharra edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bialduko dugu Bolivia eta Peruko eskoletara. Interesatuok deitu telefono honetara: 655 71 76 66.

804. HARTU

Musika tresnak. Batukada Feministak perkusioko musika tresnak behar ditu, nahiz eta egoera txarrean egon, birziklatu egingo ditugu. Etxean edo entsailu lokaletan musika tresnaren bat kentzeko edo botatzeko edukiz gero, jarri harremanetan: 615 78 10 68

Sofa zaharrak hartzen dira. Sofa zaharrak hartzeaz arduratzen gara. Etxeatik hartu eta ondoren bere berrerabilpenaz edo birziklatzeaz arduratzen gara. Zerbitzu gutziz doako da. Deitu 671 92 06 49 telefono zenbakira.

Sukaldea jantzeko materiala behar dugu. Onatiko gazte txean sukalde herrikoia egiteko asmoa daukagu. Horretarako, edalontzi eta plateretatik hasi, eta sukaldea lortzeraino, esker onez jasoko ditugu era gutzietako tresna, gailu eta aparatuk. Materialen bat emateko baduzu deitu zenbaki honetara: 688 68 14 60

805. TRUKATU

Lursailak. Hiri zaldiretzako Arrasate Eskoriatza inguruan lursailen bila nabil. Trukean, lursailen mantenua eta garbiketa egingo nuke. Sastrakak ken-

tzeko makina daukat. Interesatuok deitu 697 41 66 24 telefono zenbakira.

806. GALDU

Aretxabaletan erlojua galdu. Larunbat arratsaldean Iturrigorri frontoi inguruan edota Durana kalean mutikoaren erloju digital beltz bat galdu nuen. 679 86 67 38 edo 943 25 05 44

Betaurrekoak Bergaran. Orain dela aste batzuk Bergarako erdialdean, eguzkitako betaurreko batzuk galdu nituen. Graduata daude. Fundaren barruan zeuden. Beltzak eta txurak dira. Norbaitek aurkitu baditu, mesedez deitu telefono zenbaki honetara. Aldez aurretik, mila esker. 617 51 27 71

Eraztuna Arrasaten. Zapatuan, maiatzaren 11n, eraztuna galdu nuen Forum Sport dendan. Goizean. Eraztun handia da, anbar kolorekoa eta harri bat dauka. 628 77 58 28

Erlorjua Arrasaten. Jose Luis Inarra kaletik Zerrajerako Erroskera bidean, Maala errabaletik pasatuta, erlojua galdu da. Zilar kolorekoa, kate mailaduna, laukizuzen formaduna. 943 79 38 29

HTC telefono mugikorra. Larunbat iluntzean edo gauean, apirilak 27, HTC markako telefono mugikorra galdu nuen Bergaran edo Antzuolun. Zuria da. Mesedez, aurkitu duenak dei diezadala. 695 95 07 24

Marmot jaka beltza. Zira beltza galdu dut: Marmot etxekoa, beltza eta txanoarekin. Aurkitu baduzu deitu euidazu mesedez eta bila fango naiz. Eskerrik asko. 678 53 12 25

Patinetea Bergaran. Joan zen maiatzaren 11n, larunbata, Oxelo patinete beltza eta gurrpil urdinak zeukana galdu genuen. Aurkitu baduzu mesedez. 637 00 01 58

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Arrasateko elkarte gastronomiko baten plaza erosiko nuke. Elkarte gastronomiko bateko kide bazara eta zure plaza saltzeko asmoa baduzu nik erosiko nituzke. Alde zahar-rean bada hobe 667 95 73 16

Euskara Frantsesa Arrasaten. Mintzapraktika egiteko jende bila nabil. 685 76 59 73

Bikotekide liluragarriaren bila. Udaberriaz batera, bat batean konturatu zara norbaitekin eskutik helduta gauzak ederragoak direla?, bizipenak konpartitu nahi dituzu? momentu onak eta txarrak norbaitek konpartitzeko aukera izatea gustuko zenuke? aurrera jarraitzeko ilusioa emango dizun bat behar duzu batzuetan?. Ba hemen naukazu . Bilboko 54 urteko neska alai, irekia, oso sozialean naiz. Zinema, bidaia, itxaso, hondartzak, irakurtzea, kantatzek, lagunekin pasieren ibiltzea, txangoak egitea etab. dira nire zaletasunak. Antzekoa bazara animatu eta deituidazu elkar ezagutzeko eta ikusiko dugu zer gertatzen den. Harreman iraukor baten bila nabil, baina adiskidetasuna ere oso gauza polita da zure zain telefonoa: 606 25 05 84.

Mutil atsegin bat neska atsegin baten bila. Mutil atsegin bat naiz eta neska atsegin baten bila nabil, 46 urte ditut, altua eta morenoa naiz, ez ditut kargarik. Alai naiz eta bidaiatzeaz guztazten zaiz. Deitu honetara 609 48 11 24.

Etxebila
higiezinak

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

IKASLEENTZAKO ALOKAIURIAK

AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Oso polita. 750 €.

AMARA: 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza

Sare sozialetan eta musikan gogortuko du lehia Google-ek

Garatzaileentzako aurkezpena egin dute, aurtengo apustu nagusiekin

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Androidek izandako hazkundea konferentzian zabal aipatutako puntuetako bat izan zen joandako astean. Munduko sistema eragilerik erabiliena da: eguneko milioi eta erdi aktibazio egoten dira. Guztira 900 milioi erabiltzailearen bueltan dago kopuru osoa, datu ofizialen arabera. Indargune honekin, urteko garatzaileen batzarra egin berri du Google-ek apustu berriekin.

Jokoak eta Maps

Jolas-plataforma berria aurkeztu dute: *Google Play Games*. Android eta Chrome nabigatzailearentzako plataforma berezia da eta iOS-en bertsioa ere izango du. Jokalarien sailkapena, garaikurrak eta sarean beste jokalariekin jolasteko aukera ematen du.

Itxura aldatzeekin hasita, deigarriena Google Mapsek jasadakoa da, bai web bertsioan eta baita aplikazioetan ere. Diseinuan aldaketa nabariak dakartza mapen aplikazioak eta, azkenean erabiltzaileen eskaerei kasu eginda, erabiltzaileek mapak gordetzeko aukera izango da aurrerantzean, gustukoenak gorde eta Google Plus-en partekatu. Google Earth ere deskargatu barik erabili ahal-ko da aurrerantzean. Google Plus bera ere aldaketa handiekin dator.



Google Play Music All Access-en aurkezpena. | LAVANGUARDIA

Berrikuntzen artean, "komunitate" izeneko talde berriak sortu dituzte. Diseinuan aldaketa ikusgarriena eguneraketan fluxuak hartu duen itxura da Pinterest-en antza duena, orain arteko zutabe

bertikal tradizionala alde batera lagata.

Mezularitza aplikazioa

Plus sarearekin lotuta, Hangouts mezularitza aplikazioa indartu

eta zabaldu dute. Mezularitza aplikazio multiplataforma izango da aurrerantzean eta Google Talk eta Messenger aplikazioak batu eta ordezkatzera etorriko da. Android, iOS eta Chrome siste-

mentzako bertsioekin dator Hangouts. Bideo-deiak ere integratuta dakartza aplikazioak, baita taldeka ere. Mezularitza aplikazioak web bertsioa ere badakar. Zurrumurruek ez dute hutsik egin oraingoan eta musika streaming zerbitzua aurkeztu dute *Google Play Music All Access* izenarekin. Spotify-ren lehia zuzena da musika zerbitzu berria. Ezberdintasun nagusia, baina, publizitadedun doako aukerarik ez dagoela da. *Google Play Music All Access*-en prezioa hileko 9,99 dolarrekoa da estatu Batuetan, tarifa bakarra. Gainerako herrialdeetako tarifak berri ez dute eman oraindik.

Ikuspuntu estrategikoa

Aurkezpen nagusiekin eta baita ere egindako gehikuntza txikiekin, Google-ek garbi utzi du estrategiak "sozialetik" joko duela. Sare eta aplikazio sozial nagusiak ditu orain jo-muga eta horietatik Facebook eta Spotify helburu nagusi moduan. Horien aurrean, alor zehatzetan, txikia da oraindik Google. Bestelako eremuetan duen indarra ia erabatekoa da, ordea. Google Plus ardatza izango dela argi ikusten da eta estrategia orokorraren zutabe nagusia izango dela ematen du. Google-ek ordea, bihotza bilaketetan dauka eta horrek ematen dio indar ia neurrigabea. Pilatzen duten informazio kopurua eta erantzuteko gaitasuna paregabea da. Alor honetan ez dauka kompetentziarik. Edukia antolatu eta sailkatzean dute oraindik, hala ere, zailtasunik handiena. Aurrerantzean traola-hitz bitartez indexatuko dituzte Google Plusen post-ak eta hor ere zuzenean Twitterren abantailak baten sartuko dute muturra. Lehia gogorrerako prest daude.



Paperik ez eskolan

Koaderno digitala da Sonyren apustu berria. Hezkuntzarako bereziki pentsatuta, 13 hazbeteko pantaila dauka eta tinta elektronikoa darabil. Liburu elektronikoren funtzioak ere betetzen ditu. A4 orri baten neurria dauka eta 1 TFT pantaila. Karga bakarrarekin 3 aste eusten diola diote eta WiFi bidez konektatzen da sarera.

'bzh' izango da Britainiaren Interneteko luzapen propioa

ICANN erakundearen balorazio prozesuaren urrats guztiak gainditu ditu eskaerak

J.B. | ARRASATE

2004ean hasi zuten bidearen azken urratsak ematea falta zaizkio www.bzh elkarteari. Britainiar hizkuntza eta kultura komunitatearentzat berezia izango den luzapenak ICANN erakundearen ebaluazioa gainditu du eta onartua izateko baldintzak bete ditu. Euskal Herriari dagokionez, '.eus' domeinua oraindik itxaron zerrendan da, eskaria onartua izan eta gero.

'eus', bere bidean

ICANN iaz lehen mailako domeinu berriak onartzen hasi iragarri bezain laster, PuntuEus elkarteak esan zuen '.eus' domeinua eskatuko zutela. Diotenez, "elkartea jaio zen egunetik" egon dira "albiste honen zain" eta izapide guztiak jarraitzen dabil-

tza. Iazko urtarrilean bete zuten eskabidea eta zain jarraitzen dute elkarteak. Bretoiek (.bzh), korsikarrek (.corsica), galegoek (.gal) eta eskoziarrek (.scot) ere aurrera egin dute eskaeretan baina bretoienak bakarrik egin du oraingoz aurrera.

Oraingoz, batetik, domeinua eskatu eta eskaria ebaluatzeke bete behar zituzten baldintzak bete ditu elkarteak. Alegia, hurrengo fasera pasatzen dela eskabidea. Eskaria ebaluatua izango da orain, nahiz eta horrek ez duen bere onarpena ziurtatzen. Kontrako albisterik ere ez da jakin, halere. ICANNek esperotako eskaera kopurua, baina, hirukoiztu egin da azkenean eta prozesuak hasiera baten espero zena baino askoz ere gehiago iraungo duela bada-kite '.eus' elkarteak.

Ordainpeko kate tematikoak abiatu ditu Youtube-ek

Zerbitzua *streaming* bidez eta edukiak deskargatuta erabili daiteke, tarifa ordaindu eta gero. 14 eguneko probarako harpidetza ere egin daiteke. Edukietarako 30 ekoiztetxetik gora inplikatu dira hitzarmenetan. Estatu Batuetan hasi dira eta hileko harpidetza 0,99 dolarrekoa da kate bakoitzeko. Tematika zabal da.

Nerabeek ez ei dute 'on-line' kontaktuen %30 ezagutzen

Espainiako kontsumitzaileen elkarteak aterako datuak dira eta gehitzen du gurasoen %27k ez dakitela seme-alabek sarean zenbat lagun dituzten. Bataz beste, Espainiako nerabeek 177 kontaktu daukate sare sozialetan. Tuenti da Espainiako nerabeen artean zabalduen dagoen sarea.

TELE-BEGI

OIHAN VEGA



Albistegia edo sermoia?

Egun osoa informazio artean ibili ostean etxera iritsi eta cappuccino bat hartu beharrean albistegiak irensten ditut. Etxean klasikoak gara eta TVEren albistegia beti ikusten dugun saio horietako bat da. Ez dut nire bizitzaren biblia denik esango, baina azken asteotako albistegiei gotzain kutsua hartzen hasia naiz.

Ez da ezustekoa izan, Esperanza Aguirreren txiguagua izandako Somoano TVEra iritsi zenetik triskantza ugari egin ditu-eta. *Informe Semanal*-ek Emma Garciak baino sinesgarritasun gutxiago dauka orain, eta albistegiekin egin duena...

Duela pare bat aste, langabeei erreztatzeko eskatu ostean, duela egun gutxi nerabeen arropa modekin sartu zen. Ziur mundu osoan ez dela ezer garrantzitsuagorik gertatu? Ez dakit ba zer esan. Garai bateko apaizek egiten zuten moduan, TVEko kazetariak pulpitu batera igo eta sermoia botatzen digute. Gotzain falta dugu? Ez dut uste!

Dena den Somoano, albistegiak erabat borobildu nahi badituzu, horien sintonia NO-DOarenagatik aldatu eta listo!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 20



'Harmailatik'

Asteburuan kirol kontuek eman dutenari buruzko errepasoa egingo du Xabier Urze-laik. | 21:59

- 12:00 Magazinea
- 13:00 Gurean gaur
- 13:30 Zorion Agurrak
- 13:36 Onein
- 14:06 AsteON
- 14:45 Berriak
- 15:15 Eguraldia
- 15:18 Zorion Agurrak
- 15:23 AZK2012
- 16:23 Pedalka
- 16:53 Zorion Agurrak
- 16:58 Berriak
- 17:28 Eguraldia
- 17:31 Onein
- 18:04 Berbetan
- 18:42 Ekogune
- 19:12 Altxorren bila
- 19:44 Zorion Agurrak
- 19:49 Berriak
- 20:14 Eguraldia
- 20:17 Magazinea
- 21:02 Gurean gaur
- 21:32 Berriak
- 21:57 Eguraldia
- 21:59 Harmailatik
- 22:44 Magazinea
- 23:44 Berriak
- 00:01 Berriak
- 00:26 Eguraldia

MARTITZENA, 21



Albistegia

Eguneko albiste esan-guratsuenak jasoko ditugu Monika Belastegik aurkeztutako albistegian. | 14:45

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Gurean gaur
- 13:15 Zorion Agurrak
- 13:22 Harmailatik
- 14:07 Ekogune
- 14:40 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Harmailatik
- 15:53 Onein
- 16:21 AsteON
- 16:51 Zorion Agurrak
- 16:56 Berriak
- 17:21 Eguraldia
- 17:24 AZK2012
- 17:54 Altxorren bila
- 18:26 Ur eta lur
- 18:53 Harmailatik
- 19:38 Zorion Agurrak
- 19:43 Berriak
- 20:08 Eguraldia
- 20:15 Magazinea
- 21:00 Gurean gaur
- 21:30 AZK2012
- 22:00 Berriak
- 22:25 Eguraldia
- 22:30 Magazinea
- 23:15 Klaketa
- 00:30 Berriak
- 00:55 Eguraldia
- 00:58 Magazinea

EGUAZTENA, 22



Patxi Baztarrika

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburorde Patxi Baztarrika izango dugu gurean. | 20:17

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Gurean gaur
- 13:18 Harmailatik
- 14:03 Pedalka
- 14:38 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Klaketa
- 15:59 Onein
- 16:25 Harmailatik
- 17:10 AZK2012
- 17:40 Zorion Agurrak
- 17:45 Berriak
- 18:10 Eguraldia
- 18:12 Jaiak: Herri Urrats
- 18:45 Berbetan
- 19:23 Beranduegi.tv
- 19:45 Zorion Agurrak
- 19:49 Berriak
- 20:14 Eguraldia
- 20:17 Magazinea
- 21:02 Gurean gaur
- 21:33 AsteON
- 22:03 Ekogune
- 22:33 Berriak
- 22:58 Eguraldia
- 23:00 Magazinea
- 23:45 Harmailatik
- 00:30 Berriak
- 00:55 Eguraldia

EGUENA, 23



'Pedalka'

Julen Iriondok Alpeetan bizikletaz egindako bidaiaren beste atal bat ikusi ahal izango duzue. | 21:50

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Gurean gaur
- 13:15 Altxorren bila
- 13:47 Jaiak: Herri Urrats
- 14:22 Onein
- 14:42 Zorion Agurrak
- 14:47 Berriak
- 15:12 Eguraldia
- 15:15 Jaiak: Herri Urrats
- 15:50 AZK2012
- 16:20 Berriak
- 16:45 Eguraldia
- 16:48 Onein
- 17:17 Planik bai?
- 17:37 Hitzlandia
- 18:04 AZK2012
- 18:34 Onein
- 19:00 Zorion Agurrak
- 19:05 Beranduegi.tv
- 19:30 Planik bai?
- 19:50 Berriak
- 20:15 Eguraldia
- 20:17 Magazinea
- 21:17 Gurean gaur
- 21:50 Pedalka
- 22:20 Planik bai?
- 22:40 Berriak
- 23:05 Eguraldia
- 23:08 Magazinea
- 23:53 Klaketa
- 00:13 Planik bai?
- 00:33 Berriak
- 00:58 Eguraldia

EGUBAKOITZA, 24



'AsteOn'

Asteak Debagoiengan utzi dituen albisteen gaineko errepasoa ikusi ahal izango dugu, besteak beste. | 22:00

- 12:00 Planik bai?
- 12:20 Magazinea
- 13:05 Zorion Agurrak
- 13:10 Gurean gaur
- 13:40 Onein
- 14:08 Pedalka
- 14:38 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Planik bai?
- 15:33 AZK2012
- 16:03 Jaiak: Herri Urrats
- 16:38 Beranduegi.tv
- 17:08 Zorion Agurrak
- 17:14 Planik bai?
- 17:34 Berriak
- 17:59 Eguraldia
- 18:02 Planik bai?
- 18:22 Altxorren bila
- 18:54 Zorion Agurrak
- 19:00 28.Klip
- 19:32 Beranduegi.tv
- 19:57 Zorion Agurrak
- 20:02 Berriak
- 20:32 Eguraldia
- 20:37 Planik bai?
- 20:57 Gurean gaur
- 21:24 Pedalka
- 22:00 AsteON
- 22:30 Jaiak: Bergarako jaiak
- 23:15 Berriak
- 23:40 Eguraldia
- 23:43 AsteON

ARRASATE IRRATIA

'The Capaces' taldearen kontzerturako sarrerak

Kooltur ostegunak egitasmoaren barruan, eguen honetan Kataluniako hardcore punk *The Capaces* izeneko taldeak eskainiko du kontzertua Arrasateko gaztetxean. Bertara joateko sarrerak lortzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com helbidera.

Arrasate Musikalen 40. urteurrena izango dugu berbagai eguaztenean

Arrasate Musikalek aurten 40 urte beteko ditu eta aste-buru honetan egingo dute hori ospatzeko jaialdi nagusia. Bada, ospakizunei eta euren orain arteko ibilbideari buruz hitz egingo dugu Arrasate Musikaleko Dorleta Aiastuirekin *Igo autobusera!* irratia eguaztenean.

Gazte informazioari buruzko hitz egingo dugu martitzenean

Bihar, martitzena, gazte buler-goko Dorleta Kortazarrekin izango gara *Igo autobusera!* irratsaioko elkarrizketen geltokian. 11:00etatik aurrera izango da hori eta Kortazarrek emango dizkigu gazte informazioari buruzko xehetasun guzti-guztiak Arrasate Irratiko 107.7ko uhinetan. Ez ezazu galdu.

TELE-ALBISTEAK

Bergarako jaiak orain arte emandakoa, gaurko 'Magazinea'-n

Egubakoitzetik gaur arte jaiak eman dutena erakutsiko dizuegu 20:17tik aurrera

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Joan zen egubakoitzean, hilaren 17an, eman zitzaien hasiera Bergarako Pentekoste jaiak eta Goienako kameralari eta kazetariak festa giroa jasotzen ibili gara. Hala, gaur, astelehena, eskainiko dizuegun *Magazinea* jaiak eskainiko diegu oso-osorik.

Egubakoitzean jaiak hasiera emateko txupinazoan eta Bitorianatxoren jaitsieran izan ginen. Zapatuko bakailao lehiaketan jasotakoak ere erakutsiko dizuegu. Baita iazko Pentekosteetik orain arte mundura etorri diren

bergarar txikitxoei egindako ekitaldia eta aurten lehenengoz egin den umeentzako taloak egiteko tailerra ere. Errekortadoreen txapelketan jasotakoak ere erakutsiko dizkizuegu eta Julen Murgiondo Bergarako errekor-tadore gaztearen adierazpenak ere entzun ahal izango dituzue, besteak beste. Erraldoien konpartasako kalejiran ere izan gara. Atzo, domeka, egindako goitibehera txapelketan eta Euskadiko dantza askatuko txapelketan jasotakoak ere erakutsiko dizkizuegu. Eta baita gaurko herri



Bakailao lehiaketako une bat. | GOIENA

Jaien saio berezia egubakoitzean eskainiko dizuegu 22:30ean

bazkarian jasotakoak ere. Beraz, denetarik izango dugu.

Saio berezia

Bergarako jaien egun guztiek eman dutenarekin, saio berezia bat ere eskainiko dizuegu egu-

bakoitz honetan, hilak 24, 22:30ean. Bertan, joan zen egubakoitzetik, hilaren 17tik, martitzenera arte, hilaren 21era arte, jasotakoak erakutsiko dizkizuegu. Ez galdu etxetik mugitu gabe festarekin gozatzeko aukeraz.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Jon Hernandez Fernandez
Maiatzaren 25ean, 14 urte. Zorionak, Joni! Ondo pasatu eguna! Patxo Saray eta Tamararen partetik!



ANTZUOLA
Aiantze Irizar Iztueta
Maiatzaren 25ean, 5 urte. Urte askotarako etxeko guztien partetik. Muxu potolo bat Enaitz eta gurasoen partetik.




BERGARA
Maialen Jauregi Elorza
Maiatzaren 25ean, 3 urte. Zorionak, Maialen! Pa handi bat etxekoan eta laguntxoan partetik. Pa, pa eta pa.



ARETXABALETA
Maddi Iturricastillo Elkoro
Maiatzaren 24an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Muxu handi bat eta ondo pasatu zure urtebetetze egunean.



OÑATI
Gari Salazar Guridi
Maiatzaren 24an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Muxu potolo bana zure etxekoan partetik. Bereziki, Malen, aitaxo eta amatxoren partetik!



ANTZUOLA
Naia Aranguren Gastafiares
Maiatzaren 24an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu pottolo bat, hainbeste maite zaitugun guztien partetik.



OÑATI
Alazne Bolinaga Barrena
Maiatzaren 24an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat zure lehenengo urtebetetze egunean etxeko danon partetik.



OÑATI
Ekain Markuleta Inza
Maiatzaren 24an, urtebetetzea. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu potolo-potolo bat etxeko danon partetik. Mua, mua, mua!



ARETXABALETA
Inge Berridi Errasti
Maiatzaren 23an, 2 urte. Zorionak, Inge! Ondo pasatu zure urtebetetze egunien eta dantza asko ein. Muxu handi bat etxeko danon partetik.



BERGARA
Markel eta Garazi Gonzalez Martinez
Maiatzaren 24an, urtebetetzea. Zorionak, bihurri pare! Etxeko guztien partetik egun alai pasa ezazue eta marrubizko musu handi bana, bikote!



ARETXABALETA
Maixa Martxueta Lukin
Maiatzaren 23an, urtebetetzea. Zorionak, izeba Maixa! Muxu potolo pila bat Nekane eta Maddalenen partetik. Asko maite zaitugu!



BERGARA
Alain Davila Iza
Maiatzaren 23an, 2 urte. Zorionak, Alain! Muxu handi bat familia guztiaren partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna, potxolo!



ARRASATE
Jokin Guzman Orobeno
Maiatzaren 21ean, 2 urte. Gure etxeko txikitxoak bi urte! Zorionak eta muxu pila Oier, aitaxo eta amatxoren partetik.



BERGARA
Markel Eguren Toledo
Maiatzaren 21ean, 5 urte. Zorionak, Marke! Jaixetako martitzenian bost urte; beraz, barrakak zure kontu, eh! Liherr.



ARRASATE
Unax Gartzia Dorronsoro
Maiatzaren 20an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat etxeko guztien partetik, Araitz eta Shanen partetik bereziki.



ARETXABALETA
Amaior Kortabarria Iturbe
Maiatzaren 20an, 3 urte. Zorionak, Amaior! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat etxeko danon partetik.



OÑATI
Aimar Hernandez Otxoa-Aizpurua
Maiatzaren 20an, 4 urte. Zorionak, pototi! Lau urte dagoeneko. Ondo pasatu zure egunean eta muxu handi bat etxeko danon eta, bereziki, Lurren partetik. Mua, mua.




ARETXABALETA
Ander Urizarren
Maiatzaren 20an, 9. urtebetetzea eta maiatzaren 25ean, jaunartzea egingo du. Zorionak maitasun handiz zure familiaren partetik bi egun hauek betetzen dituzulako.



OÑATI
Nora Madina Zubia
Maiatzaren 20an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo. Ondo pasatu zure eguna eta patxo potolo bat etxeko danon partetik.




OÑATI
Jon Zelaia Vizcaino
Maiatzaren 20an, 3 urte. Zorionak, polittori! Hiru urte dagoeneko. Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu erraldoi bat Paularen partetik.




OÑATI
Asier Zubiagirre Ugarte
Maiatzaren 20an, 9 urte. Jaso ezazu familiaren izenean zorion agurrak beroena. Urte askoan horrelaxe jarraitu dezazula. Muxu handi bat Martaren partetik.



BERGARA
Anartz Asula Errezil
Maiatzaren 19an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat aitaxo, amatxo eta familia guztiaren partetik!



ARRASATE
Paul Lasar
Maiatzaren 19an, 3 urte. Zorionak, pirata! Ondo-ondo pasatu eguna eta txokolatzeko patxo potolo bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
Ander Gonzalo Maria
Maiatzaren 19an, 4 urte. Zorionak, maitia! Oso ondo pasatu zure eguna. Besarkada handi bat eta belarrik lau tirakada. Aita, ama eta Danelen partetik.




OÑATI
Unai Ibabe Kerexeta
Maiatzaren 19an, urtebete. Zorionak, potxolo! Urteko bat gure artian... Patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
Araitz Etxabe Zubizarreta
Maiatzaren 19an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu asko etxekoan partetik.



ARRASATE
Beñat Alonso Lopez
Maiatzaren 19an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Primeran ospatuko dugu. Aitaxo, amatxo eta Marenen partetik, hamar patxo potolo-potolo eta belarri tirakada handi bat. Muxutxuek, maitia!



BERGARA
Amaior Gallastegi Agirrezabal
Maiatzaren 19an, 5 urte. Zorionak, neskatala! Muxu pila bat zuretzat, bereziki Unaxenak.



ARRASATE
Julene Idigoras Amado
Maiatzaren 18an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko danon eta, bereziki, Hodeien partetik. Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna!



BERGARA
June De la Torre Gonzalez
Maiatzaren 18an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu eguna. Muxu handi bat denon partetik, bereziki aitaxo, amatxo eta Sararen partetik.



ARRASATE
Uxue Arexolaleiba Erretolatza
Maiatzaren 18an, 7 urte. Bidie eitten zabitz Uxue umoretsu eta artez, zorionak ta patxo haundi bat, maitte zaitugunon partez!



DEBAGOIENA
Maddi Gabilondo eta Enara Zumarraga
Maddik maiatzaren 18an, 3 urte eta Enarak 20an, 8 urte. Zorionak, maitiak! Hasi pastel erraldoia prestatzen eta muxu bana etxeko guztien partetik.




BERGARA
Izaskun Arrese Balzategi
Maiatzaren 17an, 29 urte. Zorionak, amatxo! Ondo pasatu zure egunian! Muxu handi bat Markel eta aitaxoren partetik. Mua!



OÑATI
Ainitze Agirreurreta Fernandez
Maiatzaren 16an, urtebete. Zorionak, txiki! Honezkeror urteko bat! Jarraitu orain arte bezain alai eta bihurri izaten! Patxo potolo bat etxeko danon partetik!



ARRASATE
Sergio Canales
Maiatzaren 16an, 34 urte. Zorionak, aitaxo! Muxu handi bat Alazne eta Aitorren partetik. Baita amatxoren partetik ere.



ARRASATE
Aitor Hernandez Gonzalez
Maiatzaren 16an, 25 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure egunean. Patxo potolo bat Unai eta Haizearen partetik.



OÑATI
Jakes Beristain Santos
Maiatzaren 16an, 4 urte. Zorionak, etxeko danon partetik eta bereziki zure anaia Alex eta osaba-izeba Hector eta Piliren partetik. Muxu handi bat, txapeldun!



DEBAGOIENA
Saioa Garin
Maiatzaren 16an, 10 urte. Zorionak, neska handi! Ondo pasatu jaixetan eta muxu potolo bat etxekoan partetik.



ARETXABALETA
Oinatz Iturbe Murgiondo
Maiatzaren 14an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat etxeko danon partetik. Ondo-ondo pasatu zure egunean!



ARRASATE
Ane Olabe
Maiatzaren 14an, 23 urte. "Very big puto amo" bezela ezagutu izan zaitugu betidanik. Gaez juega botatzeko ez dago zu bezelakorik. Orain arte bezela jarraitu ta zorionak Madariagatik.



ARETXABALETA
Maddalen Ziardegi Martxueta
Maiatzaren 12an, 3 urte. Zorionak, Madalena! Muxu potolo pila bat etxeko danen partetik! Madariagatik.

Zorionak!

Internet
Sar zaituz goiena.net atarian eta Zorion agurra bidali botoia sakatu. Bete eskutatuko datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.

Posta elektronikoa
Mezu bat bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak
Etor zaituz GOIENako ordezkari za batera.

OROIGARRIA

**Nerea
Altube Arrese**

Mirari Altube lankidearen ahizpa

Bat egiten dugu
senideen eta lagunen saminarekin.**arteman**
KOMUNIKAZIOAArteman Komunikazioa Koop. E.
Debagoiengan, 2013ko maiatzaren 20an.

OROIGARRIA

**Nerea
Altube Arrese**

Mirari Altube lankidearen ahizpa

Bat egiten dugu
senideen saminarekin.**goiena**Goiena Komunikazio Taldea
Debagoiengan, 2013ko maiatzaren 20an.

OROIGARRIA

**Nerea
Altube Arrese***Nerea, maite zaitugu. Beti izango zara gure bihotzetan.**Tia Antoni, Tia Mari Tere, Tia Tomasa,
Alberto eta Mila, Kontxi eta Jose Mari, Agurtzane eta Xabier, Amaia eta Peio,
Angel, Iñaki.*Altube familia.
Eskoriatza-Oñati, 2013ko maiatzaren 20an.

ESKER ONA

**Julio
Markaide Barrutia**

Aretxabaletan hil zen 2013ko maiatzaren 16an, 69 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Betiko gure gogoan eta bihotzean jarraituko duzu.

Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 17an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoiengan.**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:****ARRASATE** Goiena: Otxalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.**BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.**ARETXABALETA** Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.**ARAMAIO** Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.**JAIOTAKOAK****Oihan Lopez Morras**Eskoriatza. 2,840 kilo. Maiatzaren 11.
Gurasoak: Amaia eta Zigor. Argazkian,
Oihan jaioberria sehaskan.**Ekhi Abajo Alberdi**Bergara. 2,470 kilo. Maiatzak 11. Gura-
soak: Ainhoa eta Alex. Argazkian, Ekhi
aitarekin.**Amets Korta Artze**Arrasate. 3,960 kilo. Maiatzaren 12a.
Gurasoak: Naiare eta Iñaki. Argazkian,
Amets osaba Aitzolekin.**Lide Velarde Gallastegui**Antzuola. 3,300 kilo. Maiatzaren 13a.
Gurasoak: Eider eta Oscar. Argazkian,
Lide amarekin.**Haitz Zubeldia Egidazu**Arrasate. 3,570 kilo. Maiatzaren 12a.
Gurasoak: Itziar eta Aratz. Argazkian,
Haitz amarekin.**Noa Urtaza Hernandez**Oñati. 3,270 kilo. Maiatzaren 10a. Gura-
soak: Amaia eta Pello. Argazkian, Noa
osaba Ikerrekin.**June Kurriza Lamariano**Antzuola. 3,240 kilo. Maiatzaren 13a.
Gurasoak: Onintza eta Josu. Argazkian,
June goxo-goxo sehaskan.**Izar Saizar Cazalis**Arrasate. 3,200 kilo. Maiatzaren 14a.
Gurasoak: Montse eta Iñigo. Argazkian,
Izar sehaskan lo.**Lucas Lai**Arrasate. 3,600 kilo. Maiatzaren 16a.
Gurasoak: Chun Wei Hong eta Shuang
Wei Lai. Argazkian, Lucas sehaskan.**Galder Lopez Ruiz**Oñati. Maiatzaren 14a. Gurasoak:
Oihana eta Aitor. Argazkian, Galder
gurasoekin.**Mikel Navarro Suarez**Arrasate. 3,950 kilo. Maiatzaren 14a.
Gurasoak: Tatiana eta Miguel. Argazkian,
Mikel jaioberria sehaskan.**Ainar Garitaonandia Muñoz**Aretxabaleta. 3,650 kilo. Maiatzaren
16a. Gurasoak: Itziar eta Harriet. Argaz-
kian, Ainar aitarekin.**Iزار Prol Bilbao**Arrasate. 3,420 kilo. Maiatzaren 2a.
Gurasoak: Aitziber eta Asier. Argazkian,
Iزار jaioberria aitarekin.**Paule Ramirez Fernandez**Arrasate. 3,350 kilo. Maiatzaren 14a.
Gurasoak: Erika eta Alberto. Argazkian,
Paule neba Oihanekin.**Jaio da!**Eman jaiotzen berri Goiena
paperean eta interneten.Deitu 943 25 05 05 telefonora
edo zatoz GOIENAREN
ordezkaritza batera.

AI, ENE!

Eurek ere merezi dutelako

Txakurrari urtebetetzean oparia egiteko, utzi alde batera txamarrak eta plastizkozko hezurak eta ikusi zein pozik dagoen argazkikoa. www.sarda.es




AHOBERO

"Emakumeek ez badute nahi bortxatuak izan, ez dezatela gehiegi edan"

LAI TUNG-KWOK | HONG KONGEKO MINISTROA

Asko edaten dutelako, arropa probokatzaileak jartzen dituztelako... Bortxaketen inguruan berba egiteko orduan sarriegi paper trukaketa egiten dute askok, biktimak gertatu zaienaren errudun bihurtuta. Zenbat lan geratzen den oraindik ere egiteko... www.intereconomia.es

EGURALDIA



Max. 14°

Min. 6°

Astea ezegonkortasunarekin hasiko dugu, baina zaparradak tartekatukoak izango dira. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-05-20

HAMARREKOA

Ander Lipus Xabier Mendigurenen 'Publikoari gorroto' lanarekin dabil aspaldion berez Iñigo Ibarra deitzen den markinarra; harekin berbetan, nabarmena da antzerkiarekiko duen sentimendua | TXOMIN MADINA

"Etiketak azkar jarri eta ken daitezke, ez naute larritzen"

1. Publikoari gorroto lanarekin zabilta. Zer egin dizu, bada?

Niri, ezer ere ez; baina pertsonaia, antzerkia hasi eta konturatu da bi ikusle bakarrik daudela. Burua joaten zaio eta publikoa torturatzen du. Besteak beste, antzerkira joaten ez direnei errieta da obra.

2. Antzerkorik bizi izan duzu?

Ez askotan, baina inoiz bai. Herri baten hiru etorri ziren behin, eta bik ikusita zuten lana. Suspenditu egin genuen. Gogorra, latza da publikorik ez edukitzea.

3. Zerk bultzatzen zaitu obra bati baietz esatera?

Publikoari gorroto beste batek idatzita egiten dudana lehena da. Irakurtzean eragina izan zuen nigan: probokatzailea da, bortitza, itsusia... Ez ninduen axolagabe utzi. Finean, antzerkia sentitzeko norberak duen erari fidela izatea da.

4. Teatrotik kanpo oso gutxi ikusi zaitugu. Ez al da aktoreen helburua telebistan aberats egitea?

Nirea ez. Hautuak dira; nireak nire antzerki taldea eta Artedrama, Arte Eszenikoen Plataforma, dira. Norberak sinesten duena egin behar du. Batzuetan pozgarria da, bestetan gogorra; ni oso gustura nabil.

5. Zer falta zaio egun Euskal Herrian egiten den antzerkiari?

Garrantzitsua da sarea eta publiko sortzea, eta publikoari material ona ematea; horretarako, lan handia egin behar da. Gazteendako aukerak ere igartzen ditut faltan.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Emaztea Kubatik ekarriko nuke"

"Bihar [maiatzak 14], emazteak enbaxadan elkarrizketa dauka hona etortzeko: abeslaria eta pianista da eta haren ahizparekin bikotea osatzen du. Bira antolatu genuen hemen, baina ezin izan zen etorri, Espainiako enbaxadak oztopoak jarri zituelako. Habanan ere badauden Bizkaibusetako baten sartu eta hona ekarriko nituzke".

6. Outsider bat zarela esaten badizute, zenbateraino ados?

Etiketak azkar jarri eta ken daitezke, ez naute larritzen. Nik egiten dudana nirea da. Ez dakit *outsider*-a edo komertziala den, gure obrak merkatu baten barruan daude; autonomiarekin egiten ditugu, eta aniztasun hori euskal antzerkian ezinbestekoa da. Gainera, nire lanen zati bat ez da prentsan agertzen.

7. Aktore irakasle ere ibili zara. Nola ikusten dituzu datozenak?

Ondo; baina eskola profesional bat ondo egongo litzateke; laborategi bat ere bai, obra pertsonalagoetarako. Gazteak badaude, eta gogotsu; baina ez dago eskolarik, esaterako, dena euskaraz ikasteko.

8. Teatroa ikertu ere egin duzu.

Gero eta gutxiago; praktikoko bihurtu naiz: orduak sartu behar dira, ez da ordaintzen eta ezin da horretaz bizi. Bada zer ikertu, adibidez, euskarazko testugintzan.

9. Behin baino gehiagotan egon zara Indian. Zer eman dizu?

Kanpora joateak ematen dizu zure herrian, kulturaren eta barruan dituzun gauzak deskubritzea. Ez bere osotasunean, baina antzerki kultura izugarria ere ikasi dut han.

10. Eguneko 24 orduetatik, zenbat antzerkitik kanpo?

Gutxi; denbora librean ohitura dut beste antzerki talde batzuk gidatzeko. Benetako etena egitean Kubara joaten naiz, emaztea kubatarra da-eta: han lasai nago.

BIHARAMUNA

ITXARO ARTOLA



Irtentz, seguru?

Benetan poztu nau Mondragoneko bazkideek Fagor Etxetresna Elektrikoei atakarik irteten laguntzeko hartu duten erabakiak. Badirudi, bultzada horri esker, hondoan jotzeko zorian zegoen itsasontziak nabigatzen jarraitu ahalko duela oraingoz. Bejondeiela, euren trainerua galbidean sumaturik, beldurrak jota ikusten ditugun ehunka arraunlari horiei! Ea aurrera egiteko ilusioa berreskuratzen duten. Guztiaren beharrea daude egon ere. Duela gutxi onartu duten bidai orriaren arabera, are sakonago murgilduko baitira kapitalismoaren ur nahasietan, Korporazioak sorturiko Berregituratze eta Enplegu Sozietariorako Funtsean babesarekin. Eta, zerumugan krisiaren ekaitza baretzera doala pentsatzeko argi printzarik ikusten ez denez, leinari trebeak beharko dituzte izan, laguntza puntualetatik haratago, barkuaren gila suntsitu nahiko dieten marrazoz jositako itsaso gaizto horretan iparra ez galtzeko. Ontzia bere jatorritik atzerakorik gabe urruntzera eraman ditzaketen maniobrak zentzuz eta neurritz egiten asmatzeko. Kanpo produkzioaren nagusitzea, aliantzekiko dependentzia, lan baldintzen prekaritate, deskapitalizatze finantzario zein humanoa... Uf, lagunok, eutsi gogor eta zorte on!



Aurre egiteko gure tratamenduak ezagutu

- Drainatze linfatikoa
- Termoizterditzea, estalkiak eta hidromasajea
- Ultrasonoak, bakunterapia
- Kabitazioa...

Kontsulta mediko estetikoak

- Dieta pertsonalizatuak
- Gorputz mesoterapia
- Proteinen ekarpen-dieta (Ysonut metodoa)...

AG
AMAGARA

Erdiko kalea 54 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

RPS: 228/10